


LEIOA
lagunkoia
Bizitzaz betetako bidea
Un camino, mucha vida



2025eko azaroa



Leioa Lagunkoia Leioako Udaleko Gizarte Politiken, Inklusioaren, Adinekoen, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Sailak sustatutako proiektua da, Bizipozek kudeatzen lagundua. Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren *Euskadi Lagunkoia* ekimenaren esparruan sustatu da.

Laguntza teknikoa:

Bizipoz Envejecimiento Activo S. Coop. Pequeña de iniciativa social

AURKIBIDEA

1. PROGRAMAREN TESTUINGURUA	5
1.1. Sarrera	5
1.2. Leioa Lagunkoia	5
1.3. Leioako errealitatea	7
2. LAN-METODOLOGIA.....	11
2.1. Bigarren mailako iturriak	13
2.2. Herritarren topaketak	14
2.3. Topaketak adinekoen gizarte-zentroetan	14
2.4. Herritarren lagunkoitasunari buruzko inkestak	14
2.5. Talde tekniko eta politikoaren parte-hartzea	14
3. DIAGNOSTIKOA	15
3.1. Parte-hartzea	15
3.1.1. Herritarren topaketetan parte hartzea.....	15
3.1.2. Topaketak adinekoen gizarte-zentroetan	17
3.1.3. Herritarren lagunkoitasunari buruzko inkestak	18
3.2. Azterketa-arloak	22
3.2.1. Aire zabaleko espazioak eta eraikinak	23
3.2.2. Garraioa	40
3.2.3. Etxebizitza.....	48
3.2.4. Partaidetza eta gizarte-ehuna	54
3.2.5. Errespetua eta gizarteratzea	76
3.2.6. Herritarren parte-hartzea eta enplegua.....	80
3.2.7. Komunikazioa eta informazioa	94
3.2.8. Gizarte-eta osasun-zerbitzuak	104
4. LAGUNKOITASUN-PLANA	114
Bibliografia.....	133

1. PROGRAMAREN TESTUINGURUA

1.1. Sarrera

Leioako Udalak urteak daramatza udalerrian gizarte-politikak bultzatzen. Zehazki, Udalaren Gizarte Zerbitzuek uste dute udalerriko biztanleen zahartzearen auziari ezin zaiola entzungor egin. Ildo horretan, Leioa udalerri lagunkoien multzora atxikitzeak ederki adierazten du konpromiso irmoa duela modu integral eta diziplina anitzekoan lan egiteko, Leioako pertsonen eta, bereziki, adinekoen bizi-kalitatea hobetzearen.

Horretarako, Leioako Udalak eskaera bat helarazi zion Bizipozi, **Leioa Lagunkoia** proiektuaren diagnostikoa egitera bideratutako laguntza teknikoko zerbitzu-proposamena gauza zezan.

Proiektu honen helburua da adinekoen eta, oro har, herritarren parte-hartzea sustatzeko diagnostiko bat egitea, Leioako auzoak eta inguruneak hobetze aldera.

1.2 Leioa Lagunkoia

Inguruneak adineko pertsonekin lagunkoiak izateko mugimendua **Osasunaren Mundu Erakundeak (OMEk)** sustatu zuen 2005ean, eta ordutik, OMEk koordinatutako **Hiri eta Komunitate Lagunkoien Munduko Sarea** eratu da. Espainian, **IMSERSO**k lankidetzahitzarmena sinatu zuen erakunde horrekin, Adinekoekin Lagunkoiak diren Hirien eta Komunitateen Iberoamerikako Sarea sortu eta Espainiako eta Latinoamerikako ekimen guztiak bateratzeko asmoz.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailak bultzatutako **Euskadi Lagunkoia Sustraietatik Sareari** atxikitako programa da **Leioa Lagunkoia**. Sareak helburu hau du: herritarren eta sektore publiko, pribatu eta sozialaren parte-hartzea sustatzea, Euskadin lagunkoitasunaren mugimendua garatzeko, zahartzen ari diren pertsonen bizimodua errazten duten inguruneak sustatzea xedetzat harturik.

Zer da adinekoekin lagunkoia den udalerri bat?

Zahartze aktiboa sustatzen duen hiri-ingurune integratzailea da.

Berriazko helburuak:

- Adinekoek Euskadiko herri eta hirietako bizitzan ongizatea sortzeko duten ahalmena aprobetxatzea.
- Herritarrek parte hartzeko prozesuak sortzea eta sustatzea.

- Euskadin ekimen lagunkoien sare bat sortzea.
- Inguruneetan aldaketak egiten laguntzea, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko.

Biztanleriaren zahartzeak munduko herrialde guztietan sortzen dituen erronkak elkar osatzen duten bi ikuspegitatik jorra daitezke: **aberastasuna sortzeko aukera** gisa eta **gizarte zahartu** batean ongizateak dakarren **gastuagatiko kezka** gisa. Bi ikuspegiotan, **lehentasuna** ematen zaio prozesua **aztertzeari, ikertzeari eta esku-hartzeari**, aukera sozioekonomikoak sortzeko.

Euskadin are garrantzi handiagoa du horrek, **bizi-itzaropena handia** da eta. Bizimodu aktiboa eta autonomia luzatu ahal izateko, hein handi batean, hiri-diseinuak lagunkoia izan behar du, eta etxeko inguruneek, berriz, seguruak eta egokiak.

Pertsonekin lagunkoia den udalerriak berrantolatu egiten ditu egiturak eta zerbitzuak, pertsona guztiei kalitaterik, segurtasunik eta erosotasunik handiena eskaintzeko, haien gaitasunak edozein direla ere; horrela, gizarte-bizitzako esparru guztietan parte har dezaten sustatzen da. Gainera, garrantzitsua da nabarmentzea **udalerri lagunkoia adin guztietako pertsonentzat diseinatuta** dagoela, eta ez bakarrik adinekoentzat hobekuntzak lortzera bideratua.

Horrela egituratutako udalerrietan, biztanle guztientzat dira **abantailak eta onurak**:

- ✓ Oztoporik gabeko eraikinek eta kaleek dibertsitate funtzionala duten pertsonen mugikortasuna eta independentzia hobetzen dituzte, gazteena zein adinekoena.
- ✓ Auzoak ingurune seguruak badira, haurrak, gazteak eta adinekoak seguru irtengo dira kalera, eta aktiboki hartuko dute parte era guztietako gizarte- edo aisialdi-ekimenetan.
- ✓ Adinekoek komunitatearen babesa eta laguntza publiko eta pribatua jasotzen badituzte eta behar dituzten osasun-zerbitzuak badauzkate eskura, haien familiek presio txikiagoa jasango dute.
- ✓ Komunitate osoarentzat da mesedegarria adinekoek herriko bizitzan parte hartzea.
- ✓ Herriko ekonomiaren ikuspegitik ere mesedegarria da adinekoek zenbait esparrutan aktiboki parte hartzea.

Leioa Lagunkoia proiektuaren **gizarte-inpaktua eta onurak biderkatu** egin daitezke, herritarren, administrazioen, sektore pribatuaren eta gizarte-eragileen aldetik zenbaterainoko zabalkundea, onarpena eta inplikazioa dagoen.

1.3. Leioako errealitatea

Leioa Bizkaiko lurraldeko udalerri bat da, Bilbo Handiko eskualdean kokatua. **8,36 km²-ko azalera** du, eta **32.255eko biztanleria** (Eustat, 2025).


Nerbioi-Ibaizabal itsasadarraren bokaletik oso gertu dago Leioa, eta mugakide hauek ditu: iparraldean Getxo, ekialdean eta hegoaldean Erandio, eta mendebaldean Getxo eta itsasadarra. Itsasadarraren eta Abraren artean egoteak balio estrategiko handia eman izan dio eskualdeari, eta horren ondorioz aukeratu zuten Bizkaiko leinu boteretsuek dorre gotortuak eraikitzeko.

1526ko urriaren 31n Bizkaiko elizate independente moduan **sortu** zen arte, Erandioren parte zen Leioa, beste eremu batzuekin batera. Urte horretan sortu zenetik, baserri sakabanatuz osaturiko udalerria izan da Leioa, abeltzaintzara eta lurraren laborantzara dedikatua. XIX. mendearen amaieran, beste aro bat hasi zen industrializazioaren etorrerari esker: etxebizitza ugari eraiki zituzten, industriak gora egin zuen... Hala ere, 1960ko hamarkadan etorri zen udalerriaren aldaketa nagusia, enpresa ugari eta garrantzitsuak ezarri zirenean Leioan, eta, ondorioz, goraldian zegoen biztanleriaren bizi-maila areagotu zenean.

1970eko hamarkadan izandako garapen ekonomikoak mugimendu demografiko handia eragin zuen, eta, horren eraginez, **handitu** egin zen Leioako **biztanleria**. Horrek, udalerria goitik behera eraldarazi zuen, hiriguneen hazkundera azkartuz.

Gaur egun, landa-eremuetako eta eremu urbanizatuetakoa espazio mistoak ageri dira Leioan. Hain justu ere, auzo hauek ditu: **Zuhatzu, Peruri, Sarriena, Santsoena eta Lertutza** (alderik garaienean, Nerbioi itsasadarretik urrutien); **Telleria, Basaiz, Artatzagana eta Aldekoena**, baita **Santi Mami** landa-eremua ere (hirigunerantz eginda); **Elexalde, Iturribide, Donibane, Ikea, Mendibil eta Udondo** (erdigunean), eta **Ibaiondo-Santa Ana, Pinueta, Lamiako-Txopoeta, Txorierri, Ondiz eta Aketxe** (itsasadarretik hurbilen). 2023ko datuen arabera, auzoz auzoko biztanleria-banaketa 3. barrutian dago kontzentratuak.

1. grafikoa. Leioako biztanleriaren bilakaera, sexuaren arabera (2000-2024 aldia).



Iturria: EIN (2025).

Biztanleriaren hazkunde progresibo horrek goranzko joera izan du azken 20 urteotan, 1. grafikoa ikus daitekeenez. Beraz, 2000-2024 arteko aldian biztanleria hazi egin da apurka-apurka, sexuaren arabera desberdin, emakume-kopurua gizonena baino handiagoa izan baita.

1. taula. Leioako biztanleen bilakaera demografikoa.

	2020	2021	2022	2023	2024
Guztira	31.424	31.940	31.946	32.255	32.448
0–19	6.188	6.294	6.238	6.269	6.138
20– 64	19.004	19.155	19.112	19.183	19.269
>= 65	6.232	6.491	6.596	6.803	7.041

Iturria: Eustat (2025).

Zehazki, demografiaren gaur egungo datuak aztertuta ikusten da **20 urtetik beherakoak** biztanle guztien % **18,91** direla, **20-64 urtekoak** % **59,38**, eta **65 urtetik gorakoak** % **21,70**. Azterketa demografiko horrek erakusten duenez, **biztanleria zahartzen** ari da: biztanleen % 18,91k 20 urte baino gutxiago ditu, eta % 21ek baino gehiagok 65etik gora.

Aldiz, lan egiteko adinean dagoen taldeak (20-64 urtekoak) populazioaren % 59,38 osatzen du, baina haren pisua murriztu egin daiteke etorkizunean, gazteen proportzio txikiak jarraitzen badu (ikusi 1. taula). Joera horrek erakusten du **gizartea gero eta zaharragoa** dela, eta horrek inplikazio garrantzitsuak ditu sistemetan.

Biztanleriaren zahartze hori ulertzeko, Leioako piramide demografikoa azalduko dugu jarraian.

2. grafikoa. Leioako piramide demografikoa (2024).



Iturria: Garapen Hiri Behatokia (2025).


Leioako biztanleen piramideak (Garapen Hiri Behatokia, 2025) argi islatzen du gizarte moderno askok egun bizi duten **zahartze-prozesua**. Oinarri estua ageri du, eta zabaldu egiten da tarteko eta goiko adin-taldeetan. Horrenbestez, **jaiotza-tasa txikia** nabari da, eta **adinekoen gero eta kopuru handigoa**.

Bizi-itxaropen handiko testuinguruetan ohikoa den forma atzerakoi horrek berresten duen dinamika demografikoan, belaunaldien arteko erreleboa ahuldu egiten da eta talde nagusien pisua, berriz, handitu, pixkanaka. Egitura horrekin bat, **2023an 51 pertsonako hazkunde begetatibo negatiboa erregistratu zen**; hau da, heriotza-kopurua handiagoa izan zen jaiotzena baino. Datu horrek indartu egiten du piramide demografikoan islatutako joera (Garapen Hiri Behatokia, 2025).

Bestalde, Leioako **atzeritarrek** biztanle guztien % 11 izan dira 2024an (2.206 lagun), eta osaera nabarmenki gazte eta aktiboa izatea da haien bereizgarria. Gehienak lan egiteko adinean daude (% 69,8), 16 urtetik beherakoak % 12,6 dira soilik eta 65 urtetik gorakoak % 2,9 baino ez. Datu horiek ez datoz bat udalerriko zahartze-bilakaera orokorrarekin.

Egitura horrek agerian uzten duenez, komunitate horrek dinamizazio-ahalmena du, bai demografikoa, bai ekonomikoa. Jatorriari dagokionez, Amerikakoak dira nagusi (% 58,2), eta, ondoren, Europakoak (% 16,2), Afrikakoak (% 13,45), Asiakoak (% 12) eta, neurri txikiagoan, Ozeaniakoak edo nazionalitaterik gabekoak (% 0,2) (Garapen Hiri Behatokia, 2025).

3. grafikoa. Atzerritarrak, adinaren eta jatorriaren arabera.



Iturria: Garapen Hiri Behatokia (2025).

Bestalde, honela geratuko litzateke **65 urtetik gorako biztanleen banaketa barrutiz barruti**: 65 urtetik gorako 2.892 pertsona 1. barrutian, 1.237 2. barrutian eta 3.144 3. barrutian. Horrela, bada, agerikoa da 3. barrutia dela zahartuena.

2. taula. 65 urtetik gorako biztanleen banaketa auzoz auzo.

1. barrutia – Artatza	65 urtetik gorako 2.892 pertsona
2. barrutia – Elexalde	65 urtetik gorako 1.237 pertsona
3. barrutia – Lamiako	65 urtetik gorako 3.144 pertsona

Iturria: Leioako Udala (d.g.).

2. LAN-METODOLOGIA

OMEk ezarritako 4 faseko lan-metodologiaren arabera ari da garatzen Leioa Lagunkoia proiektua, **etengabeko hobekuntzako ziklo** bati jarraituz. Irudi honetan ageri dira lau fase horiek:



1. Diagnostikoa eta lagunkoitasun-plana

Programaren lehen fase honetan, **adineko pertsonen** eta, oro har, udalerriko **herriarrei kontsulta egiten zaie**, proposatutako 8 eremuei buruz zer iritzi duten jakiteko: aire zabaleko espazioak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, gizarte-sarea, errespetua eta gizarteratzea, partaidetza zibikoa eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak. Horren helburuak dira udalerriaren lagunkoitasuna ebaluatzea, **hobetzeko proposamenak identifikatzea** eta **lagunkoitasun plan** pertsonalizatu bat proposatzea.

Leioa Lagunkoia proiektuaren lehen fase honen helburua da **lagunkoitasun-plan bat sortzea**, eta **ekintza zehatzak proposatzea**, adinekoen ongizatearen eta biztanleriaren zahartze aktiboaren mesedetan, gaur egun antzemandako beharrak oinarritzat harturik.

Diagnostikoa egiteko, informazio-bilketarako tresna hauek erabili dira: (i) bigarren mailako iturrien azterketa, (ii) herritarren topaketak eta (iii) lagunkoitasunari buruzko galde-sortak. Tresna horien bidez lortutako informazioa konbinatuta, modu errealistan hurbil gaitetze udalerriaren egungo errealitatera. Tresna horietako bakoitzak helburu jakin bat du, jarraian azalduko dugun moduan:

- ✓ **Bigarren mailako iturriak aztertuz**, udalerriari buruz dagoen informazio guztia biltzen da, bai alderdi soziodemografikoei buruzkoa, bai udalerrian diharduten eragileei eta garatzen ari diren programei buruzkoa.
- ✓ **Herritarren topaketak** aukera ona dira herritarrekin batera udalerriaren lagunkoitasun-mailari buruz gogoeta egiteko. Topaketa horietan, ideiak jasotzen dira, eta herritar liderrak zein diren ikusten da, gerora proiektuari jarraipena emango dioten lantaldeak osatzeko.
- ✓ **Lagunkoitasunari buruzko galde-sortei** esker, herritarrek udalerriaren lagunkoitasun-mailari buruz zer pertszepzio duten jakin daiteke, adierazle kuantitatiboak baliatuz.

2. Plana eta ekintzen ezarpena

Programaren bigarren faseari **Plana eta ekintzen ezarpena** deritzo, eta aurreko faseko ondorioak atera ondoren ekiten zaio. Zehazki, **4 urterako Ekintza Plana** egiten da, eta udalerria adinekoekin lagunkoiagoa izateko ekintzak eta hobekuntzak proposatzen dira.

3. Aurrerapenen ebaluazioa

Programaren hirugarren fasean, egindako aurrerapenei buruzko **ebaluazio-txostena** eta jarraipen-plana aurkezten dira.

4. Etengabeko hobekuntza

Azkenik, hirugarren fasea amaitu ostean, etengabeko hobekuntzako faseari ekiten zaio. Horretarako, **beste ekintza-plan bat** egiten da, **gehienez 5 urteko iraupenekoa**.

Gainera, lan-metodologia **bottom up** (behetik gora) hurbilpenean oinarritzen da fase guztietan; haren arabera, **herritarren parte-hartzea, oro har**, eta adinekoena, bereziki, da proiektuaren ardatz nagusia. Inplikaturako eragile guztien partaidetza-prozesu bat sortuz gauzatzen da:



Adinekoek eta herritarrek, oro har, egungo, iraganeko eta etorkizuneko egoeraren azterketan hartzen dute parte, argi eta garbi adierazita **beren iritzian zer den zahartze-prozesuarekin lagunkoia izatea**, Leioako eguneroko bizitzan zer arazo dituzten eta arazo horiek nola konpon daitezkeen.

Tokiko eragileen partaidetzaren bidez —administrazioa, boluntarioak, zerbitzu-hornitzaileak eta dendariak— eta adinekoek ematen duten informazioa erabiliz, udalerriak lagunkoia izateko dauzkan **indarguneen eta oztopoen irudi osoago** bat lor daiteke.

Ikerketaren arduradunek **tokiko ebaluazio horren berri ematen diete** arduradun politikoei, planifikazioaren arduradunei, adinekoek eta, oro har, herritarrei, udalerria adinekoekin lagunkoiagoa izateko esku-hartzeak egiteko **abiapuntu** gisa.

Prozesua ikerketa-jardunaren postulatuek arautzen dute, lehen aipatutako **esku hartzeko zortzi arloetan** oinarrituta: aire zabaleko espazioak eta eraikinak, garraioa, etxebizitza, gizarte-partaidetza, errespetua eta gizarteratzea, herritarren parte-hartzea eta enplegua, komunikazioa eta informazioa, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak.

Hiri-bizitzako **zortzi alderdi horiek** gainjarri egiten dira eta elkarri eragiten diete; adibide bat jartzearren, partaidetza soziala gizarte-inklusioarekin erlazionatuta dago, eta oso lotuta informazioa eskura izateari.

Horrela, **zahartzea erabaki politikoen erdian jartzen da**, eta gizarte- edo osasun-zerbitzuetatik haratago doazen esparruetan eragiten du. Horren ondorioz, ikuspegi integratzaile eta zeharkakotik heltzen zaio zahartze-prozesuari.

Jarraian, diagnostikoa egiteko prozesuan erabilitako teknikak deskribatuko ditugu.

2.1. Bigarren mailako iturriak

Lehen fasean, azterketa bibliografiko eta dokumentala egin da, eta ikergai dugun errealitatearen esparru teorikoa osatu. Hala ere, dokumentuen eta literaturaren analisia diagnostiko-prozesu osoan zehar egiten denez, *zeharkako fase* bat dela esan dezakegu.

Bigarren mailako iturrien azterketak udalerriaz, haren alderdi soziodemografikoez, eskuragarri dagoen informazio guztia biltzen du, bai eta haren webguneak eta Udaleko sailek eta arloek emandako dokumentazioa eta zerbitzuak ere. Udalerraren lagunkortasunari buruzko ikuspegi orokorra osatzeko aukera ematen du informazio horrek. Hein handi batean, Udaleko udal-arloetako teknikari arduradunen ekarpenetatik abiatuta egin da informazio-bilketa hori.

2.2. Herritarren topaketak

Herritarren topaketak (foku-taldeen bidez) aukera ona dira herritarrekin batera udalerrriaren lagunkoitasun-mailari buruz eztabaidatzeko, ideiak biltzeko eta herritar liderrak identifikatzeko, proiektuari jarraipena emango dioten lantaldeak osatzeko.

Herritarren topaketak **2024ko maiatzetik urrira bitartean** egin ziren, eta horien bidezko informazio-bilketa **2 orduko 10 bileraren bidez** gauzatu zen.

2.3. Topaketak adinekoen gizarte-zentroetan

Herritarrek parte hartzeko antolaturiko gaikako topaketa irekietara ez ezik, adinekoen gizarte-zentroetan —**Errekaldeko Errota, Lamiako, Pinueta eta Txorierri**— egin ziren topaketetara ere gonbidatu ziren adineko guztiak, bai eta beren iritzia aurrez aurre eman nahi zuten auzoetako gainerako herritarrak ere. Haietan, diagnostikoko arlo guztiak jorratu ziren, eta auzoaren arabera informazio zehatzagoa bildu zen.

2.4. Herritarren lagunkoitasunari buruzko inkestak

Leioako lagunkoitasun-maila neurtzeko eta analizatzeko, azterketa kuantitatibo bat egin zen **lagunkoitasuneko inkesten edo galde-sorten bidez**, eta, haiei esker, herritarrek aurrez aurre edo online hartu ahal izan zuten parte.

Euskadi Lagunkoiak herri-kontsultak egiteko proposatutako inkestan oinarrituta, Leioan egin daitezkeen hobekuntzak eta errealitatera egokitzeko aukerak aztertu ziren Udaleko teknikariekin eta politikariekin. Ondoren, inkesta euskaraz eta gaztelaniaz prestatu eta maketatu zen, eta onlineko inprimaki baten bidez parte hartzeko aukera eman zen.

2.5. Talde tekniko eta politikoaren parte-hartzea

Prozesu osoan zeharkakotasuna eta sektoreen arteko lana bermatzeko, bi saio egin dira udalerriko talde tekniko eta politikoarekin. Era berean, bilera ugari egin dira Udaleko profesionalekin, diagnostikoaren informazioa osatu eta Leioako errealitatea ahalik eta egiazko eta leialena lortzeko.

3. DIAGNOSTIKOA

3.1. Parte-hartzea

Leioa Lagunkoia proiektua herritarren parte-hartzeari esker gauzatu ahal izan da, bi bidetatik: alde batetik, herritarren topaketen bidez eta adinekoen gizarte-zentroetan, eta, bestetik, lagunkoitasunari buruzko inkesten bidez. Gainera, talde teknikoaren eta politikoaren parte-hartzea funtsezkoa izan da prozesu osoan.

3.1.1. Herritarren topaketetan parte hartzea

2 orduko **10 bilera presentzial** egin ziren, **herritarren topaketen** bidez informazioa biltzeko. Elkartzeko tokiari dagokionez, **Leioako Kultur Etxeko osoko bilkuren aretoan** egin dira, eta, horri esker, herritarrek aukera izan dute parte hartzeko.

Topaketa bakoitzean, gizarte-zentroetako **erabiltzaileak**, **herritarrak**, gizarte-erakundeetako **ordezkariak** eta diagnostikoen arloan eskumena duten **teknikariak eta politikariak** batu ziren, topaketa dinamizatzeaz arduratzen ziren Bizipoz enpresako profesionalekin.

1. irudia. Herritarren topaketa baten bilera.



Iturria: norberak egina.

Herritarren topaketen **egutegia bisualki** transmititu zen, **sare sozialetan** ere zabaldu zen irudi honen bidez.

2. irudia. Leioa Lagunkoia proiektuko herritarren topaketen egutegia (2024).

 Diagnostikoa Diagnóstico Bilera irekiak Reuniones abiertas	
Maiatzak 8 de mayo Aire zabaleko espazioak eta eraikinak Espacios al aire libre y edificios	Irailak 11 de septiembre Parte-hartzea eta enplegua Participación ciudadana y empleo
Maiatzak 17 de mayo Segurtasuna Seguridad	Irailak 18 de septiembre Komunikazioa eta informazioa Comunicación e información
Maiatzak 22 de mayo Garraioa Transporte	Irailak 25 de septiembre Gizarte eta osasun zerbitzuak Servicios sociosanitarios
Maiatzak 31 de mayo Etxebizitza Vivienda	Urriak 9 de octubre Ondorioak eta ekintza plana Conclusiones y plan de acción
Ekainak 5 de junio Parte-hartzea eta gizarte sarea Participación y tejido social	10:00 - 12:00 Salón de plenos del Ayuntamiento (Kultur, 4ª planta)
Ekainak 12 de junio Errespetua eta inklusioa Respeto e inclusión social	
Animatu eta parte hartu! ¡Animate y Participa!	

Iturria: norberak egina.

Herritarren topaketetan, guztira, **204 partaide** erregistratu ziren. Hala ere, saioak sektorialak izan zirenez, pertsona batzuek behin baino gehiagotan hartu zuten parte, gonbidapen berezi bidez edo prozesuari jarraipena egiteko interesa zutelako. Beraz, kopuru hori ez dator bat banakoen kopuruarekin; guztira parte hartu duten pertsonak eta komunitatearen konpromiso jarraitua islatzen ditu. Taula honetan ikus daitekeenez, nabarmentzekoak dira topaketa horietako parte-hartzean generoaren arabera izaniko aldeak. Hain zuzen, parte-hartzaile guztien **% 67,7 emakumeak** ziren, eta soilik **% 32,3 gizonak**.

3. taula. Herritarren topaketa bakoitzeko parte-hartzaileak.

1. foku-taldea	15 pertsona (9 emakume eta 6 gizon)
2. foku-taldea	11 pertsona (7 emakume eta 4 gizon)
3. foku-taldea	27 pertsona (17 emakume eta 10 gizon)
4. foku-taldea	26 pertsona (19 emakume eta 7 gizon)
5. foku-taldea	21 pertsona (16 emakume eta 5 gizon)
6. foku-taldea	28 pertsona (21 emakume eta 7 gizon)
7. foku-taldea	20 pertsona (13 emakume eta 7 gizon)
8. foku-taldea	17 pertsona (11 emakume eta 6 gizon)
9. foku-taldea	17 pertsona (12 emakume eta 5 gizon)
10. foku-taldea	22 pertsona (13 emakume eta 9 gizon)

Iturria: norberak egina.

Parte hartzeko prozesuan jasotako oharra komatxo artean aurkezten dira, talde eragilea osatzen duten pertsonen adierazitako iritziak eta pertzepzio indibidualak ikusarazi eta bereiztearren. Gainerako ideiak, oster, parte-hartzaileen pertzepzio orokor gisa azaltzen dira. Adierazi behar da ez direla hitzez hitzeko aipamen zehatzak, informazioa taldean antolaturiko partaidetza-espazio batean lortu baitzen, eta ez banakako elkarrizketen bidez.

3.1.2. Topaketak adinekoen gizarte-zentroetan

2024ko azken hiruhilekoan, lau topaketa espezifiko egin ziren adinekoen lau gizarte-zentroetako erabiltzaileekin: Errekaldeko Errota, Lamiako, Pinueta eta Txorierri. Haietan, diagnostikoko eremu guztiak landu ziren eta informazioa auzoen arabera multzokatuta bildu zen.

Irudi honetan, adinekoen gizarte-zentroetan eginiko topaketen kartelak eta datak ageri dira.

3. irudia. Adinekoen gizarte-zentroetako topaketen egutegia (2024).

lagunkoia
Bizkaia Txorierri Leioa
Un camino, mucha vida

Diagnostikoa | Diagnóstico
Bilera irekiak | Reuniones abiertas

Urriak 15 de octubre TXORIERRI Barrio Txorierri N°81	Urriak 22 de octubre PINUETA Calle Lapurdi N°1
Urriak 29 de octubre LAMIAKO Calle Langileria N°64	Azaroak 4 de noviembre ERREKALDEKO ERROTA Plaza Errekalde N°4

17:30 - 19:30

Animatu eta parte hartu!
¡Anímate y Participa!

Iturria: norberak egina.

Adinekoen gizarte-zentroetan antolatutako topaketetan **97 pertsonak hartu dute parte** guztira. Taula honetan ikus daitekeenez, nabarmentzekoa da beste behin ere generoaren araberako aldeak ageri direla topaketa horietako parte-hartzean, baina ez dira aurrekoan bezain handiak. Parte-hartzaile guztien % **65,98 emakumeak** ziren, eta % **34,02 gizonak**.

4. taula. Herritarren topaketa bakoitzeko parte-hartzaileak.

Txorierriko bilera	27 pertsona (16 emakume eta 11 gizon)
Pinuetako bilera	30 pertsona (19 emakume eta 11 gizon)
Lamiakoko bilera	19 pertsona (10 emakume eta 9 gizon)
Errekaldeko Errotako bilera	21 pertsona (19 emakume eta 2 gizon)

Iturria: norberak egina.

3.1.3. Herritarren lagunkoitasunari buruzko inkestak

Leioako udalerrriaren lagunkoitasun-maila identifikatzeko, **inkesta** bat prestatu zen, 14 urtetik aurrerako herritarrei lagunkoitasunaz kontsulta egiteko, eta udalerriko zenbait gune estrategikotan banatu zen. Toki horietan, identifikatutako kaxak zeuden, inkestok jasotzeko. Jarraian, horietan lortutako emaitzak azalduko ditugu.

5. taula. Leioako lagunkoitasunari buruzko galde-sortaren laginaren osaera.


	Ehunekoa (%-a)	Kopurua
Sexua		
Gizonak	% 28,4	111
Emakumeak	% 65,2	255
ED/EE	% 6,4	25
Adina		
ED/EE	% 10,5	41
14-30 urte	% 3,1	12
31-45 urte	% 23,8	93
46-55 urte	% 27,4	107
56-65 urte	% 9,5	37
66-75 urte	% 21	82
76-85 urte	% 4,1	16
86-90 urte	% 0,5	2
<91 urte	% 0,3	1
Guztira	% 100	391

Iturria: norberak egina.

Guztira **391 galde-sorta** bete dira Leioako lagunkoitasunari buruz. Horien artean, **255 emakumeak izan dira**, **111 gizonak eta beste 25 sexua zehaztu nahi izan ez duten pertsonak**. Beraz, lagina batez ere **emakumeek** osatzen dute, emakumeak baitira **% 65,2**; gizonak **% 28,4** izan dira.

Era berean, laginaren adinari erreparatzen badiogu, **46 eta 55 urte bitarteko adin-tartea da ohikoena**; izan ere, **inkestaturako pertsonen % 27,4** da adin-tarte horretakoa, hau da, 107 pertsona guztira. Ondoren, **31-45 urteko** adin-tartea ageri da: inkestan parte hartu duten pertsonen **% 23,8** edo 93 lagun. Azkenik, **66 eta 75 urte** bitarteko pertsonak izan dira **guztizkoaren % 21**: 82 lagun, alegia. Grafiko honetan jasotzen dira adinari buruzko datuak.

4. grafikoa. Herritarren parte-hartzea inkestetan, adinaren arabera.



Iturria: norberak egina.

Galde-sorta **2025eko martxoan, apirilean eta maiatzean** bete ahal izan da. Bertan, Leioako zer auzotan bizi den adierazi behar zuen parte-hartzaileak.

6. taula. Lagunkoitasunari buruzko inkestetan parte hartu duten pertsonak zer auzotan bizi diren.


Auzoa	Pertsona-kopurua	Auzoa	Pertsona-kopurua
Aldekoena	8	Beste batzuk	45
Artatzagana	16	Aketxe	3
Basaiz	6	Aldapabarrena	2
Donibane – San Juan	4	Artatza	3
Elخالde	84	Doctor Luis Bilbao Libano	1
Ibaiondo – Santa Ana	1	Estartetxe	3
Ikea	22	Euzko Gudariak	2
Iturribide	18	Independentzia	2
Lamiako-Txopoeta	30	Iparragirre	3
Lertutza	0	Kandelazubieta	10
Mendibil	3	Leioandi	1
Ondiz	5	Ikeamendi	2
Peruri	3	Negurigana	1
Pinueta	17	Negurigana / San Bartolome	1
Santi Mami	0	Ondizko	1
Santsoena	3	Pinosolo	1
Sarriena	5	Sabino Arana	6
Telleria	3	San Bartolome	1

Txorierra	29	Donibane	1
Udondo	35	Erantzunik gabe	27
Zuhatzu	0		

Iturria: norberak egina.

Informazio horretatik abiatuta, ikus daiteke **parte-hartzailerik gehienak Elexalde auzokoak direla**: guztizkoaren % 24,2, alegia. **Udondo** auzoa dago bigarren % 10,1ekin, eta, ondoren, **Lamiako-Txopoeta**, parte-hartzaileen % 8,6ekin.

5. grafikoa. Lagunkoitasunari buruzko inkestetako parte-hartzea, auzoen arabera.




Iturria: norberak egina.

Nabarmentzekoa da inkesta euskaraz zein gaztelaniaz egin ahal izan zela. Hain zuzen, **33 pertsonak** (% 8,4k) **euskaraz** erantzun zuten, eta gehienek (**358 pertsonak**, hau da, % 91,6k), **gaztelaniaz**.

3.2. Azterketa-arloak

Aipatu dugunez, prozesua ikerketa-jardunaren postulatuek arautzen dute, **esku hartzeko zortzi arloetan** oinarrituta.



Lehenengo hiru gaiek (**aire zabaleko espazioak eta eraikinak, garraioa eta etxebizitza**) **udalerriko ingurune fisikoaren** funtsezko ezaugarriak biltzen dituzte. Horiek nabarmen eragiten dute pertsonen mugikortasunean, segurtasunean, osasunaren sustapenean eta gizarte partaidetzan.

Hurrengo hiru eremuak (**partaidetza soziala eta gizarte-ehuna, errespetua eta gizarteratzea eta herritarren parte-hartzea eta enplegua**) gizarte-ingurunearekin eta kulturarekin erlazionatuta daude, eta pertsonen **partaidetzan eta ongizate subjektiboan** dute eragina, nagusiki.

Azkeneko bi arloetan (**komunikazioa eta informazioa, eta gizarte- eta osasun-zerbitzuak**), **komunikatzeko eta informatzeko bide eta moduak** aztertu dira, baita adinekoek hiriko **gizarte- eta osasun-zerbitzuak** zer neurritan erabiltzen eta ezagutzen dituzten ere.

Jarraian, arloka lortutako emaitzak aurkeztuko ditugu, bigarren mailako iturriak, lagunkoitasunari buruzko galde-sortak, herritarren topaketak eta adinekoen gizarte-zentroetako topaketak aztertuta.

3.2.1. Aire zabaleko espazioak eta eraikinak


Etxebizitza eremu pribatu indibidual edo familiarraren adierazle nagusia da; **aire zabaleko espazioak, berriz, esparru hauekin daude lotuta: soziabilitatea, publikotasuna eta gizabanakoaren eta taldearen arteko lotura**. Osasunaren Mundu Erakundeak azpimarratzen duenez (2007), «kanpoko inguruneak eta eraikin publikoek eragin handia dute adinekoen mugikortasunean, independentzian eta bizi-kalitatean».

Baieztapen horren arabera, argi dago udalerri lagunkoi batentzat oso garrantzitsua dela aire zabaleko espazio erosoak izatea, aisialdiaz gozatzeko eta gainerako herritarrekin harremanak izateko. Hori dela eta, espazio horiek sortzea **ezinbestekoa** da herritarrek udalerriko eguneroko bizitzan eta **zahartze aktiboan parte har dezaten sustatzekotan**. Gainera, **leku horiek irisgarriak eta seguruak badira, ongi argiztatuta badaude eta behar bezala mantentzen badira**, hiriko komunitate-bizitzaren funtsezko elementuak izango dira.

Langunkoitasunari buruzko galde-sorten bidez, parte hartu duten herritarrek udalerriko zenbait alderdiri buruz zer ikuspegi duten jaso da, beren hiri-ingurunea nola bizi eta baloratzen duten ulertu ahal izateko. Emaitzek bizi-kalitaterako funtsezkoak diren hiru eragileren gaineko pertzepzio subjektiboak islatzen dituzte: garbitasuna, lasaitasuna eta ingurunearen erakargarritasun orokorra.

Oro har, **parte hartu duten pertsonarik gehienek balioespenak tartekoak edo onak dira**, eta erakusten du oinarri sendoa dagoela Leioan ingurune lagunkoiagoa eta abegikorragoa eraikitzen jarraitzeko.

6. grafikoa. Leioako garbitasun-mailari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Udalerriaren **garbitasunari** dagokionez, datuek erakusten dute inkestan parte hartu duten pertsonen % 51,5en iritzian Leioa *nahiko garbia* (% 41,7rentzat) edo *oso garbia* (% 9,8rentzat) dela. % 33,7k adierazitakoaren arabera, *hala-holakoa* da garbitasuna, eta % 14,7k soilik uste du *ez dela oso garbia* (% 13,0k) edo *ez dela batere garbia* (% 1,7k). Datuen arabera, herritarren % 41,4k uste du Leioa *nahiko udalerri garbia* dela; aitzitik, % 10,5en iritzian *ez da oso garbia*. Balorazio horrek iradokitzen du **hiriko garbiketa- eta mantentze-zerbitzuek, oro har, herritar gehienek aurreikuspenak betetzen dituztela.**

Inguruko **isiltasunaz edo lasaitasunaz**, emaitzek **iritzi-aniztasun handiagoa** erakusten dute. Pertsonen % 30,4k positiboki baloratu du alderdi hori (*nahiko isila* da % 23,8ren iritzian, eta *oso isila* % 6,6ren iritzian). Bestalde, ia pareko ehunekoak (% 30,8k) erantzuten du *ez dela oso isila* edo *ez dela batere isila* (% 25ek eta % 5,8k, hurrenez hurren). Talderik jendetsuena tarteko balioespen-taldean dago: % 33,2, alegia. Banaketa orekatu horrek erakusten duenez, zarata faktore garrantzitsua da pertsona askorentzat, eta haren pertzepzioa nabarmen alda daiteke auzoaren arabera, trafiko-bideetatik, aisialdi-guneetatik edo merkataritza-jardueretatik zenbaterainoko gertu dauden.

Azkenik, **ingurunearen atsegintasunari** buruzko adierazleak ematen ditu **emaitzarik positiboak**. Inkestan parte hartu duten pertsonen % 56,2k uste du Leioa *nahiko udalerri atsegina* (% 46,2k) edo *oso atsegina* dela (% 10ek). % 31,3k adierazitakoaren arabera, *hala-holakoa* da garbitasuna, eta % 11,2k soilik uste du **ez dela oso garbia** (% 8,5ek) edo *ez dela batere garbia* (% 2,8k). Datu horren arabera, **aldeko pertzepzioa nagusitzen da hiri-paisaiarekiko, berdeguneekiko, espazio publikoaren kalitatearekiko** eta, beharbada, baita udalerriko gizarte-giroarekiko ere. Adierazle hori indargunetzat jo daiteke diagnostikoaren barruan, eta indartu egiten du ideia hau: Leioak oinarri ona du ongizatea, bizikidetzat eta bizitza komunitarioa sustatuko dituen hiri-ingurune bat garatzen jarraitzeko.

Bildutako datuek, oro har, **Leioako hiri-ingurunearekiko irudi positiboa islatzen dute nagusiki, batez ere garbitasunari eta atsegintasunari dagokienez**. Isiltasunari buruzko pertzepzioak, polarizatuagoa izan arren, ez du ageri joera bereziki negatibo bat, baina bai hobekuntza-eremu posible bat, etorkizunera begira. Emaidza horiei esker, esan daiteke udalerriak baldintza egokiak dituela pertsona guztientzako ingurune gero eta lagunkoiago bat eraikitzeko, Lagunkoia ekimenaren printzipioen ildotik. Era berean, indartu egiten dute herritarren eguneroko bizipenak entzutearen garrantzia, espazio publikoak diseinatu eta zaintzeko etorkizuneko ekintzak bideratzeari begira.

Jarraian, herritarrek aire zabaleko espazioen eta eraikinen eremuan identifikatutako gai nagusiak jorratu eta jasoko dira: (i) parkeak eta aire zabaleko espazioak, (ii) eraikin


publikoak, (iii) espaloiak eta kaleak, (iv) animaliak dituzten herritarrak heztea, eta (v) segurtasuna.

3.2.1.1. Parkeak eta aire zabaleko espazioak

Udalerrian **berdeguneak** sortzea eta mantentzea izan da **Leioaren bereizgarri nagusia**. Zehazki, hiri-antolamenduko plan orokorraren plangintzari eta garapen urbanistikoari esker, 55 hektarea baino gehiago bideratu dira espazio libreetara eta berdegunetara; hau da, 17 metro koadro biztanleko inguru, eta horrek lagundu egiten dio ingurumenaren kalitateari eta biztanleen ongizateari.

Horrela, udalerrriak parke handiak ditu, hala nola **Artatzakoa** eta **Pinosolokoa**, baita EHUKo **Arboretuma** eta beste auzo-parke ugari ere, Leioako askotariko txokoetan banatuta: Artatza, Zarragabarrena, Alzagaondo, Aramaioena San Bartolome, Ugarteondo, Pinosolo, Leiunti, Anporrena, Bordeoena, Horoskopu, Ondiz, Umeen Kontseiluaren Parkea, Aldapa, Elexalde, Errotabide, Mendibil, Kurkudi, Arriena parkea eta etorkizuneko osasunaren parkea.

4. irudia. Leioako parkeak eta aire zabaleko espazioak.




Iturria: Leioako Udala (2020).

Gainera, gaur egun, Bordeoena, Lekueder, Txorierri, Ugarteondo eta Euskal Etxeen plazan dauden parkeek dagoeneko instalatuta dituzte estalkiak. Hortaz, urte osoan erabil daitezke, eta hobetu egin dituzte erosotasun- eta segurtasun-baldintzak. Aldi berean,

belaunaldi desberdinak elkartzeko eremuak gauzatzearen alde ari dira apustu egiten, espazio berean integratuz haurrentzako jolasguneak, parke bioosasungarriak eta kalistenia-eremuak¹. Estrategia horren helburua da belaunaldien arteko bizikidetza sustatzea eta bizimodu aktiboak bultzatzea. Mota horretako lehen esku-hartzeak Arrienan eta Ibaiondon ari dira egiten.

Aurrekoaren bidetik, herritarren topaketetatik lortutako emaitzek erakusten dute **aire zabaleko gune eta parke** ugari dagoela Leioan, ibiltzeko zein paseatzeko. Balioespen berezia jaso dute Pinosolok, Artatzak eta Gorospe izenez ezagutzen denak.

7. grafikoa. Aire zabaleko parke eta guneen kuantitateari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.


Inkestetan parte hartu duten biztanlerik **gehienek positiboki baloratzen dute udalerriko parke-kopurua**. % 52,7k uste du parke *nahikoa* (% 44,5ek) edo *asko* (% 11,3k) dagoela; alegia, ona da ongizaterako, bizikidetzarako eta aire zabaleko aisialdirako funtsezkoak diren espazio horiekiko gogobetetze-maila. % 28,6k *hala-holakotzat* jotzen du parke-kopurua; hortaz, nahigabe argirik ez badago ere, badago non hobetua. Bestalde, % 14,9ren iritzian, parke *gutxi* dago (% 12,3) edo *ez dago nahikoa parke* (% 2,6). Ehuneko txikiagoa bada ere, horrek iradokitzen du beharrezkoa dela estaldura txikiagoa izan lezaketen eremu edo kolektibo batzuei arreta eskaintzea.

Herritarren arteko topaketetan parte hartu duten pertsona batzuek adierazi dute udalerriko zenbait parke urrun daudela elkarrengandik, eta desnibelak dituztela, eta, ondorioz, irisgaitzak direla mugikortasun urriko pertsonentzat eta haietara joateko ibilgailu pribatua erabili behar izaten dela maiz. Alabaina, **nagusiki positiboa da espazio horien kokapenari**

¹Leioako Udalaren Hirigintza Sailak emandako informazioa.

buruzko pertzepzio orokorra. Ildo horretan, biztanleen % 54,7k uste du parke eta espazio publikoak *nahiko ondo* edo *oso ondo* daudela kokatuta; % 13k, berriz, kontrako iritzia du.

8. grafikoa. Aire zabaleko espazioen eta parkeen kokapenari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Haur-parkeei eta adinekoentzako parkeei dagokienez, biztanleek bereizketa nabarmena ikusten dute bi gune-moton artean. Adibide gisa, Pinotxo parkean (Euskal Etxeen plazan), neskatila-mutikoek haurren eremua erabiltzen dute; adinekoak, berriz, goiko aldean pilatzen dira, itzala duen eremuan. Horrek agerian uzten du nolabaiteko deskonexio funtzional eta espazial bat dagoela ingurune bereko adin-taldearen artean. Bereizketa hori, ordea, ez dago oso justifikatua, bi espazioak hurbil baitaude fisikoki.

Jarraian, herritarren topaketetan parkeei buruz jasotako pertzepzioak eta iritziak bildu dira, auzoz auzo sailkatuta:

- **Txorierri auzoaren** kasuan, parte-hartzaile batzuen aburuz, *gazteek bereganatu dute makinekin kirola egiteko espazioa —oso erabilia da—*. Horregatik, espazio horiek zabaltzea proposatzen da, erabilera askotarikoagoa izan dadin.
- **Herritarrek «Kastore parkea» esaten dioten eremuari (Elexaldeko errota ingurukoari)** dagokionez, parte-hartzaileek kexa batzuk adierazi dituzte; hau nabarmentzen da: *«lakua lokatzez beteta dago»*.
- **Pinueta auzoa:** jasotako iritzi batzuen arabera, *«auzo horretan ez dago berdegunerik (Artatza parkea salbu)»*.
- **Artatza auzoari** buruz, «parke asko daudela» nabarmendu dute pertsona batzuek, ziur aski Artatza parkea aldamenean dagoelako. Hala ere, espazio horretarako sarbidea mugatua da, lurraren desnibela dela eta.


Herritarrek Leioan **erabilgarri dauden itzalei eta espazio estaliei** dagokienez duten **iritziak ezberdinak** dira, non bizi diren eta zer eremutara joaten diren gehien. Inkestan parte hartu duten pertsonen % 35ek uste du *leku gutxi* edo *batere lekurik* ez dagoela itzaletan edo estalita, eta gehienek (% 64,2k) esan dute halako tokien presentzia *hala-holakoa* (% 33,5ek), *nahikoa* (% 25,6k) edo *handia* (% 5,1ek) dela. Banaketa horrek agerian uzten du, balorazio negatiborik nagusitzen ez den arren, azpiegitura hori hobetu beharra dagoela, espazio publikoetako erosotasuna eta bizigarritasuna optimizatzeko.

Pertzepzio horien ildotik, herritarren topaketetan jasotako iruzkin batzuen arabera, udalerriko zenbait tokitan ez dago itzalik. Leioandin, esaterako, gune eguzkitsua izaki, itzala emango duten zuhaitzak landatzeko beharra dago topaketetan parte hartu duten pertsona batzuek azpimarratu dutenez; Txorierrin, berriz, zuhaitzak egon badauden arren, haien eraginkortasuna mugatua da, txikiak dira eta.

Gainera, **aire zabaleko espazioen ekipamenduak ere kritikatu dira**, hala nola komun publikoen, bankuen eta paperontzien hornidura. Parte-hartzaileen % 33,5ek erantzun du hornidura hori *hala-holakoa* dela; % 25,6k, ostera, espazioak *nahiko ondo* hornituta daudela. Bestalde, % 24,8ren aburuz, hornidura-maila ez da *nahikoa*.

Hala ere, herritarren multzo adierazgarri batek **pertzepzio positiboa** adierazi du espazio horien **mantentze orokorrari** buruz: % 45,3k esan du *nahiko zainduta* daudela, eta % 13,8k *oso zainduta*. Aldiz, % 25,3k *hala-holakotzat* jo du haien egoera, eta, beraz, nabarmendurik gelditu da esparru horretan hobetzeko nolabaiteko beharra.

7. grafikoa. Aire zabaleko espazioen eta parkeen erabilerari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Azkenik, lortutako datuek erakusten dutenez, **biztanleriaren zati handi batek du udalerriko aire zabaleko espazioak eta parkeak erabiltzeko ohitura**. Zehazki, inkestatuen % 38,1ek adierazi du *nahiko maiz* bisitatzen dituela, eta % 20,2k, *oso maiz*. Hau da, parte hartu duten

biztanleen % 60 inguruk maiz erabiltzen dituzte espazio horiek, eta horrek balioetsi egiten du espazio horiek udalerriko eguneroko bizitzan eta bizitza sozialean duten eginkizuna. Beste muturrean, % 5,1ek soilik esan du *ez dituela inoiz erabiltzen*, eta % 11,8k *gutxi* erabiltzen dituela. Lortutako emaitzak oso garrantzitsuak dira, harremanak izateko eta gizarte-lotura berriak sortzeko aukera ematen duten lekuak baitira parkeak eta aire zabaleko espazioak.

3.2.1.2. Eraikin publikoak

Leioako eraikin publikoen egoerari eta irisgarritasunari dagokienez, herritarren topaketetan zein inkestetan askotariko pertzepzioak eta iruzkinak identifikatu dira, eta guztiek ere prozesu horretan parte hartu duten herritarren esperientziak eta balorazioak islatzen dituzte:

- **Pinueta adinekoen zentroan**, jasotako iritzi batzuen arabera, *«irisgarritasuna mugatua da gurpil-aulkian ibiltzen diren pertsonentzat (eskailerak ditu sarreran)»*. Bestalde, positibotzat jotzen dute neguan berogailua dagoela eta zentroa ohiko topagunea dela adinekoentzat.
- **Kiroldegirako** aurreikusitako kokaleku berria gaur egungoa baino erdirago dago, eta horrek ahalbidetuko du adineko pertsonarik gehien bizi diren auzoetatik errazago iristea. Hala ere, topaketako pertsona batzuek kezka adierazi dute, *igerilekuak etorkizunean tokiz aldatzeari dagokionez, askok uste baitute zailagoa izango zaiela joatea, batez ere mugikortasun-mugak dituztenek edo garraio propiorik ez dutenek*. Pertzepzioen dualtasun horrek agerian uzten du garrantzitsua dela pertsona guztiei bermatzea etorkizuneko ekipamenduetara iristeko aukera.

3.2.1.3. Espaloiak eta kaleak

Kaleen eta espaloiaren egoera kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsua da hiri bat lagunkoia izan dadin; izan ere, **herritarrak udalerrian barrena mugitzeko gaitasunean** izan dezake eragina, eta, neurri handi batean, erabakigarria izan daiteke zentzu horretan.

Adierazi behar da Leioako Udalak **Matxurak zerbitzua**² duela, **udal-espazio publikoan agertzen diren matxurak kudeatzeko eta konpontzeko** eta, horrela, hiri-azpiegituren funtzionamendu egokia bermatzeko (hala nola argiteria, zoladura, hiri-altzariak, ur- eta saneamendu-sareak eta berdeguneak). Hala, bermaturik gelditzen dira segurtasun- eta irisgarritasun-baldintza egokiak. Gorabeheren gaineko abisuak barne-kanaletatik nahiz


² Leioako Udalaren Hirigintza Sailak emandako informazioa.

herritarrengandik jaso daitezke. Abisua jasotakoan, diagnostiko tekniko bat egiten da, jarduketak urgentzia- eta bideragarritasun-irizpideen arabera lehenesten dira eta, azkenik, egin beharreko konponketak egiten dira.

Xede horrekin, Matxurak zerbitzuak³ astero egiten ditu bilerak, ostiraletan, bide publikoaren egoerarekin lotutako gorabeherak berrikusteko, barne direla espaloiak, galtzadak, hiri-altzariak, lorezaintza, argiteria publikoa eta garbiketa. Saio horietan, ordezkari politikoek, zerbitzuetako arduradun teknikoek eta bide eta obretako eta lorezaintzako udal-brigadetako langileek hartzen dute parte, bai eta kaleak garbitzeko, hondakinak biltzeko eta argiteria publikoko zerbitzuetarako kontratatutako enpresetako langileek ere. Bilera horietan, egindako zereginen berri ematen da, jasotako abisu berriak aztertzen dira eta dagozkien esku-hartzeak programatzen dira.

Herritarrek egindako inkestetan, Leioako herritarrek **hiri-ingurunearen egoerari eta irisgarritasunari** buruz duten **pertzepzioa** jasotzen da. **Kale eta espaloien zaintzari** dagokionez, inkestatuen % 35,5en iritzian *hala-holakoa* da, eta % 25,1en aburuz, *nahiko ona*. Hala ere, parte-hartzaileen % 36,3k aurkako iritzia adierazi zuen horri buruz: % 23,8k esan zuen *gutxi zainduta* daudela, eta % 12,5ek, *ez zeudela batere zainduta*.

8. grafikoa. Kaleen eta espaloien irisgarritasunaren gaineko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Leioako **espazio publikoen irisgarritasunaz**, herritarren parte handi batek aldeko **balorazioa** egin du: % 27,1ek uste du udalerria *nahiko* edo *oso irisgarria* dela. Horrek erakusten du hiri-ingurune ugari ahalbidetzen dutela pertsona askoren mugikortasuna eta erabilera autonomoa. Gainera, % 33,5ek *hala-holakotzat* jotzen du irisgarritasuna, eta, horrek, tarteko pertzepzioa iradokitzen du, ziur asko eremuen arteko aldeekin edo oraindik

³ Leioako Udalaren Hirigintza Sailak emandako informazioa.

hobetu daitezkeen alderdi batzuekin lotua. Talde horrek erabilera-maila onargarria islatzen du, baina espazio publikoaren diseinua indartzeko neurriak mesedegarriak izango dira.


Bestalde, % 25,6k uste du irisgarritasuna eskasa dela, eta % 13,3k, kaleak ez *direla irisgarriak* adierazi du zuzenean. Zifra horiek balorazio neutro edo positiboak baino txikiagoak badira ere, erakusten dute zenbait kolektiboren eguneroko esperientzia mugatzen duten oztopo fisiko edo funtzional batzuk daudela, bereziki adinekoena edo mugikortasun urria dutenena.

Horretaz gainera, Leioan 6 igogailu daude instalatuta⁴: Ikeamendi (1+1), Mendibile pasabidea (1), Errekalde plaza (1), Artatza-Basañese (1), Lamiako-Txorierri (1). Instalazio horiek gorabehera, **Leioan dauden arrapala eta igogailuei buruz herritarrek duten pertzepzioak gogobetetze-maila neurritsua erakusten du, eta hobetzeko aukera handiak daudela.** % 24,1ek uste du arrapala eta igogailu *nahikoa* (% 22,3k) edo *asko* (% 1,8k) daudela, eta % 33,2k, berriz, *hala-holako* mailan kokatzen du bere pertzepzioa. Horrek adierazten du presentzia aintzatetsita dagoela, baina ez dela beti nahikoa, ezta homogeneoa ere. Bestalde, % 40,5ek pertzepzio negatiboa du, adierazten baitu azpiegitura *gutxi* daudela (% 29,2k) edo ez *dagoela bat bera ere* (% 11,3k). Balorazio horrek agerian uzten du, aurrerapenak aurrerapen, oraindik ere oztopo fisiko garrantzitsuak ageri direla, eta zaildu egiten dutela biztanleriaren parte baten eguneroko mugikortasuna. Komentario irekietan kokapen zehatzik identifikatzen ez bada ere, **aldapa luzeetan arrapala automatikoak instalatzeko beharra nabarmentzen da**; adibidez, **La Avanzadan**. Hortaz, udalerriko orografiari lotutako eskaera espezifiko bat da.

Udalerriko bizitzarako eta parte-hartze sozialerako funtsezkotzat jotzen diren **oinezkoentzako guneen** zuzkidurari dagokionez, **kontsultaren emaitzek erakusten dute herritarrek balorazio desberdina egiten dutela.** Inkestatuen % 38,1ek uste du oinezkoen azpiegitura *nahikoa* dela, eta % 10,7k, berriz, *handia* dela ere esaten du. Bestalde, % 30,4k *hala-holakotzat* jotzen du zuzkidura hori, eta erdibideko pertzepzioa erakusten du. Aldiz, biztanleen % 14,8k eta % 3,8k adierazten dute *eskasa* dela edo ez *dagoela*, hurrenez hurren, eta agerian gelditzen da badirela gogobetetzetik ez duten eremuak.

⁴ Leioako Udalaren Hirigintza Sailak emandako informazioa.

9. grafikoa. Oinezkoentzako eremu-kopuruaren gaineko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Horretaz gainera, herritarren topaketetan lortutako informazioak **irisgarritasunarekin** erlazionatutako arazoak aipatzen ditu zenbait faktore direla eta (malda handiak, baldosak eta espaloiak hondatuta egotea eta abar). Horrek zaildu egiten du mugikortasuna eta murriztu egiten du eremu horien funtzionaltasuna zenbait kolektiborentzat.

Zehazki, herritarren topaketen esparruan, bide-espazio publikoaren egoerari buruzko zenbait ideia adierazi ziren; horien artean, iritzi hauek eman dituzte pertsona batzuek:

- Jasotako iritzi batzuen arabera, *espaloien inklinazioa gaizki dago, batez ere mugikortasun-arazoak dituztenentzat.*
- Pertsona batzuek jakinarazi dute udalerriko gune jakin batzuei arreta berezia eman behar zaiela. Zehazki, esan dute komenigarria izango litzatekeela *Iturribidetik Ikeamendirako tartean eta beste zenbait eremutan neurriak bilatzea*. Inguru horiek, erabiltzaileon arabera, *adineko asko bizi diren auzo malkartsu eta estuak* dira.
- Pertsona batzuek esan dute kezkaturik daudela erabilera publikoko espazio pribatuen tratamenduaz —Kandelazubieta, Plaza Gorria eta Pinotxo parkea, esaterako—. Adierazi dutenez, ematen du ez daudela zehaztuta eskumenak, espazio horiek kontserbatzeari eta mantentzeari, erantzukizunak esleitzeari eta herritarren erabilerari eta luperketari dagokienez.


Iturriak hiri-ekipamendu gisa izateari loturik, komentario batzuen arabera, **badirudi ez daudela behar bezain ikusgarri edo seinalizatuta**, eta horrek zaildu egin lezake herritarrek horiek identifikatzea. Adibidez, Boulevardaren kasua aipatzen dute: hango iturri bat, atzealdean dagoenez, gerta liteke jende askok dagoenik ere ez jakitea.

Bestalde, **plazen egoeraz**, parte-hartzaile batzuek esan dute **haietan ez dagoela ekipamendu askorik** eta, horren ondorioz, agian, ez direla oso erakargarriak erabiltzeko. Zehazki, herritarren topaketei esker, plazen egoerari buruzko zenbait iritzi jaso ahal izan ziren; besteak beste:

- **Izar plaza:** *ekipamendu-gabezia* sumatzen da plazan. Era berean, adierazten denez *ez dago baimenduta haurrek bertan jolastea*; hala ere, praktikan, haurrek ondoko plaza erabiltzen dute, jolas estaliak dituen. Bestalde, pertsona batzuek adierazi dutenez, *bankuak ez daude itzalpean*, eta horrek zaildu egiten du bero-boladetan erabiltzea. Azkenik aipatzen da bertan *ez dela antolatu ohi jarduerarik*, baina noizbehinka ekitaldiak egiten direla, batez ere jaietan, hala nola Herrigune eta Umore Azoka.
- **Errekalde plaza:** *Bankuak eta itzala* izan arren, parte-hartzaileek adierazi dute *gutxi erabiltzen dela plaza hori*. Jende gutxi erabiltzearen arrazoi posibleen artean, ingurunea dinamiza dezakeen *tabernarik edo zaburik ez egotea* aipatu da.
- **Beste plaza batzuk:** beste espazio publiko batzuen harira ere ohar zehatzak egin dituzte. Arkupeetan tabernak dituzten plazei buruz pertsona batzuek zera esan dute: *euria egiten duenean, arkupeetik atera eta busti egin behar izaten da, terrazetako mahaia arkupearen barruan egoten baitira*; horrek oinezkoen babesa mugatzen du.
- Bestalde, parte-hartzaileen artean orokorrago adierazi da *herriak giro hobea* behar duela, baina baita *terrazek leku publiko asko hartzen dutela* ere. Parte-hartzaileak bat datoz herriak giro eta dinamismo handiagoa behar duela esatean; halere, aldi berean, kezkaturik ageri dira terrazek espazio publikoa gehiegi erabiltzen dutelako. Horrek tentsioa sortzen du gizartea biziberritzeko nahiaren eta hiri-ingurunearen sarbidea eta funtzionaltasuna zaintzeko beharraren artean.

Lagunkoitasunari buruzko galde-sortak **iritzi desberdinak islatu ditu Leioako eremu publikoen ekipamenduari buruz**. Parte-hartzaileen % 35,5ek uste du herriak banku eta atsedeen hartzeko leku *nahikoa* dituela, eta % 6,4k *kopurua handia* dela. Beraz, pertzepzio positiboa da nagusi, halako baliabideen erabilgarritasunaren inguruan. Hala ere, antzeko ehuneko batek (% 33,5ek) jarrera neutrala du, egoera *hala-holakotzat* jotzen baitu. Horrek nolabaiteko anibalentzia iradokitzen du, edo eskaintza ez dela biztanleria osoarentzat behar bezain hautemangarria edo eskuragarria. Azkenik, inkestatutako pertsonen % 19,2k uste du espazio horien kopurua *urria* dela, agerian utziz argia dela alderdi hori hobetzeko eskaria.

10. grafikoa. Espazio publikoen ekipamenduari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Auzoei dagokienez, badirudi **arrakala handia dagoela erdigunetik gertuen eta urrunen dauden auzoen artean**. Oro har, parte hartzen duten biztanleen artean arazo estruktural bat hauteman da, auzo gehienetan ez baitago hurbileko saltokirik; lehen zeuden zerbitzuak desagertu egin dira (Bilbora lekualdatu dira) eta lokal asko itxi egin dira errelebo-faltagatik. Saltoki txikiek zailtasunak dituzte azalera handien aurrean bizirauteko, eta fenomeno hori behin eta berriz gertatzen da Leioaren tankerako udalerrietan. Gainera, saltokietako ordutegi asko ez dira egokitzen biztanleen profil jakin batzuetara (badirudi batzuk goizeko 10:30ean irekitzen direla eta herritarrek ezin direla joan). Zehazki, herritarren topaketetan auzoei buruzko zenbait ekarpen jaso ziren, eta, horien artean, hauek nabarmendu daitezke:

- **Pinueta auzoa.** Saltokirik gehien dituen eremua den arren, parte-hartzaile batzuek adierazi dute *establezimendu ugari itxita* daudela; salbuespen positibo gisa *farmazia* nabarmendu dute, *irekita eta jardunean jarraitzen baitu*. Era berean, aipatu dute *inguruan ez dagoela banku bat ere*, eta horrek mugatu egiten dituela atseden hartzeko aukerak, batez ere adinekoentzat edo mugikortasun urria dutenentzat.
- **Txorrieri auzoan,** biztanle gehienak zahartuta daude, eta irisgarritasun-erronka handiak dituzte. Parte-hartzaileen arabera, *autobusa edo igogailua da erabilgarri dagoen udal-baliabide bakarra*, eta ohartarazten dute guztiz helezina izan daitekeela *etxetik irteten lagunduko dion baten bat ez duenarentzat*, bereziki lurraren *desnibel handiak* direla eta. Muga horiek gorabehera, positiboki baloratzen dituzte *auzokideen arteko harreman estuak*, eta horrek ahalbidetzen du bizilagunek elkar babestea. Auzoak badu hurbileko saltoki txiki bat; baina horri eustea erabaki pribatuen mende dago. Hala ere, ikusten da *prezioak handiak* direla, eta horrek mugatu egin dezake biztanleriaren parte baten irisgarritasun ekonomikoa.
- **Donibane auzoa.** Jasotako iritziek erakusten dutenez, elkar ezagutzean oinarritutako bizikidetza da nagusi, nahiz eta adierazten den *harremanek geldirik*

diruditela eta *pertsona bakoitzak bere aldetik jokatzen duela, taldea edo auzokideak aintzat hartu gabe*. Hala ere, positiboki baloratzen da auzoan *giroa sortzeko hiru ekintza* antolatu izana, kontuan izanik *jendeak parte hartu* egin duela haietan. Ekimen egokiak bultzatzen badira auzoak duen ahalmen komunitarioaren erakusgarri da hori.

3.2.1.4. Herritarrak heztea animalien inguruan


Parte-hartzaileen artean **kexa orokor** bat antzeman da: **herritarren edukazio-falta txakurrak zaintzeari eta kontrolatzeari dagokionez**. Txakur-gorotzak biltzea sustatzeko eginiko kanpainak eragin positiboa izan badu ere —alderdi hori hobetu egin da herritarren pertzepzioan—, badira oraindik uhala desegoki erabiltzearekin lotutako arazoak, dela erabiltzen ez delako, dela uhal luzeegiak baliatzen direlako. Gainera, ez dira errespetatzen txakurrak solte ibiltzeko gune eskusiboak, hala nola Aldapa eta Pinosolo. Txorierri ere pertsona askok uzten dituzte txakurrak uhalik gabe, eta horrek nahigabea sortzen du udalerriko pertsona batzuen artean.

3.2.1.5. Segurtasuna

Segurtasuna gizakien oinarritzko beharra da, eta eragin nabarmena du etxetik ateratzeko joeran. Zalantzarik gabe, segurtasunik ezak herritarren eguneroko errutina aldaraz dezake eta eragina izan dezake haien independentzian, osasun fisikoan, integrazioan eta ongizatean.

Herritarren inkestetan, **segurtasunari buruz duten pertzepzioaz** galdetu zitzairen Leioako biztanleei; hau da, Leioan bizitzen zenbateraino sentitzen diren seguru. Erantzuna **positiboa izan zen nagusiki**. Grafikoan ikus daitekeenez, parte-hartzaileen % 37,9k adierazi zuten segurtasuna *hala-holako* dela, % 27,6k *nahiko* dela eta % 7,2k *handia* dela. % 17,1ek, aldiz, segurtasun-sentsazioa *txikia* dela adierazi zuten.


11. grafikoa. Segurtasun-pertzepzioa Leioan.



Iturria: norberak egina.

Bestalde, **argiztapena** funtsezko faktorea da herritarren segurtasunerako. Ildo horretan, bai herritarrekin egindako topaketek eta bai erantzundako inkestek agerian uzten dute **oro har udalerriko zenbait eremutan argiztapen eskasa nabaritzen dela**, eta horrek areagotu egin dezake segurtasunik ezaren sententzia une eta espazio jakin batzuetan.

12. grafikoa. Leioako argiztapen-mailari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Herritarren arteko topaketetan, **argiztapen-gabeziak dituzten zenbait eremu identifikatu ziren**, batez ere Artatza aldean gau-partean, tunelean edo garajerako sarbidean metrotik itzultzean, lurpeko pasabideetan eta Lamiako inguruan goizaldean. Pertzepzio hori islatzen da eginiko inkestetan; izan ere, parte-hartzaileen % 27,4k eskastzat jo zuen argiztapena, eta % 21,1ek oso eskastzat. Gainera, inkestatuen % 30ek Leioako kaleetako argiztapena *hala-holakotzat* sailkatu zuen, eta agerian gelditu zen herritarrek kezka handia dutela alderdi horri buruz.

Leioako argiteria publikoaren sarea erabat berritu zen 2016tik 2017ko apirilera bitartean, 1890/2008 Errege Dekretuan eta haren EA-01 eta EA-07 bitarteko jarraibide tekniko osagarrietan ezarritako estandarrak betetzeko —jarraibide horiek kaleko argiteria-instalazioen energia-efizientzia arautzen dute—. Harrezkero, araudi horri jarraikiz gauzatu dira argi publikoetan egindako esku-hartze guztiak.


Herritarren topaketetan ikusten denez, argiztapena Europako araudira egokituta dagoen arren, erabilitako LED teknologiak eraginkortasun txikiagoa du euria egiten duenean: une horietan, argiztapena eskasa izatearen sentsazioa sortzen du herritarren artean. Pertzepzio horrek, herritarren ikus-esperientzian eta segurtasun-sentsazioan eragina izan dezakeen alderdi tekniko bat nabarmentzen du, indarrean dagoen araudia bete arren.

Egoera berezietan, hala nola jaietan edo ekitaldietan, indartu egiten dira argi-puntuak, bai udalerrian, bai eremu periferikoetan. Herritarren topaketetan adierazi denez, beharrezkoa da Leioako udalerri osoko argiztapen-sistema indartzea, LED teknologiarako trantsizioaren ondorioz. Adierazi dute, berebat, ezinbestekotzat jotzen dutela zuhaitzen eta argiteria publikoaren arteko interferentziak eragindako arazoei heltzea, batez ere Txorierri, Mendibile, Pinosolo eta Txakurzulo auzoetan.

Segurtasun-eza sentiarazten duten elementuen artean identifikatu dute, halaber, **edukiontzien kokapena**, bereziki oinezkoen pasabideen ondoan daudenena, ikuspena murritzten dutela baitirudi. Egoera hori saihesteko, seinaleztapen bidez mugatu dira edukiontziak jartzeko eremuak, ezarritako marketatik kanpo gera ez daitezzen. Marka horiek betetzen ez dituzten kasuetan, jakinaren gainean jarri beharko da Matxurak zerbitzua, zuzen ditzan.

Lapurreten aurkako segurtasunari dagokionez, **Bizkaia osoan balioespenik onenetakoa duen udalerrietako bat da Leioa**, herritarren pertzepzioaren arabera. Etxeetan eta bide publikoan intzidentzia-kopuru txikia erregistratu izana dago pertzepzio horren oinarrian. Era berean, gertakari horien beheranzko joera nabari da, ezarritako prebentzio-kontrolak ugaritzearekin batera.

13. grafikoa. Udalerriko zaintza-mailaren gaineko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Aurreko balorazio positiboa ez dator bat **udal-zaintzari** buruz inkestetan islatutako iritziarekin, ikusten baita **herritarren artean pertzepzio negatiboa dela nagusi**: inkestari erantzun dioten % 29,9k uste du *ez dela nahikoa* eta % 19,9k *ez dagoela halakorik*. Horrek eragin nabarmena du udalerriko segurtasunaren pertzepzio orokorrean.

Segurtasunik ezaren sentrazio hori indartu egiten da herritarrek eta Udaltzaingoaren Buruzagitzak **zenbait puntu beltz identifikatu ondotik**. Horien artean, nabarmentzekoak dira Artatzako, Suhiltzaileetako eta Eroskiko lurpeko pasabideak, baita Astrabudua auzotik barrena doan Erandio eta Leioa arteko pasabidea —Txakurzulo izenez ezaguna— eta Maiatzaren Bata kalearen amaieran, Larramendi kalearen parean, dagoena ere. Puntu horietan guztietan, argiztapena hobetzeak lagundu egin du delitu-ekintzen eta nahi gabeko jokabideen probabilitatea murrizten, eta horrek areagotu egin du segurtasun-sentsazioa inguru horietan guztietan.

Azken lau urteetan ez da izan deliturik deskribatutako eremuotan, argiak ugaritu direlako eta polizia gehiago aritu direlako prebentzio-lanetan. Hori dela eta, segurtasun-pertzepzioa nabarmen hobetu da, eta, horregatik, prebentzio-lanak egiten jarraitzen da, hirigintzako arlo teknikoarekin koordinatuta, delitutzat tipifikatutako edozein jokabide izateko probabilitatea murriztuko duten neurri guztiak ezartzeko.

Azkenik, **udalerrian arratoiak** egoteak lotura estua du espazio publikoetako segurtasunik ezaren pertzepzioarekin. Udalerriko estolderia-sistemak oro har tratamendu egokia duen arren, **berdegune batzuetan ezinezkoa da** tratamendu hori, eta horrek **arratoiak ugaritzea** eragiten du, batez ere obrak egiten ari diren edo mantentze-lan gutxiago dituzten eremuotan.

Testuinguru horretan, **katu-kolonia kontrolatuei eusteak** zeregin garrantzitsua du arazo hori kudeatzeari begira; izan ere, katuen presentzia lagungarria da karraskarien populazioa murrizteko, katuek zuzenean ehizatzen baitituzte eta, hala, saihestu egiten baita arratoi-populazioak udalerrian ugaritzea. Biztanleriaren arabera, badirudi 27 katu-kolonia kontrolatu daudela, nabarmen laguntzen dutenak arratoiak geldiarazten. Haien ustetan, ingurumena maneiatzeko estrategia osagarri bat da, eta onurak ditu espazio publikoen segurtasunerako eta osasungarritasunerako. Bestalde, **ur-biltegian hontzak daudela** sumatu da.

3.2.2. Garraioa

Garraioa funtsezko elementua da zahartze aktiboaren ikuspegitik. Gainera, garraioak zerikusia du beste zenbait eztabaida-arloekin, bereziki partaidetza sozialarekin eta zerbitzu publikoak eskura izatearekin. Jarraian, hiri barruan zein herritik kanpo mugitzeko erabiltzen diren ibilgailu publiko eta pribatuei buruzko informazioa bildu da.


Leioaren kasuan, **Bilbotik** 12,3 km-ra eta **Getxo eta Erandioko** erdiguneetatik 5 km-ra dagoenez, hauek dira Leioa gune horiekin eta auzoekin lotzen duten ardatz nagusiak:

- La Avanzada autobidea, eskualdeko igarobide nagusia.
- Portuko errepidea, Nerbioi itsasadarrekin muga egiten duen bidea.
- Unibertsitatera sartzeko errepidea.
- Uribe-Kostako korridorea.

Gainera, **Loiuko aireportutik** (7 km-ra) eta **Bilboko portutik** (2 km-ra) gertu dagoenez, estrategikoki kokatutako udalerria da Leioa.

Leioako **taxi-zerbitzuak** geltoki bat du Elexalde auzoan, Gizarte Zerbitzuen eta Kultur Leioaren artean (ikus 5. irudia). Era berean, Radio Taxi Leioaren (94 491 53 53), taxi-geralekuaren (94 463 58 66) edo webgunearen bidez (www.taxileioa.com) ere jar daiteke harremanetan zerbitzuarekin.

5. irudia. Leioako taxi-geltokiaren kokapena.



Iturria: Leioako Udala (d.g.).

Udalerrian eginiko egiturazko jarduketek dagokienez, aipatu behar da hiri-antolamenduko plan orokorrean (HAPOan) definitutako hiri-plangintza erabakigarria izan dela Leioan

mugikortasun-sare efiziente eta irisgarri bat eratzeko, Leioako auzoak eraginkortasunez lotzen dituen bide-sare bat ibilgailuentzat, bizikletentzat eta oinezkoentzat. Sare integratu horrek mugikortasun jasangarri eta irisgarritasuna bultzatzen ditu, zeinak funtsezko elementuak baitira ingurune lagunkoi eta kohesionatu bat sustatzeko. Hala, funtsezkoa izan da hiriko autobus-zerbitzua ezartzeko, eta hobetu egin dira herritar guztientzako zerbitzuetarako konexioa eta sarbidea.

Hurrengo epigrafeetan, herritarrek garraioaren arloan identifikatutako gai nagusiak jorratu eta jasoko dira: trafikoa, seinaleak eta garraiobide publikoak.

3.2.2.1. Automobila, trafikoa eta seinaleak


Topaketetan eta inkestetan jasotako herritarren kezka nagusiak bide-segurtasunari buruzkoak dira, batez ere **zirkulazio-abiadurari, ezarritako mugei, semaforoei eta seinaleei** buruzkoak. **Onartzen da ezbehar-tasa murriztu egin dela**, hirigunean 30 km/h-ko muga ezarri ondoren. Hori hala izanik ere, adierazten da **Aldapabarrenan eta beste zenbait eremutan ez dela errespetatzen** 20 km/h-ko muga berezia, eta horrek **egonezina sortzen du herritarren artean**. Egoera horrek garrantzi berezia du, kontuan hartzen bada 2024an udalerriko parke mugikorrek 21.881 ibilgailu zituela, horietatik % 78,5 automobilak eta % 10 motozikletak (Garapen Hiri Behatokia, 2025). Beraz, trafiko-dentsitatea handia da, eta eragina izan dezake hiri-segurtasunaren eta bizi-kalitatearen gainean.

Ondorengo behaketek parte-hartzaileen esperientzia partekatuak eta pertzepzio indibidualak islatzen dituzte. Horiei esker, hiri-ingurunearen plangintzan hobetu beharreko puntuak aurkitu dira:

- **Gazteluetako jaitsiera.** *Eremu gatazkatsu* gisa deskribatu da, inguru horretan hiru ikastetxe daudelako eta adingabeen joan-etorrien bolumen handia erregistratu delako. Azaldutakoaren arabera, *ez oinezkoek eta ez ibilgailuek ez dituzte errespetatzen trafiko-seinaleak eta abiadura-mugak*, eta horrek bide-segurtasunaren arloan esku hartzeko beharra indartzen du.

Leioan abiadura-mugak errespetatzeaz galdetuta, inkestan parte hartu zuten pertsonen % 31,7k *hala-holakotzat* jo zuten udalerriko zirkulazio-abiadura, eta % 26,6k, *nahiko egokitzat*. Datu horiek grafiko honetan ikus daitezke:

14. grafikoa. Ibilgailuen zirkulazio-abiadurari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.


Bestalde, parte hartzeko espazioen bidez jasotako iritzietan **trafiko-arauekiko nolabaiteko errespetu-falta bat sumatzen da**. Ildo horretan, zirkulazioko arau-hausteeak urtean eragindako zehapen-bolumena aipatzen da adierazle gisa (4.000 inguru), baita hiriguneko semaforoak gorrian gehiegi irautea ere: horrek ezinegona sortzen du oinezkoengan, eta, kasu askotan, behar ez bezala gurutzatzera bultzatzen ditu. Gainera, adierazi dute ez dela nabari bide-heziketarik espaloietan bizikleta eta patineteak erabiltzearekin loturik, eta irizten diote jardunbide hori arriskutsua dela oinezkoen elkarbizitzarako.

Garrantzitsua da kontuan hartzea Leioan autobia bat, unibertsitatea eta 11 ikastetxe daudela. Horren ondorioz, autobian istripu bat izan orduko, gidariek bigarren mailako bideak bilatzen dituzte, eta udalerritik igarotzen dira.

Herritarren inkestetan, **parte-hartzaileek argi utzi zuten semaforoei eta oinezkoen pasabideei buruz duten iritzia**. Pertsonarik gehienek (% 46k) adierazi zuten semaforoek denbora *dezente* irauten dutela, oinezkoek gurutzatu ahal izateko adina. Era berean, gehienek (% 45ek) uste zuten semaforo eta oinezkoen pasabide horiek *ondo seinaleztatuta* daudela Leioa udalerrian.

Azkenik, galde-sortaren emaitzetan bada nabarmentzeko pertzepzio orokor bat: **Leioan oso plaza gutxi dago aparkatzeko**. Hala, galdetutako pertsonen % 39,4k kategorikoki erantzun zuen *ez dagoela nahikoa plaza*, eta % 34,8k, *plaza gutxi* daudela. Aldiz, % 5,9k adierazi zuen *plaza dezente* daudela, eta % 1,8k, *asko* daudela.

15. grafikoa. Aparkaleku-plazen kopuruari buruzko pertzepzioa.




Iturria: norberak egina.

3.2.2.2. Garraio publikoa

Leioan, zabala da garraibide publikoaren eskaintza: **Bilboko metro**-zerbitzua, **EuskoTrenen** autobusak eta **Bizkaibusen** autokarrak (horietako asko Euskal Herriko Unibertsitatera iristen dira). Horretaz gainera, bada **Lejoan Busa** zerbitzua ere, Leioako hiri-autobusen zerbitzua, hiru linea dituen udalerriko auzo guztiak estaltzeko. Jarraian, Lejoan Busa zerbitzuko lineen ibilbidearen mapa bat ageri da.

6. irudia. Lejoan Busa zerbitzuko hiru lineen ibilbidea.




Iturria: Lejoan Busa (2025).

3.2.2.2.1. Autobusa

Herritarren topaketetan parte hartu dutenen artean, autobusa da gehien erabiltzen den garraio-bidea, eta, ondoren, metroa. Inkestetan, funtzio osagarriak dituzten bi autobus-zerbitzu bereizi ziren: alde batetik, **Lejoan Busa**, Leioa barruan barne-mugikortasuna errazteko udal-zerbitzua; eta, bestetik, **Bizkaibus**, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen duen zerbitzua, herritarrek udalerri barruan joan-etorriak egiteko erabili ohi dutena, nahiz eta eskualdeko irismena duen eta beste udalerri batzuekin konektatzen den.

Lejoan Busa zerbitzuaren erabilera banaketa orekatua ageri du parte-hartzaileen artean. Inkestatutako pertsonen % 29,4k asko (% 10,5ek) edo *dezente* (% 18,9k) erabiltzen du, eta horrek esan nahi du ohiko erabiltzaileen oinarri sendoa duela. Gainera, % 26,9k adierazi du *erregulartasunez* erabiltzen duela, ziurrenik, desplazamendu puntualekin edo noizbehinkakoekin lotuta. Alabaina, % 22,3k *gutxi* erabiltzen du, eta % 17,1ek *inoiz ez* (inkestari erantzun dioten % 39,4k, beraz). Baliteke alderdi hori loturik egotea zerbitzuaren maiztasunarekin, estaldurarekin, irisgarritasunarekin, ordutegiak eta ibilbideak ez ezagutzearekin eta beste zenbait faktorekin.

16. grafikoa. Lejoan Busa erabiltzeko maiztasunari buruzko pertzepzioa.




Iturria: norberak egina.

Bizkaibus zerbitzuak erabilera-maila handia ageri du, parte-hartzaileen erdiak baino gehiagok *nahiko maiz* edo *oso maiz* erabiltzen baitu (% 50,9k). Horrek erakusten du onarpen eta konfiantza ona dagoela zerbitzuan (% 32,7ren artean *dezentekoa* eta % 18,2ren artean *handia*, hurrenez hurren). Udalaren eskumena ez den arren, herritarren topaketetan Urdulizko Ospitalerako igarobidearen maiztasuna hobetzeko eskaera zehatz bat identifikatu zen, gaur egun ordubetik behingoa da eta —Gurutzetako Ospitalerako zerbitzua 30 minututik behingoa da—.

Inkesten esparruan, parte-hartzaileen % 31,2k positiboki baloratu zuen **Leioako udal-autobusen maiztasuna**, eta nabarmendu zuen % 26,6k *nahiko egokitzat* jo zuela eta % 4,6k, berriz, *oso egokitzat*. Bestalde, % 11,5ek adierazi zuen ez zegoela pozik maiztasunarekin (*batere ez*), eta % 20,7k *eskastzat jo zuen (gutxi)*. Bizkaibusen zerbitzuaz —ez da udalaren eskumena— emaitzek pertzepzio positiboa ageri zuten erabilera-maiztasunari buruz: pertsonen % 32,7k *dezente* erabiltzen dute, eta % 18,2k *asko*.

17. grafikoa. Bizkaibus erabiltzeko maiztasunari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Hala ere, parte-hartzaileek **ez zuten ikusten lotura egokirik zenbait eremutara**, hala nola aireportura, Erandiora edo Deustura. Beste horrenbeste gertatzen da Artea merkataritza-gunearekin eta beste zenbait tokirekin ere: linearik ez egoteak zaildu egiten du haietara joatea.

Ildo beretik, foku-taldeetan azpimarratutako alderdi batzuek azaleratzen zuten **geltokietako markesinak** ez daudela ondo kokatuta, eta, eguzkiak ematen duenean, nekez irakurtzen direla. Gainera, itxaroteko eserleku gutxiegi daudela sumatu zen. Hortaz, espazio horiek ez dira lagunkoiak herritarrentzat oro har, eta luzaroan zutik egon ezin direnontzat, bereziki.

Bizkaibus dagokionez, azpimarratu zuten arazoak ageri direla **autobus-plataformak behar bezala erabiltzearekin** eta adinekoekin lagunkoitasunez gidatzearekin: ez dira behar beste hurbiltzen espalaira, plataforma jaisteko eskatu behar da eta abar.

Bestalde, kontsultatutako biztanleek ohar kritiko batzuk egin zituzten **Lejoan Busa** zerbitzuari buruz. Aipatutako gai nagusien artean ageri zen, esaterako, autobusak ez duela geldialdirik egiten udalerriko eremu jakin batzuetan, hala nola Txorierri auzoan, eta horrek mugatu egiten du lurralde-estaldura, inkestari erantzun diotenen arabera. Halaber,

ordutegiak betetzearekin, mugikorrerako aplikazioaren funtzionamenduak dituen arazoekin eta markesina batzuetako informazioaren egoera txarrarekin lotutako zailtasunak aipatu ziren.


Udalerrian egindako lagunkoitasun-inkestetan, herritarren % 43,2k positibotzat jo zuen **Leioako autobus-geltokien kopurua**, % 35ek uste baitu *nahiko egokia* dela kopuru hori eta % 8,2k, berriz, *oso egokia*. Bestalde, % 18,3k pertzepzio kritikoagoa erakutsi zuen, eta *desegokitzat* edo *erabat desegokitzat* jo zuen geltoki-kopurua. **Udal-autobusen ibilbideei** dagokienez, % 34,3k *nahiko onargarritzat* jo zituen, % 29,7k *hala-holakotzat* eta % 17,9ren esanetan ez *dira batere onargarriak*. **Prezioei** dagokienez, % 53,9k eskuragarritzat jo zituen tarifak: % 38,6k *nahiko eskuragarritzat* eta % 15,3k *oso eskuragarritzat*.

Bizkaibusen zerbitzuaren alorrean, parte-hartzaileen % 52,4k positibotzat jo zuen **geltoki-kopurua**; hain zuzen ere, *egokia* (% 42,2k) edo *oso egokia* (% 10,2k) dela iritzi zion. **Ibilbideei** begira, % 47,8k esan zuen *nahiko* edo *oso egokiak* direla joan-etorriak egiteko, eta % 16,1ek, aldiz, pertzepzio negatiboa agertu zuen. **Prezioei** buruzko balorazioa positiboa da funtsean: nabarmentzekoa da % 42,7k diola tarifak *nahiko* edo *oso eskuragarriak* direla; % 16,8k, ordea, iritzi negatiboagoa du.

3.2.2.2.2. Metroa

Metroari dagokionez, herritarrek erantzundako inkesten emaitzek diote Leioan ohikoa dela garraiobide hori erabiltzea: inkestatuen % 50,4k *asko* (% 20,2k) edo *dezente* (% 30,2k) erabiltzen du, eta % 24k, berriz, *erregulartasunez*. % 18,2k bakarrik erabiltzen du *gutxi* eta % 5,4k *inoiz ez*.

18 grafikoa Metroa erabiltzeko maiztasunari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Garraioaren **prezioaren arrazoizkotasunari** dagokionez, inkestatuen % 44,2k uste du oso (% 10,2k) edo *nahiko* arrazoizkoa dela (% 34k). Bestalde, % 32k *hala-holakotzat* jotzen du, eta % 20,7k esaten du ez *dela oso arrazoizkoa* (% 13,3k) edo ez *dela batere arrazoizkoa* (% 7,4k). Eraitza horiek adierazten dutenez gehienek arrazoizkotasun-maila onargarria aitortu arren, ehuneko nabarmen batek uste du oraindik badagoela tarterik alderdi horretan hobetzeko.

3.2.2.2.3. Bidegorria

Herritarren topaketetan azpimarratu zenez, **bizikleta, patinetea eta bidegorriak** gaizki erabiltzen dituzte, bereziki gazteek. Parte-hartzaileen arabera, bizikletek ez dituzte errespetatzen bidegorrien ibilbidea eta abiadura-mugak. Bizikleten erabileran, bide-segurtasunean eragiteko beharra hautematen zen. Era berean, eremu batzuetan bidegorririk ez dagoela adierazi zen (Mendibile, Ikeamendi, Barandiaran Goikoa BHI).

Trafiko-arauak betetzeari buruzko auziak kezka handia sorrarazten du herritarren pertzepzioan. Inkestatuen % 31,7k adierazi zuen gidariek, txirrindulariek, patinete-erabiltzaileek eta oinezkoek errespetu *gutxi* dietela zirkulazio-seinaleei, semaforoei eta oinezkoentzako pasabideei. Era berean, % 30,7k *hala-holakotzat* jo zuen betetze-maila hori, eta horrek agerian uzten du beharrezkoa dela sentsibilizazioa, bide-heziketa eta kontrola indartzea.

3.2.2.2.4. Oinezkoak

Mugikortasunari eta oinezkoen garraioari dagokienez, eskuratutako ideia nagusiek agerian uzten dituzte udalerriaren ezaugarri diren desnibel handiak, mugikortasuna zailtzen duten aldapaz beterik baitago Leioa. Herritarren topaketetan parte hartu zutenen hitzetan, besteak batzuen artean La Avanzada autobidetik udaletxera/elizara igotzeko aldapa eta Mendibiletik Ikeamendira doana azpimarratzen dira; herritarren aburuz, joan-etorri ugari izaten dira horietan, eta kosta egiten da igotzea. Bestalde, Artea merkataritza-gunera eta beste zenbait eremutara oinez baino ezin da iritsi, eta horrek zaildu egiten du gune horretara joateko aukera.

3.2.3. Etxebizitza

Etxebizitza bera eta etxebizitzaren egoera egokia beharrezko baldintzak dira pertsonen autonomia eta bizi-kalitatea zaindu ahal izateko.

Historikoki, babesleku bat edukitzea izan da gizakien behar nagusietako bat (Vela, 2003). Kasu honetan, etxebizitzak betetzen du eginkizun hori. Oinarrizko behar bat izateaz gainera, giza eta gizarte eskubide bat ere bada (García-Andrés eta Etxezarreta, 2018). Horregatik, ukaezina da etxebizitzaren, osasunaren eta laguntzaren arteko harremana.

Bestalde, Eustatek 2023an emandako datuen arabera, udalerriko bizitegi-lurzoruak 200,82 hektarea hartzen ditu, eta, horietatik, 85,3 m²-koa da batez besteko azalera erabilgarria (familia-etxebizitza), 2022ko datuen arabera. Era berean, 36,2 urtekoa da etxebizitzaren batez besteko antzinatasuna (Eustat, 2025).

Leioako hiri-antolamenduko plan orokorra (HAPOa) 1999an onetsi zen, eta 2001 eta 2002 artean argitaratu zen haren araudia. Huraxe izan da, hain justu, udalerraren hiri-antolaketa eta -garapenerako tresna nagusia azken hamarkadetan. Harrezkero, aldaketa eta plan osagarri ugari egin dira (plan partzialak, bereziak, xehetasun-azterketak eta urbanizatzeko jarduketa-programak barne), eta kudeaketa dinamikoa eta udalerraren beharretara egokitua ahalbidetu dute.

HAPOan jasotako hirigintza-garapenei esker, Leioak 3.612 etxebizitza eraikitzea lortu du —% 54 etxebizitza askeak eta % 46 etxebizitza babestuak—, bizitegi-eskaintza dibertsifikatu bat bermatzeko. Udalak emandako datuen arabera, 2024an 14.583 etxebizitza daude orotara Leioan.

Jarraian, etxebizitzaren bilakaera aztertuko dugu, urteen arabera:

7. taula. Udalerriko etxebizitzek urteetan izan duten bilakaera, tipologiaren arabera.

	2014	2015	2016	2018	2019	2020	2021	2022	2023
GUZTIRA	12.648	12.880	12.967	13.474	13.633	13.714	13.804	13.962	14.126
Familia-etxebizitza	12.642	12.874	12.961	13.465	13.624	13.705	13.795	13.953	14.117
Etxebizitza nagusia	11.290	11.442	11.650	12.156	12.342	12.513	12.645	12.717	12.878
Gainerakoak	1.352	1.432	1.311	1.309	1.282	1.192	1.150	1.236	1.239
Establezimendu kolektiboak	6	6	6	9	9	9	9	9	9

Iturria: Eustat (2025) eta Leioako Udala (d.g.).

Udalerriko etxebizitza-parkeak 2014 eta 2023 artean izan duen bilakaeraren azterketak⁵ erakusten du hazkunde-joera jarraitua izan dela, eta 1.478 etxebizitza gehiago daude guztira. Hazkunde hori batez ere **familia-etxebizitzetan eta etxebizitza nagusietan** kontzentratu da, eta sendotu egin du udalerriko bizitegi-ehunaren hedapena. **Familia-etxebizitzak** —guztizkoaren parterik handiena— 2014an 12.642 izatetik 2023an 14.117 izatera igaro dira, eta bilakaera ia paraleloa izan du orotara dauden etxebizitzekin alderatuta. Talde horren barruan, **etxebizitza nagusiek** (hau da, ohiko bizilekuek) hazkunde nabarmena izan dute, 11.290 unitatetik 12.878 unitatera igaro baitira.

Bestalde, **gainerakoak** multzoan sailkatutako etxebizitzek (bigarren mailakoek, hutsek edo beste erabilera batzuetakoek) zenbait gorabehera izan dituzte. Punturik altuenera 2015ean iritsi ziren arren (1.432ra), hurrengo urteetan behera egin dute oro har, gorakada txiki bat izan arte 2022an eta 2023an. **Establezimendu kolektiboen** multzoan —egoitzak edo beste bizitoki komunitario batzuk, adibidez—, haien kopurua egonkorra eta oso txikia izan da, eta 2018tik aurrera 6 unitatetik 9ra igo da, nahiz eta ez den izan eragin nabarmenik etxebizitza-parke osoan.

Datuek agerian uzten dute udalerriko etxebizitza-parkearen garapen positiboa, betiere etxebizitza nagusia eta familia-etxebizitza indartzera bideratua. Bilakaera horrek adierazten du udalerrria bizileku egonkor gisa finkatu dela, eta, ziurrenik, eraginkortasunez kudeatu dela etxebizitza ez-nagusien stocka.

⁵ Eustatek udalerriko etxebizitzaren urtetik urterako bilakaerari buruz emandako informazioak berriena 2023koa da. Eguneratze-data: 2025eko ekainaren 30a.


Jarraian, herritarrek etxebizitzaren arloan identifikatutako gai nagusiak aurkeztuko dira.

Horri dagokionez, herritarren topaketek azaleratu dute badela etxebizitzarekin loturiko arazo bat, zenbait arrazoiengatik. Alde batetik, **badirudi etxebizitza-eskaria handiagoa dela eskaintza baino**. Gainera, **zonaldearen arabera prezioak desberdinak diren arren, etxebizitzak garesti daude**, eta, horrenbestez, zaila da horiek eskuratzea. Adibidez, Donibanen etxebizitzak merkeagoak izan ohi dira, etxebizitzarik gehienek igogailurik ez dutelako.

Pertzepzio orokorrak⁶ erakusten du Artatza – San Bartolome aldea dela Leioako garestiena. Hala ere, beste auzo batzuetan ere (Torresolo, Leioandi, Lekueder eta Ibaiondo) prezio handiak nabarmendu dituzte eraikitako etxebizitza berrietan. Aldiz, Lamiako jotzen da, oro har, preziorik baxuenak dituen eremutzat. Alabaina, berriki higiezin-sustapenak egin dituzte auzo horretan, eta balio altuetara iritsi dira. Bestalde, etxebizitzarik zaharrenek eta igogailurik gabekoek prezio baxuagoak izaten dituzte; hala ere, eremu horietan ere posible da etxebizitza berriak egitea eta horien prezioak ere garestiak izatea.

Herritarren inkestetan, etxebizitzari buruzko kezka ere islatzen da; izan ere, gehienek (% 44,2k) dio ez direla batere eskuragarriak, eta % 33k, berriz, ez direla oso eskuragarriak. Orobat, baieztatu zen **Leioan oraindik ez dagoela alokairuko behar adina etxebizitza**, eta emaitzak parekatuak izan ziren. % 37,6k uste du ez dagoela nahikoa etxebizitza, eta beste % 37,6k, gutxi dagoela.

19 grafikoa. Leioako etxebizitzaren eskuragarritasunari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

⁶ Leioako Udalaren Hirigintza Sailak emandako informazioa.

Taldekieen erdiek baino gehiagok azpimarratu zuten beren etxebizitzek **oztopo arkitektonikoak** dituztela. Zehazki, batzuek kartzelatzat dituzte beren etxebizitzak, ezin direlako haietatik atera, batez ere oztopo arkitektonikoengatik. Etxe-ingurune irisgarritasun-pertzepzioa desparekoa da. Emaizten arabera, inkestari erantzun zioten pertsonen % 23,8k uste du bere etxebizitza *nahiko egokituta* dagoela mendekotasun edo mugikortasun murriztuko egoeretara. Hala ere, ehuneko berdin-berdin batek adierazi zuen beren etxebizitzek ez *dutela batere* egokitzapenik horrelako beharrei aurre egiteko.

Herritarren topaketetan adierazi denez, **kostu ekonomiko handia da etxebizitzak egokitzeko oztopo nagusietakoa**, bereziki igogailuak jartzeko. Parte-hartzaileek iritzi diote eskuragarri dauden laguntza ekonomikoak ez direla nahikoak egin beharreko gastua beren gain hartzeko. Adierazi dute, orobat, indarrean dagoen araudiak espazio publikoan igogailuak instalatzea ahalbidetzen duen arren, aukera hori ez dela beti soluzio eskuragarri bat, nahiz eta horrek teoriarik edozein etxebizitzatan instalatzea erraztuko lukeen. Igogailuaren sarrera balkoitik egin ahal izatea ere aipatu da aukera gisa, instalatzeko moduak malgutzeko.

Testuinguru horretan, Lurralde Arloak⁷ urtero gaitzen du dirulaguntza-lerro bat, lehendik dauden eraikinetan eta horiei lotutako urbanizazioetan esku hartzeko. Deialdi horiek zenbait laguntza-modalitate aurreikusten dituzte, hala nola ingurune urbanizatua hobetzeko, energia-efizientzia areagotzeko, irisgarritasuna hobetzeko (igogailuak instalatzea errazten lagun lezake), kultura-ondarea kontserbatzeko eta hondakinen kudeaketa optimizatzeke. Laguntza horien helburua da bizitegi-parkearen berrikuntza eta hobekuntza integrala sustatzea, eta, hala, biztanleentzako bizigarritasun- eta irisgarritasun-baldintza egokiagoak bultzatzea.


Herritarren pertzepzioaren arabera, Txorierri, Donibane, Kandelazubieta, Iturribide, Lamiako, Pinueta eta Ikeamendi dira Leioan irisgarritasunik kaskarrena duten inguruak. Gainera, auzo horietan adin nagusiagoko biztanle-proportzio nabarmen bat bizi da (ikusi 2. taula), eta horrek areagotu egiten du eremu horietako irisgarritasuna hobetzearen garrantzia.

Txorierri auzoari dagokionez, herritarren topaketetan jasotako iritziek irisgarritasuna hobetzeko bidea zabaltzen dute. Jasotako pertzepzioen arabera, etxebizitzaren % 90 inguruk ez du irisgarritasun egokiturik, eta gehienek ez dute igogailurik, nahiz eta uste den bideragarria izango litzatekeela instalazio horiek eraikin guztietan jartzea. Eremu

⁷ Leioako Udalaren Hirigintza Sailak emandako informazioa.

horretako biztanlerik gehienak adinekoak direnez, irisgarritasuna hobetzeak nabarmen erraztuko lituzke mugikortasuna eta autonomia. Egoera horren ondorioz, badirudi bizilagun batzuek beren etxebizitzak saltzea erabaki dutela, beste eremu batzuetara lekualdatzeko; jabetza horiek, bestalde, Txorierrira bizitzera joateko aukera duten gazteek erosi ohi dituzte. Dinamika horrek gizartea eta demografia berritzeko potentziala islatzen du, eta hori aprobetxatu egin daiteke, auzoaren eta biztanleen beharretara egokitutako estrategiak diseinatzea ahalbidetuko duen azterketa espezifiko baten bidez.

20 grafikoa. Etxebizitzarako finantza-laguntzen berri izateari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Era berean, herritarren topaketetan elementu garrantzitsutzat jo zen etxebizitza-motei buruz eta **adinekoentzako alokairurako dauden laguntzez dagoen desinformazioa**. Herritarrek ez dute oso ondo ezagutzen gai hori, eta argi eta garbi adierazten dute beharrezkoa dela informazio argiagoa eta eskuragarriagoa. Halaxe berresten dute inkestetan lortutako datuek: parte-hartzaileen % 49,4k adierazi du ez *duela batere ezagutzarik* etxebizitzak eraberritzeko, erosteko eta mantentzeko finantza-laguntzei buruz; % 28,1ek, berriz, horri buruzko ezagutza *mugatua* duela aitortu du.

Azaldutako egoeraren aurrean, herritarrek etxebizitzarekin lotutako zenbait aukera proposatu zituzten topaketetan, eremu horretan dituzten beharrak eta lehentasunak islatuz.

- Etxebizitza komunitarioaren eta tutoretzapeko etxebizitzaren inguruan, bi aukeren arteko hautua pertsona bakoitzaren premien arabera dela adierazi zuten. Erreferentzia positibo gisa, Santurtziko etxebizitza komunitarioaren esperientzia nabarmendu zuten, eta, haien iritzian, Udalak etxebizitza-mota hori sustatzen badu, onarpen eta arrakasta ona izango du.

- **Etxekidetza edo *cohousing***ari dagokionez, parte-hartzaileek uste dute eredu hori bereziki erakargarria dela gazteentzat eta adinekoentzat.
- Azkenik, ontzat jo zuten horrelako etxebizitzak eraikitzea, betiere deszentralizatuta badaude eta ez badute eragiten pertsonak beren jatorrizko auzoetatik deserrotzea.

Horren harira, Leioako Udalak gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLLak) eta gizarte-larrialdietarako udal-laguntzak (GLULak) ditu alokairua/hipoteka ordaintzeko eta etxebizitzaren hornidura-gastuei aurre egiteko.

Eskaera egiteko, hileko gastuaren aldez aurreko zenbatespena egin beharko da, gastatzea aurreikusten den zenbatekoa eskatzeko.

Emandako laguntza justifikatzeko, 2025eko ekitaldian diruz lagundutako hilabete guztietako ordainagiri guztiak aurkeztu beharko dira, 2026ko urtarrilaren 31 baino lehen.

3.2.4. Partaidetza eta gizarte-ehuna

Gizarte-harremanak garrantzitsuak dira denontzat bizitza osoan zehar. Laguntza-sareak beharrezkoak dira pertsona guztien ongizaterako, batez ere adinekoen kasuan. **Laguntza-sare** nagusiak **familia**, bizikidetza-taldea eta **auzokoak** dira, eta, horregatik, funtsezkotzat jo dira azterketa egiterakoan. Izan ere, euskal gizartearen kasuan, familia-ehuna sendoa denez, familia-elkartasuna da gizartea definitzen duen elementurik garrantzitsuenetakoa.

Zahartzaroan, are handiagoa da harreman horien garrantzia, bizitzako une horretan pertsonak askotariko galerak izaten dituelako (osasunarekin lotutakoak, sozialak eta fisikoak). Gizarte-ehunaz hitz egitean **laguntzen** trukeaz ere ari gara, **sistema formalak** estaltzen ez dituen beharrei erantzuten dien sistema informala ahalbidetzen baitu. Esparru horretan, funtsezkoa da aztertzea nola laguntzen duten egitura komunitarioek eta tokian tokiko ekimenek sare sozial hori indartzen.

Alde horretatik, **Leioako hirugarren sektorearen eta herritarren partaidetzaren alorreko egungo egoeran**, eragile hauek nabarmentzen dira: hirugarren sektoreko erakundeak, herritarren partaidetzarako udal-ekimenak (hala nola Herrigune, Partaidetza Komunitarioko Tokiko Estrategia) eta Boluntariotza Sustatzeko Zerbitzuak eremu sozialean egindako jarduerak.

1. Hirugarren sektoreko erakundeak Leioan

Leioak **gizarte-sare askotariko eta aktiboa** du, elkarte eta erakunde ugarik osatua, eta guztiek ere kulturaren, gizartearen, hezkuntzaren, auzoen eta gazteen alorreko esparruetan egiten dute lan. Jarraian, egoitza soziala Leioan duten hirugarren sektoreko erakundeen zerrenda eguneratu bat⁸ aurkezten da.

- Amets Berria Kultur Elkartea
- Andrak (Leioako Emakumeen Elkartea Soziokulturala)
- Despertar de los Sentidos elkarte
- Onda Euskadi Kultur Elkartea
- Loizaga Kultur Elkartea
- Pinueta Lagunak Kultur Elkartea
- Lamiakoko Bizilagunen Elkartea
- Askartza Gazte Elkartea
- Auzotarrok Kultur Elkartea
- Berbalamiñe

⁸ Leioako Udaleko Partaidetza Sailak emandako informazioa.

- Biltoki Aisialdi Taldea
- Comunidad Cultural Castellana
- Orpheo Ganbera Abesbatza
- San Bartolome Jai Batzordea
- Lamiakoko Jai Batzordea
- Santimamiko Jai Batzordea
- Txopoetako Jai Batzordea
- Leioako Doniene Abesbatza
- Dosanlei
- Epi y Blas
- Educación de Proceso Integral
- Buscadores de Labores
- Erromo eta Pinuetako Jai Batzordea
- Estrella del Norte
- Fath
- Fideas Fundazioa
- Gaur Egun
- Gure Ohiturak Dantza Taldea
- Helduen Alde
- Irrifarrez Elkartea
- Kafe Huts
- Kalian Hiri
- Kraska Gazte Elkartea
- Kurkudi
- Kurkudi Kultur Taldea
- Lamiako Maskarada
- Lamina Kultur Elkartea
- Lamina Kultur Elkartea
- Leiar Argazki Elkartea
- Leioako Bilgune Feminista
- Leioako Musika Banda
- Leioarte
- Leihotik at! (Mundua Ezagutuz)
- Mantis
- Perseo Zine Foruma
- Puruskiltxo Kultur Elkartea
- Rami (Ikeamendiko irratizaleak)
- Sortarazi Txikitan
- Txikiak Txiki Dantza Taldea
- Zazpi (Leioako Mikologia Elkartea)

Ekosistema asoziatibo horrek aktiboki laguntzen du, bizitza komunitarioan, kohesio soziala indartzen eta herritar parte-hartzaile eta konprometituak bultzatzen.

2. Herritarren partaidetza sustatzeko udal-ekimenak

Leioako Udalak herritarrek parte hartzeko eredu bat finkatu du azken urteotan, oinarri gisa harturik hurbiltasuna, entzute aktiboa eta komunitatea ahalduntzea. Indarrean dauden ekimenen artean, hauek nabarmentzen dira:

- **Leioako Aurrekontu Irekiak.** Parte hartzeko prozesu bat da, herritarrei udal-aurrekontuekin finantzatzeko diren proiektuak proposatzeko, bozkatzeko eta lehenesteko aukera ematen diena. Prozesuak bi fase ditu: lehenengoan, herritarrek proposamenak aurkezten dituzte, eta, bigarrenean, irizpideak betetzen dituztenak bozkatzen dira. Urte bakoitzean, 10 proiektu inguru aukeratzen dira.
- **Leioa Auzoetan.** Aurrekontu irekien antzera, ekimen horrek udalerriko auzoetan jartzen du arreta: proposamen bereziak jasotzen ditu eremu bakoitzerako, tokiko garapena eta partaidetza deszentralizatua indartzea helburutzat harturik.
- **Umeen Kontseilua.** Leioako haurren ahotsa ordezkatzeko duen organo aholku-emailea da. Azken urtean, *haurren jolasari buruzko jardunbide egokien dekalogo*a egin zuen kontseilu horrek, gogoraraziz jolastea eskubide bat dela. Horretaz gainera, kontseilu honek **HAI-PAI** programa bultzatzen du, partaidetzazko aurrekontuen haurrentzako bertsioa.
- **Ezagutzaren Azokak.** Komunitatearekin komunikatzeko estrategia bat da, eta udalerrian presente egoteko modu bat, bai eta prestakuntza esperientzia txikiak izateko gune bat ere, trebakuntzan hazten jarraitzeko. Gainera, normalean beste proiektu eta prozesu batzuetan —esaterako, Irakaleak— funtzionatzen duten interes-taldeek ikasitakoa *itzulkin soziala* sortuz beren komunitateari itzultzeko modu bat da. Azkenik, ekintza honen beste helburuetako bat da komunitateari grafikoki helaraztea ikasturtean zehar laborategian egin den guztia. Era berean, mota horretako jarduera komunitarioetan interesa duten beste eragile sozial batzuek ere parte har dezakete, hala nola EHUK, elkarteek, Udaleko beste arlo batzuek...
- **Mugikortasunaren Europako Astea.** Hiri-mugikortasun jasangarria eta espazio publikoaren erabilera arduratsua sustatzen duten jarduerak biltzen ditu.
 - **Herritarren Martxa.** Ekimen horrek ulertzen du hiria bizikidetzarako eta pertsonen arteko topaketarako gune partekatu bat dela. Proposamen horrek, alde batetik, elkarrekin ibiltzera gonbidatzen gaitu, taldean, eta,

bestetik, gelditzera, entzun eta sentitzeko. Hango espazioak erabiltzeko moduak edo gogoratzeko, zaintzeko eta bizitzeko gure moduak lagungarriak dira bertan bizi garen pertsona guztien artean eraikitzen dugun hiria definitzeko. Esparru horretan, Mugikortasunaren Europako Astearekin loturik antolatutako ekitaldien barruan kokatzen da herritarren martxa.

- **Haur Ibiltarien Topaketa (HIT).** Topaketa hezigarri eta ludikoa, haurrak mugikortasun osasungarriari buruz sentsibiliza daitezten.
- **Autorik Gabeko Eguna.** Zirkulazio motorduna mugatzen duen ekimena, garraio publikoa eta ez-kutsatzailea sustatzeko.
- **Hitzarmena UNICEF – Haurren Lagunak elkartearekin.** Leioak bat egin du, duela gutxi, UNICEFen *Haurren Hiri Laguna* programarekin, diagnostiko zehatza egin eta haurren eta nerabeen ongizatean oinarritutako ekintza-plan bat onetsi ondoren.
- **Alkatearekin Partekatzen.** Herritarrek parte hartzeko programa bat da: herritarrak alkatearekin elkartzen dira, udalerrriaren beharrak, lehentasunak eta hobetzeko ideiak partekatzeko. Entzute aktiborako espazio bat da, Leioako bizi-kalitatea hobetzera bideratua. Programak aukera ematen die herritarrei alkatearekin zuzenean harremanetan jartzeko, Leioako auzoetan programatutako bileren bidez.

3. Herrigune: Partaidetza Komunitarioko Tokiko Estrategia

Herrigune Leioa. Herritarrek parte-hartze aktibo, inklusibo eta eraldatzailearen alde egiten duten apusturik berritzaileena da. Hauek ditu jardunbide nagusi:

- **Bizibideak.** Herrigune Leioa barruko ekimen horren helburua da ikasleei autonomia itzultzea eta egin beharreko guztia egitea, etxetik ikastetxera lagunekin oinez eta segurtasun osoz joatea izan dezaten. Leioako Udalak haurrei itzuli nahi die hiria, eta aukera hori baliatu nahi du hiri-eraldaketa inklusiborako abiapuntu gisa.
- **Hazi Leioa.** Zaintzara, ikaskuntzara eta topaketara bideratutako espazio komunitario bat da, zeinean zenbait ekintza gauzatzen diren:
 - **Herritarren laborategiaren lantegiak** (eskulanak, joskintza eta abar).
 - **Irakaleak:** elkarlaneko eta berdinen arteko ikaskuntza-prozesuak, partaidetzan oinarrituak eta ahalduztzera bideratuak.

- **Kale Ekintzak:** unean uneko esku-hartze komunitarioak, bizilagunek antolatuak.
- **Ezagutza Azoka:** dakiten hori komunitatearekin partekatzeko eta beste batzuegandik elkarlanean ikasteko gune bat da.
- **Ekin: Herritarren Laborategia.** Herritarren partaidetzaren aldeko apustu bat da, eta herritarrek, guztien onerako erronka kolektiboak edo ekimenak proposatzeaz gainera, horiek aurrera eramaten aktiboki jarduten dute lankidetzan Udalarekin. Lan-ildo hori garapen kolektiborako, ahaldunderako, ekintzailetzarako eta trebakuntzarako espazio gisa ulertzen da, eta arlo komunitarioan oinarritutako ikuspegia du. Premia partekatuak ditu abiapuntu, eta erronka komunen aurrean erantzun bateratuak eraikitzen dago bideratuta. Azken edizioetan landutako gaien artean ageri dira, besteak beste, kutsadura akustikoa, kulturarteko ikaskuntza-komunitatea, zahartze aktibo eta jasangarriko auzo-sarea eta baratze komunitarioak.
- **Garatu Leioa.** Udal-erakundearen barrura bideratutako lan-ildo bat da, berrikuntza publikoaren eta benetako parte-hartzearen kultura sustatzea eta, horrela, herritarren eta komunitatearen parte-hartzea sustatzen lagunduko duen lankidetz-egitura berria definitzea helburutzat hartuta. Herritarren eta administrazioaren arteko elkarlaneko gobernantza sustatzen da.
- **BCC-LES (Jakintza Banku Komuna).** Herritarren jakintzak, interesak eta beharrak identifikatzeko aukera ematen duen tresna bat da. Bi galdera errazen bidez (zer ikasi nahi zenuke eta zer partekatu ahal izango zenuke?) jakintza-sare partekatu bat elikatzen da, Herriguneko prozesu guztiekin batera.

Azkenik, aipatzekoa da **Leioako Udal Hezkuntza Kontseiluaren sorrera**. Leioako Udala, Hezkuntzako eta Herritarren Partaidetzako Sailekin lankidetzan eta EHUren laguntza teknikoarekin, Udal Hezkuntza Kontseiluaren (Hezkuntza Batzordea) sorrera ari da bultzatzen. Gaur egun, proiektuaren esparru-dokumentua prestatzen ari dira, etorkizuneko kontseiluaren printzipio gidariak, helburuak, eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-modua definitzeko.

Dokumentu hori 2023ko abenduaren 17ko 27/2023 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzari buruzkoan, ezarritakoaren arabera garatzen da. Kontseilua organo zabal eta zeharkako gisa ulertzen du, hezkuntza hiru dimentsiotan jorratuko duena: formala (irakaskuntza arautua), ez-formala (arautu gabeko hezkuntza-jarduera

egituratuak) eta informala (eguneroko bizitzatik datozen ikaskuntzak, hezkuntza-asmo espliziturik gabeak).

Ikastetxe publiko zein itunpekoen ordezkariak, familieak, udal-talde politikoak, elkarteak, gizarte-kolektiboak eta tokiko hezkuntza-eremuarekin lotutako beste eragile batzuek osatuko dute kontseilua. Oinarrizko dokumentua amaitu ondoren, 2025eko irailetik urrira bitartean aurreikusten da hasiko dela kontseilua eratzekeo prozesua, inplikaturako eragileei gonbidapena egin ondotik. Udal Hezkuntza Kontseilua 2025eko abendutik 2026ko otsailera bitartean eratzea da asmoa.

4. Gizarte Arloan Boluntarioria Sustatzeko Zerbitzua

Gizarte Politiketako Sailaren eginkizunen artean dago gizarte-zerbitzuen alorrean partaidetza eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua garatzea (1.5. Zorroari buruzko Dekretua).

Zerbitzu horrek komunitatearen parte-hartze antolatua sustatzen du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sarearen berezko helburuak lortzeko eta gizarte-zerbitzuetatik erantzuteko moduko premiak prebenitzeko eta artatzeko eginahalean, bereziki eragile hauena:

- a) Beste gizarte-zerbitzu batzuen erabiltzaile izan ala ez, premia horiek prebenitzen edo artatzen parte hartu nahi duten pertsonena, taldeen, sareen edo elkarri laguntzeko beste ekimen batzuen bidez.
- b) Herritarrena oro har, helburu horietara bideratutako boluntarioria-jardueren bidez (boluntarioria soziala).
- c) Tokian bertan diharduten Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko erakundeena.
- d) Erabiltzaileena eta, kasuaren arabera, haien senideena, zerbitzu eta zentroetan.

Zenbait eratako jarduerak garatzen ditu: a) parte hartu nahi duten pertsonen informazioa eta orientazioa ematekoak; b) sentsibilizazioak, herritar guztiei zuzenduak; c) prestakuntzakoak, dagokionean. Jarduera-eremu geografikoa zerbitzua eskaintzen edo sustatzen duen udalerriari dagokiona izango da.

Eremu horretan, gizarte-erakunde hauek jarduten dute, Udalaren laguntzarekin:

- 1. ASEBIER
- 2. AVIFES
- 3. ELIKAGAIEN BANKUA

- 4. BIDESARI
- 5. CÁRITAS
- 6. GURUTZE GORRIA
- 7. EDEX
- 8. ESKU HUTSIK
- 9. AMEKADI
- 10. CORE FUNDAZIOA
- 11. FIDIAS
- 12. GAUDE
- 13. INTEGRA CEE
- 14. SORTARAZI
- 15. UNRWA
- 16. ZABALKETA
- 17. EKINTZA ALUVIZ
- 18. BIZKAIA GARA

Horren harira, Gizarte Politiken Sailak **Leioako Hirugarren Sektore Sozialaren Mahaia** sortu zuen 2024an. Aipatutako erakunde guztiek parte hartzen dute mahai horretan, helburu gisa harturik koordinaziorako eta plangintzarako espazio komun bat sortzea eta, hala, ekintza bateratuak bultzatzea. Lan horren ondorioz, **LEIOAKO HIRUGARREN SEKTOREKO ERAKUNDEEN I. AZOKA** egin da 2025eko ekainean, «Komunitatea ereiten» leloarekin. Jarduera horren helburua da Leioak elkartasunaren balioekin duen konpromisoa ikusaraztea eta gizartearen parte-hartzea sustatzea, bai eta erakundeen lanari balioa ematea ere.

Gainera, Leioako Udalak Adinekoekin Lagunkoiak diren Hiri eta Komunitateen Sarearekin bat egitea sustatu du Gizarte Politiken eta Adinekoen Sailak, helburu gisa harturik adinekoen partaidetza soziala sustatzea, betiere haien beharrak kontuan hartuta, bai eta zahartze osasungarri eta aktiboa ahalbidetuko duen hobekuntza sustatzeko ere udalerrian.

Panorama azaldu ondoren, herritarrek parte-hartzearen eta gizarte-ehunaren arloan identifikatutako gai nagusiak jorratu eta jasoko dira epigrafe hauetan: (i) parte-hartzeari buruzko pertzepzio orokorra, (ii) erretiratuen zentroetako parte-hartzea, eta (iii) aisialdiko eta denbora libreko eskaintza.

3.2.4.1. Parte-hartzearen eta gizarte-ehunaren gaineko pertzepzio orokorra

Jarraian, herritarren parte-hartzeari eta gizarte-sareari buruzko pertzepzio orokorra jorratuko da: komunitateak zer iritzi eta sententzio dituen ingurunean duen inplikazioari eta gizarte-harremanei buruz, eta lagunkotasunari buruzko galde-sortetatik lortutako emaitzak.

- **Parte-hartzearen gaineko pertzepzio orokorra**

Herritarren topaketetatik abiatuta, ikusi da herritarrek, oro har, uste dutela **Leioak espazio-eta baliabide-eskaintza egokia duela parte-hartze sozial eta komunitariora bideratuta**, eta udalerriko elkarten hedapen zabalak babesten du uste hori. Parte-hartzearen sustapena zail samarra izan daitekeela onartu den arren, inkestan parte hartu duten biztanleek herritarren inplikazioa errazten duten zenbait eremu identifikatu dituzte, hala nola Gurutze Gorria, auzo-elkarteak, batzorde mistoak, erakunde-foroak, Udal Hezkuntza Kontseilua, talde feministak eta adinekoei zuzendutako gizarte-zentroak.

Testuinguru horretan, parte hartu duten herritarrek azpimarratu dute, orobat, **askotariko elkarte-sare aktibo bat dagoela**, zeinaren parte baitira Cáritas, Andrak, Herrigune, Hasten Elkartea, Suteak, Sare Feminista eta kulturarteko ikaskuntza-eskola tartean. Alabaina, adierazi da herritarren parte batek ez dituela behar bezala ezagutzen Herrigune eta beste zenbait espazio.

Era berean, herritarrek adierazi dute beharrezkoa dela udal-bizitzan parte hartu nahi duten gizarte-elkarteentzat eskuragarri dauden espazio fisikoak ugaritzea. Alde horretatik, jardunbide egokitzat aipatu da San Bartolomeko lokala erabiltzea; esperientzia hori beste auzo batzuetan ere errepika daiteke, deszentralizazioa sustatzeko eta baliabide komunitarioak bidezketasunez eskura jartzeko.


Baliabide eta espazio horiek gorabehera, parte-hartzaile batzuek adierazi dute **ez dakitela zer mekanismo eta bide dauden jarduera horietara jotzeko edo haietan parte hartzeko**. Horregatik, parte hartu duten biztanleek azpimarratu dute garrantzitsua dela herritarren partaidetza horizontalagoa eta askotarikoagoa sustatzea, zenbait elkarten eta erakundek bultzatuta, kontuan izanik jarduerak talde bakarrean biltzeak mugatu egin dezakeela partaidetza, eta irisgarritasuna, berriz, murriztu.

Ildo horretan, lortutako emaitzek erakusten dute **Leioan ikusgarritasun txikia duela boluntariotzari lotutako elkarte-sareak**. Inkestatutako pertsonen % 41,2k adierazi du ez duela ezagutzen boluntario-lanak egin ahal izateko moduko tokiko elkarerik, eta % 29,4k,

azaletik baino ez dituela ezagutzen. Bestalde, % 10,7k soilik adierazi du baduela halakoen berri: batzuek esan dute *asko* (% 2k) ezagutzen dituztela, eta beste batzuek, *dezente* (% 8,7).

Tokiko elkarteekiko etxekotasun txiki hori zuzenean lotuta egon liteke inkestan jaso diren **boluntariotza-ekintzetako partaidetza-maila txikiekin** ere. Zehazki, kontsultan parte hartu duten pertsonen % 62,4k adierazi du ez duela parte hartzen boluntariotza-jarduera batean ere, batez ere ez dituelako ezagutzen eskura dauden aukerak. Horretaz gainera, % 17,9k adierazi du jarduera horietan parte hartzen duela, baina noizean behin edo era mugatuan.

21. grafikoa. Parte-hartzaileek boluntariotza-jardueretan duten partaidetza.




Iturria: norberak egina.

Bestalde, datuek erakusten dute **toki-elkarteekin lotura ahula dagoela, oro har**. Inkestatutako pertsonen % 56,3k adierazi du ez dagoela udalerriko erakunde batean ere kidetuta, eta % 12,5ek, oso *lotura txikia* duela esan du. Bestalde, % 6,6k soilik adierazi du *oso lotura handia* duela, eta % 9,5ek, *nahiko lotura handia* duela.

Aurretik azaldu denez, boluntariotzaz eta elkarteetan parte hartzeaz gainera, badira **udal-ekimeneko beste gune batzuk**, herritarrei iritzia adieraztea ahalbidetzeko asmoa dutenak. Hala ere, parte-hartzaileengandik jasotako datuek erakusten dute **partaidetza-kanal horien erabilera mugatua dela oraindik ere**. Zehazki, inkestan esku hartu duten pertsonen % 38,9k adierazi du ez duela parte hartzen horrelako espazioetan, eta % 19,9k, berriz, *oso gutxi* hartzen duela parte. % 4,6k baino ez du esan parte-hartze *handia* duela, eta % 13k, *nahiko handia*. Horrek erakusten du inkestari erantzun dioten biztanleen bosten batek baino gutxiagok dutela inplikazio aktibo eta iraunkorra udalerriko partaidetza-prozesuetan.

22. grafikoa. Parte-hartzaileek udal-ekimenetan duten partaidetza.



Iturria: norberak egina.


Etorkizunean inplikatzeko alde zuzeneko joerari dagokionez ere, emaitzek jarrera zuzena islatzen dutela dirudi. Inkestatutako pertsonen % 14,1ek adierazi du ez duela *batere interesik* parte hartzeko, eta % 18,4k interes txikia duela. Beste aldean, % 18,9k dio interes *dezente* duela, eta % 7,9k, berriz, *handia*. Horrek iradokitzen du **biztanleriaren segmentu bat prest dagoela aktibokiago inplikatzeko**, betiere baldintza egokiak betetzen badira.

- **Gizarte-ehunaren gaineko pertzepzio orokorra**

Herritarren topaketetan, **Leioako gizarte-sareari eta bizikidetzari buruzko zenbait pertzepzio jasotzen dira**. Parte-hartzaileen artean, **balorazio positiboa** jasotzen da Udalaren irisgarritasunari buruz. Lido horretan, teknikariek zein talde politikoak erakutsitako jarrera irekia nabarmendu dute, herritarrek uste baitute harkorrak direla eta prest daudela herritarren eskaerei erantzuteko.

Bestalde, nahiz eta herritarren topaketetan jasotzen den indibidualismo progresiboa baten pertzepzioa gizarte-harremanetan (gai pertsonaletan zentratzeko joera eta komunitate-bizitzan inplikazio txikiagoa izatekoa), lagunkoitasun-inkestatetik ateratako datu kuantitatiboek nolabaiteko zehaztapenak eskaintzen dituzte ikuspegi horri buruz. Hain zuzen ere, emaitzek agerian utzi dute familia- eta auzo-sare nahiko sendoak daudela, eta horrek pertzepzio horren kontrapisu moduan jardun dezake.

24. grafikoa. Familiaren babesaren gaineko pertzepzioa.




Iturria: norberak egina.

Zehazki, lagunkoitasunari buruzko inkestetatik ateratako datuek Leioako **harreman-ehunaren** inguruko zenbait dimentsio erakusten dituzte. **Familiaren babesaz**, inkestan esku hartu duten pertsonen % 25,8k esan du oso *handia* dela, eta % 31,7k, *nabarmena* dela. Harremanetarako sare ohiko eta irisgarriak daudela adierazi dute. Alabaina, % 16,9k *hala-holakotzat* jo du babes hori.

Familia-harremanaren maiztasunaren alorrean, inkestan esku hartu duten pertsonarik gehienek harreman hurbila dute senideekin: % 38,4k adierazi du oso *maiz* izaten dutela harremana, eta % 33k *nahiko maiz*. % 15,9k bakarrik adierazi du kontaktu hori noizbehinkakoa edo intentsitate ertainekoa dela. **Etxeen hurbiltasun geografikoa** funtsezko faktorea da harreman horretan; izan ere, inkestatuen % 27,6k adierazi du senideak *nahiko gertu* bizi direla, eta % 25,3k, *oso gertu*. Alabaina, % 13,8k uste du hurbiltasuna hutsa dela (*inolakoa* ere ez), eta % 9k *txikia* dela.

Auzotarrei erreparaturik, **elkarren arteko ezagutza-maila** ere positiboa da inkestatuen arabera. Inkestatuen % 21,7k adierazi du oso *ondo* ezagutzen dituela bizilagunak, % 39,9k *dezente* ezagutzen dituela, eta % 25,3k *hala-hola* ezagutzen dituela. Horrek esan nahi du harreman komunitarioek oinarri sendoa dutela eta badirela gizarte-sarea gehiago indartzeko aukerak.

23. grafikoa. Auzotarren babesaren gaineko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Auzotarren babesari buruz, inkestan parte hartu duten biztanleen parte nabarmen batek harreman komunitario positiboak hautematen ditu: % 26,9k uste du auzotarren arteko babesa *dezentea* dela, eta % 8,2k, *handia* dela. Gainera, % 35,5ek uste du babes hori *hala-holakoa* dela, eta horrek oinarri sendo bat iradokitzen du bizikidetza indartzen jarraitzeko. % 20,5ek baino ez du jotzen auzotarren babesa *txikitzat*, eta horrek gizarte-kohesioa hobetzeko arloak iradokitzen ditu, hurrengo grafikoan ageri denez.

Azkenik, **tokiko merkataritzarekiko lotura** elementu osagarritzat hartzen da integrazio komunitarioa neurtzeko. Inkestatutako pertsonen % 34k dio *dezente* ezagutzen dituela auzoko saltokiak eta haien arduradunak, eta % 33,8k, *hala-hola* ezagutzen dituela. Azkenik, % 16,6k adierazi du *gutxi* ezagutzen dituela edo harreman txikia duela haiekin.

Herritarren topaketetan, parte-hartzaile batzuek adierazi zuten **auzoen arteko zatiketa fisikoa** oztopo bat dela Leioan nortasun kolektiboa eraikitzeko. Nahiz eta auzo bakoitzaren nortasun sendoa eta tokikoa izatearen sentimendua positiboki baloratu, herritarren aburuz, lurralde-konfigurazio sakabanatu horrek **zaildu egiten du gizarte-bizitzako nukleo komun bat sortzea**, kohesio global urria duen udalerrri segmentatu baten ideia indartuz.

Datu horiek iradokitzen dutenez, hiri-zatiketari lotutako **kohesio-gabezia ager badaiteke ere udalerrian**, badirudi **auzoetako familia- eta auzo-loturak aktibo daudela** eta eguneroko laguntza-sare bat eskaintzen dutela. Beraz, esan liteke **Leioan ez dela falta kohesio sozialik**, baizik eta lokalizatua dela, udal-identitate partekatu batean baino gehiago auzoetan zentratua, alegia.

Alde horretatik, parte hartu duten biztanleak bereziki kezkatuta daude **gazteriarekin, pixkanaka aldentzen ari baitira**; izan ere, beren bizitza pertsonala eta profesionala udalerritik kanpo garatzea aukeratzen dute askotan. Joera hori errotze ahularen eta toki-ingurunearekiko lotura eskasaren adierazletzat hartzen da, eta horrek nabarmentzen du beharrezkoa dela estrategiak ezartzea, Leioako bizitza komunitarioan jarraitzea eta parte hartzea sustatzeko.

3.2.4.2. Adinekoen zentroetan parte hartzea

Leioak adinekoentzako lau zentro ditu bere udal-mugartean banatuta, eta guztiek ere jarduera kultural, fisiko eta sozialez osaturiko programazio zabala eskaintzen dute: Lamiakoko erretiratuen etxea, Pinuetako erretiratuen etxea, Txorierriko erretiratuen etxea eta Errekaldeko erretiratuen etxea. Era berean, zentro horiek inklusio digitala sustatzen dute, prestakuntza teknologikora eta eten digitala murriztera bideratutako asteko prestakuntza-espazioen bidez. Jarraian, adinekoen zentro bakoitza deskribatuko dugu labur-labur⁹:

- **GARAI-TXORIERRI:** Garai-Txorierri elkarteak 132 bazkide inguru ditu, eta 100 eta 120 partaide aktibo bitartean (gehienak emakumeak). Eskaintzen dituen jardueren artean, yoga, dantza, egur-taillaketa eta gimnasia eta esku-lanetarako tailerrak nabarmentzen dira. Urtero karta-txapelketak, txokolatadak, txangoak, senidetasun-bazkaria eta erakusketak antolatzen dituzte. Elkarrekin berak eta Udalak bultzatutako hitzaldiak ere ematen dituzte bertan. Zentroa astelehenetik larunbatera egoten da zabalik, 11:30etik 20:30era, eta batzordeak astelehen arratsaldeetan ematen du arreta.
- **LAMIAKO:** 329 bazkide ditu, eta 150 eta 190 partaide aktibo bitartean. Taberna-zerbitzua eta zenbait jarduera eskaintzen ditu, hala nola yoga, tai jia/qi gonga, dantza, gimnasia, memoriako eta psikologia positiboko lantegiak, bingoa eta txapelketak. Hiru txokolatada, txangoak, urteroko bazkaria eta San Maximo eguna ospatzen dira. Hitzaldiak eta bisita kulturalak ere antolatzen dira. Zentroa astelehenetik ostegunera egoten da irekita, bi ordu-tartetan (10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara), eta batzordeak astelehen eta asteazken goizetan ematen du arreta (11:30etik 13:00etara).

⁹ Leioako adinekoen zentroetako arduradunak emandako informazioa.

- PINUETA: Pinueta da elkarterik jendetsuenetakoa. 1.960 pertsona daude izena emanda, eta horietatik 700 inguruk hartzen dute parte aktiboki. Emakumeen presentzia handiagoa da (1.297) gizonena baino (663); bestela esanda, emakumeen partaidetza % 66 ingurukoa da. Jatorriari dagokionez, Leioako pertsonen kopurua (1.044) handixeagoa da Getxokoena baino (1.016), baina aldea ez da nabarmena. Horrek adierazten du bi udalerriek antzeko inplikazioa dutela jardueran edo ekimenean. Pinuetak askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu, hala nola taberna, ile-apaindegia eta podologia. Era berean, askotariko jarduerak egiten ditu; esate baterako, dantza, yoga, gimnasia, joko tradizionalak, txangoak, dirulaguntzarik gabeko bidaiak eta zuzeneko musikadun ekitaldiak. Zentroa astelehenetik ostiralera egoten da irekita, goizez eta arratsaldez (09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara), eta batzordeak goizero ematen du arreta (10:00etatik 12:30era).
- ERREKALDE: Errekalde elkarteak 1.836 bazkide ditu eta 500 pertsona inguruk hartzen dute aktiboki parte. Bazkideetatik 1.165 emakumeak dira eta 671 gizonak. Askotariko zerbitzuak eskaintzen ditu: taberna, ile-apaindegia, dantza, memoria-lantegiak, pintura, euskara, matematika, abesbatza, txapelketak eta bingoa. Txangoak, urteko bazkaria, Gabonetako hamaiketakoa eta zenbait hitzaldi antolatzen ditu. Zentroa astelehenetik larunbatera egoten da irekita, goizez eta arratsaldez (10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara), eta zuzendaritza-batzordeak arratsaldez eman ohi du arreta (17:00etatik 19:00etara), bai eta astelehen goizetan ere (09:30etik 13:30era).

Herritarren topaketen esparruan, Leioako adinekoen zentroei buruzko pertzepzioak agerian uzten du erretiratuen parte batek ez dituela erabiltzen maiz espazio horiek, haien funtzionamenduari eta helburuari buruzko aurreiritziak direla eta. Horrek, halaber, justifikatu egiten du, itxura guztien arabera, adinekoen espazioetara joatea sustatzeko zailtasuna. Horri dagokionez, adinekoen zentroetan gehienbat emakumeek hartzen dute parte.

Aurrekoaren ñabardura gisa, adinekoen zentroetako jardueretan emakumeek parte hartzen badute ere gehienbat, batzordeetan gizonak dira nagusi. Lamiakon, esaterako, ez dago emakumerik batzordean, jarduera guztietan parte hartzen duten arren. Pinuetan eta Txorierrin, urteetan emakumeek gidatu badute ere, orain ez dago bakar bat ere batzordean.

Aurrekoarekin lotuta, herritarren topaketetan parte hartu dutenek azpimarratu dute birformulatu egin behar direla zentroak, erretiroa hartu berri dutenengana edo 60 urte edo gehiagokoengana iristeko bideak identifikatu behar direla, eta haien beharrak eta interesak aitortu behar direla. Parte-hartzaile batzuek azpimarratu dutenez, «gaur egungo adinekoak ez dira garai bateko adinekoak».

Azkenik, herritarren topaketetan aipatzen denez, adinekoen zentroetan, ikasleen guraso-elkarteetan eta emakumeekin lotutako baliabide edo zerbitzuetan gertatzen den bezala, emakumeen presentzia da nagusi. Bestalde, mahai gainean jartzen da, orobat, historikoki parte-hartze sozialetik bazterturik egon diren beste kolektibo batzuk —hala nola osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak— oraindik ere ez direla ageri elkarteetan eta baliabideetan.

3.2.4.3. Aisialdiko eta denbora libreko eskaintza

Leioak kultura- eta kirol-jardueren eskaintza askotarikoa dauka, eta horrek lagundu egiten du zahartze aktiboa, gizartearen partaidetza eta herritarren ongizatea lortzen. Ekimen horiek irisgarriak eta profil desberdinetara egokituak dira, eta kohesio komunitarioa indartzea eta aisialdi osasungarri eta inklusiboa sustatzea dute helburu.

Ildo horretan, Leioako Udaleko Kultura Sailak programazio askotarikoa antolatzen du urte osoan zehar espazio publikoan, auzoak dinamizatzen, herritarren parte-hartzea sustatzen eta kultura (tokikoa, tradizionala eta garaikidea) indartzera bideratutako jarduerekin. Hauek dira urteko egutegiko ekitaldi nagusiak:

- Ospakizun tradizionalak eta jai-ospakizunak: Errege Magoak, Santa Ageda, Maskarada, Gabonak eta Olentzero (abenduen 24an), Arimen Gaua (urriaren 31n).
- Inauteriak: haur eta helduentzat.
- Kaleko kultura-proiektuak: Kultura Kalera, Kultura Klean, Umore Auzoka (zenbait auzotan) eta Umore Azoka (arte eszenikoei eta umoreari eskainitako jaialdia).
- Gazteen arteari eta arte emergenteari loturiko proposamenak: Margolari Gazteak, Oporrak Leioan hasten dira.
- Jaialdiak eta azokak: Sanbar Leioa Blues Festival, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka (abenduen 14an, Boulevardean, Aketxen eta Errekalden).
- Gizarte-topaketak: auto klasikoen kontzentrazioa.

Gainera, auzoz auzoko herri-jaiak jai-batzordeekin eta auzo-elkarteekin lankidetzan antolatzen dira: Lamiako, Txorierri, Donibane, Erromo-Pinueta, Santi Mami, San Bartolome, Ondiz (bakailaoa eta aureskua barne), Udondo (paella-lehiaketa barne), Artatzagana (irailaren 19tik 21era, sartu berria), eta Txopoeta (irailaren 26tik 29ra).

Kaleko jarduerarekin batera, Leioako Udalak programazio egonkorra du udal-espazioetan, batez ere urritik apirilera bitartean, eta herritarren sektore guztietan indartzen du kulturarako sarbidea.

8. taula. Kultura Sailak eskainitako jarduerak.

Jarduera	Jardueraren deskribapena
Arte eszenikoak	Kultur Leioaren auditoriumak askotariko programazioa eskaintzen du: antzerkia, dantza, musika eta zirkua, esaterako.
Zinema	Urritik apirilera bitartean filmak proiektatzen dira, bi programazio-lerroekin: zinema komertziala (Udalak zuzenean kudeatua) eta zineforuma (Perseo Elkartarekin lankidetzan).
Erakusketak	Kultur Leioako erakusketa-aretoak bertako, Estatuko eta nazioarteko artisten lanak erakusten ditu urritik uztaile bitartean.
Arte-lantegiak	Herritarrei zuzendutako lantegi-sorta zabala eskaintzen da: puntua eta kakorratza, pintura, zaharberritzea, egur-taillaketa, kontakizun laburra, argazkia eta edizioa, jantzigintza, musikoterapia, zeramika, ehoziriak, eta dekorazio-arteak eta berrerabilera.
Pinueta ludoteka	Espazio honek haurrei zuzendutako jarduera ludiko-pedagogikoak eskaintzen ditu urte osoan zehar.
Gaztegune	Gazte-zentroak ikasketa-gela, aisialdi-jarduera zuzenduak eta gazteentzako informazio-bulegoa ditu. Gainera, udalekuak antolatzen ditu Gabonetako eta udako oporretan.
Udal-liburutegia	Ohiko mailegu- eta irakurketa-zerbitzuez gainera, liburutegiak beste zenbait jarduera ere antolatzen ditu: irakurketa-kluba (helduak), Ipuinaren Ordua (haurrak) eta liburu-azoka solidarioa (irailean).

Iturria: Leioako Udaleko Kultura Sailak emandako informazioa (2025).

Era berean, **San Bartolomeko eta Txorierriko kultur etxeek** askotariko kultur jarduerak programatzen dituzte auzo-elkarteekin lankidetzan, eta, horrela, auzoetako eskaintza kulturala osatzen dute.

Bestalde, Kirol Sailak jarduera fisikoen programazio askotariko eta jarraitua osatzen du, biztanleriaren profil desberdinak aintzat hartuta. Hala, osasuna, kirol inklusiboa eta herritarren partaidetza sustatzen ditu. Hona hemen urtean zehar (abuztuan izan ezik) antolatutako jarduera-eskaintza:

9. taula. Udalak eskainitako kirol-jarduerak.

Jarduera	Jardueraren deskribapena
Kirola eta familia	Belaunaldien arteko kirola sustatzera bideratutako jarduera.
Ibilketa nordikoa	Ibilketa teknikoak makilekin, aire zabaleko ariketa kardiobaskularra egitera bideratuak.
Ibilaldi osasungarriak	Jarduera fisiko neurritsua sustatzeko ibilbide irisgarriak.
Gazteak kirolean	Gazteei berariaz zuzendutako kirol-jarduerak.
Kalistenia	Aire zabaleko saioak, norberaren gorputz-pisuarekin entrenatzea ardatz dutenak.
Skateko prestakuntza	<i>Skateboardinga</i> praktikatzen hasteko eta hobetzeko eskolak.
Txuma eta Astorki Txirrindularitza Itzulia	Partaidetza-ikuspegia duten tokiko txirrindularitza-ekitaldiak.
Ibilbide osasungarriak	Ongizate fisikora bideratutako ibilbide gidatuak.
Eskubaloia Eguna	Kirol kolektibo hori sustatzeko kirol-jardunaldia.
Barruko eta kanpoko bizikleta	Txirrindularitza-jarduerak, bai aretokoak, bai espazio irekietakoak.
Zumba	Kirol-saioak gaur egungo musika latinoarekin.
Yoga parkean	Aire zabaleko yoga-eskolak, ingurune naturaletan gorputzaren eta buruaren arteko lotura sustatuz.
Bizikleta-festa haurrentzat	Haurrentzako jolas- eta kirol-jarduera, bizikleta protagonista dela.
Irteera 3 ermitetara	Osagai fisiko eta kulturala duen txangoa.
Orientatze-irteera	Naturan orientatzeko jarduera, kirol- eta hezkuntza-helburuak dituenak.
Herri-kirolak	Euskal herri-kirolen erakustaldia eta jarduera.
Boxeo-gaua	Lehiatzeko eta erakusteko ekitaldia.
M8ko (Emakumearen Nazioarteko Eguneko) jarduerak	Ginkana emakumeentzat, kalistenia eta skatea.

Iturria: Leioako Udaleko Kirol Sailak emandako informazioa (2025).

Bestalde, Kirol Sailak **65 urtetik gorako pertsonei zuzendutako gimnasia-saioak eskaintzen ditu** erregulariki, betiere haien gaitasunetara egokituta eta mugikortasunari eustera, erorikoak prebenitzera eta sozializaziora bideratuta. Jarduera horiek ordutegi hauetan egiten dira:

10. taula. Adinekoentzako kirol-jarduerak.

Jardueren ordutegia	
Astelehenetik ostegunera	Lehen txanda: 11:10-12:00
	Bigarren txanda: 12:10-13:00
Ostiralak (aire zabaleko saioak)	Lehen txanda: 11:10-12:00
	Bigarren txanda: 12:10-13:00


Iturria: Leioako Udaleko Kirol Sailak emandako informazioa.

- **Merkataritza eta ostalaritza**

Alde batetik, herritarren topaketetan parte hartu dutenek azaldu dutenez, **nolabaiteko merkataritza gabezia edo eskasia sumatzen dute**, eta horrek mugatu egiten ditu, oro har, Leioan bizi diren pertsonak. Gabezia hori izan daiteke bai saltokien eskasiagatik, bai lokalak ixten ari direlako —onlineko erosketen gorakadagatik edo udalerrian erosteko ohitura galdu delako—. Pinueta, Kandelazubieta, Lamiako eta Telleria eremuek, esaterako, oso saltoki gutxi dituzte. Herritarren pertzepzioaren arabera, merkataritza-jarduera batez ere Leioako eremu jakin batzuetan kontzentratzen da, hala nola Sabino Arana, Iturribide, Libano, Iparragirre eta Amaia inguruetan; udalerriko gainerako kale eta eremuetan, aldiz, nabaria da merkataritza-lokalen falta. Alde horretatik, herritarrek tokiko merkataritza sustatzea eskatzen dute, bereziki gazteen artean.

Bestalde, inkestan parte hartu duten pertsonak uste dute Leioako saltokiek jarrera ona dutela «saltoki lagunkoien» ekimenekin bat egiteko, eta, horri esker, ingurune irisgarriagoak sustatzen direla, pertsona guztien beharrei arreta hobe eman. Hala ere, pertzepzio positibo hori ez dator bat establezimenduetako eserleku eta bankuen gainean inkestetan jasotako iritziarekin. Horiek egotea funtsezkoa da saltokiotan eroso egoteko, bereziki adinekoak eta mugikortasun murriztua dutenak, eta benetako saltoki lagunkoiak lortzeko.

24. grafikoa. Establezimenduetan eserlekuak eta bankuak egoteari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, inkestan parte hartutako pertsonen % 14,6k iritzi positiboa du saltokietan dauden eserlekuei buruz (% 2,3k *asko* eta % 12,3k *dezente* daudela dio), baina % 36,3k uste du eserleku *gutxi* daudela. Gainera, % 32,5ek *hala-holakotzat* jotzen du halakoen eskaintza, eta % 13,6k *eskastzat*. Eserleku-falta hori oztopo handia izan daiteke adinekoak edo mugikortasun murriztua duten pertsonak merkataritza-establezimenduetan eroso egon ahal izateko.

Bestalde, garrantzitsua da azpimarratzea badirela zerbitzu batzuk, hala nola **Leioa Bidean**, saltokiek erosketak etxera bidali ahal izateko, edo Gizarte Politiketako Sailak bultzatutako **SolidaridUP proiektua**, 5 urte baino gehiagoko indarraldia duena, auzoen eta merkataritzaren elkartasuna bilatzen duena, eta, aldi berean, udalerriko merkataritzari laguntzen diona.


Taberna eta jatetxeei dagokienez, berriz, establezimendu horiek hiriaren erdigunean ari direla metatzen sumatzen dute parte-hartzaileek, eta auzoetan desagertzen ari direla. Foku-taldeek auzo askori eragiten dien arazo estruktural gisa identifikatzen dute hori, kontuan izanik ostalaritza erdigunean pilatzen dela. Hori horrela, udalerrian zehar banatzeko beharra ikusten dute.

- **Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak**

Aisialdiko eta denbora libreko udal-eskaintzari buruzko pertzepzioa ere aztertu zuten herritarren inkestek. Inkesten bidez lortutako datuek —aurrez azaldu dugun aisialdi-, kirol- eta kultura-jardueren eskaintzak lagunduta— agerian utzi dute, Leioan aisialdiko udal-

programazio zabala izanik ere, herritarren irisgarritasunari eta erabilera-mailari buruzko pertzepzioak alde nabarmenak ageri dituela biztanleria-sektore batzuetatik besteetara.

25. grafikoa. Aisialdiko eta denbora libreko jardueren eskaintzari eta aniztasunari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, % 9,5ek uste du ez dagoela *batere* jarduerarik, eta % 25,6k, berriz, *gutxi* dagoela. Bestalde, gehienek erdi-mailako balorazioa egin dute: % 35ek *hala-holakotzat* jotzen du eskaintza. % 22,5en iritzian, *nahiko* ona da, eta % 4,1enean, aldiz, *handia*. Eraitza horiek adierazten dute, jardueren aniztasuna aitortua bada ere, oraindik badagoela non hobetu.

Leioako **Udalaren aisialdi-jardueren prezioaren arrazoizkotasunari** buruzko pertzepzioari gagozkiola, balorazio positiboa ageri da gehienbat, baina hobetzeko tartearekin. Biztanleen % 6,9k uste du ez *direla batere arrazoizkoak*, eta % 20,2k ez *direla oso arrazoizkoak*. Hala ere, gehienak tarteko mailan ageri dira (% 37,1), eta *hala-holakotzat* jotzen dituzte. Gainera, % 25,8k *nahiko arrazoizkotzat* jotzen ditu jarduerak, eta % 6,1ek, azkenik, *oso arrazoizkotzat*. Datu horiek erakusten dutenez, nahiz eta jardueren prezioa biztanleriaren parte handi batentzat arrazoizkoa izan, oraindik badago parte hartzeko zailtasun ekonomikoak hautematen dituen segmentu bat, eta horrek iradokitzen du beharrezkoa dela lanean jarraitzea inklusioa eta sarbide unibertsala bermatuko duten politikan.

Inkestetan, biztanleek adierazi zuten **jarduera-eskaintza** ez dagoela beti ondo **egokituta eskaerara**. Ildo horretan, % 26,3k uste du eskaintzaren eta eskariaren arteko elkarrekikotasuna *txikia* dela, eta % 13,8k ez *dagoela* elkarrekikotasunik. Aldiz, % 2,3k soilik

uste du elkarrekikotasun-harremana oso *ona* dela, eta % 16,6k *nahiko egokia* dela. Hala ere, gehienak tarteko mailan ageri dira (% 37,1), eta *hala-holakotzat* jotzen dute. **Aire zabaleko jardueretarako espazioen** (hala nola kultur etxeen, antzokien eta kirol-zentroen) **kokapenari** dagokionez, inkestari erantzun dioten % 34k uste du *nahiko ondo* kokatuta daudela; ordea, % 14,6ren iritzian kokapena ez da oso egokia, eta % 6,9rean ez da batere egokia.

Azaldu berri diren datuez, herritarren topaketetan azpimarratzen da **aisialdi-eskaintzak — bereziki jarduera fisikoari eta kirolari lotuta—** kirol-instalazio gutxi dituela: «*itxarote-zerrendak daude etengabe*». Parte-hartzaileek adierazi dute kiroldegia txikitxo gelditu dela herritarrentzat, askotan itxarote-zerrendak sortzen direla eta ezin dela erabili. Parte-hartzaileek adierazi dute aukera mugatuak eta edukiera urria ikusten dituztela **kirol-aisialdiaren** alorrean, eta, batzuetan, jendea beste udalerrri batera joan behar izaten dela kirola egitera, itxarote-zerrendak tarteko —esate baterako, igeriketaren kasuan—. Adibidez, Pinuetako biztanle batzuk Erromora joaten dira zenbait kirol-jarduera egiteko.

Herritarren topaketetan, **udako igerilekuekin loturiko arazo bat ere sumatu da**: adierazi dute **azkar bete ohi direla**, edukiera dela eta. Nolanahi ere, asoziazionismo- eta lankidetzakimenak sumatzen dira udalerriko kirol-erakundeen artean. Horri dagokionez, kiroldegiaren proiektuak udalerriko elkarteekin batera jarraitu nahi du kirol-jarduerak sustatzen.

Bestalde, handiagoa da karta-txapelketetako edo -lehiaketetako partaidetzari buruzko pertzepzioa, jarduera horiek adinekoen zentroan egiten direnean. Ildo horretan, planteatu da Lamiakon antolatutako zenbait jarduera, hala nola igel- eta putxera-txapelketak, beste auzo batzuetan errepikatzea, komunitatean inplikazio handiagoa izateko.

Azkenik, herritarren topaketetan adierazi da adin-talde jakin batzuek, **batez ere 14 eta 55 urte bitartekoek interes txikiagoa dutela kultura-jardueretik**, batez ere arte eszenikoen esparruan. Hala ere, ikusi da segmentu hori ohiko publiko bihurtzen dela erretiroa hartu ondoren. Gainera, positiboki baloratzen da «Munduko Arrozak» eta beste zenbait jarduerak izandako harrera ona: parte-hartze handia sortzeaz gainera, gazteak erakartzea ere lortzen dute.

Azkenik, hautematen da erretiratuen elkarteak interes handia pizten duen jarduera-sorta zabala eskaintzen duela —kasu batzuetan, itxarote-zerrendak izaten dira—. Hala ere, Leioako adinekoen elkarteetan aktiboki parte hartzeari buruzko datuek aldakortasun nabarmena erakusten dute: erakunde txikiak daude, Garai-Txorierri, adibidez, 100 eta 120

inguru pertsona aktiborekin, eta handiak, Pinueta eta Errekalde, esaterako, 500 eta 700 parte-hartzaile baino gehiagorekin, hurrenez hurren. Aniztasun horrek iradokitzen du, eskaera handia izan arren, alde nabarmenak daudela harrera-gaitasunean, zerbitzu-aniztasunean eta zentro bakoitzak eskuragarri dituen baliabideetan.

3.2.5. Errespetua eta gizarteratzea

Adinekoenganako pertzepzioak, portaerak eta jarrerak funtsezko faktoreak dira haiekiko errespetua bermatzeko eta hiri baten lagunkoitasuna hobetzeko. Gaur egungo gizartean, **adinkeriak** (zahartzeari lotutako estereotipoek eta aurreiritziek) errealitate izaten jarraitzen du, eta mugatu egiten ditu adinekoen kolektiboaren autoerrealizazioa eta ongizate soziala. Arazo horren aurrean, Bizkaiko lurraldean dagoen Leioak **belaunaldien arteko ekimenak** bultzatu ditu, erantzun estrategikoa direlakoan, kohesio komunitarioa sustatzeko, belaunaldien arteko elkarriketaren eta lankidetzaren bidez nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko eta zahartze aktiboa sustatzeko.

2024ko otsailaz geroztik, Leioako Udaleko Gizarte Politiken eta Adinekoen Sailak **belaunaldien arteko topaketak** antolatzen ditu. Haietan, udalerriko historiarekin loturiko gaietan oinarritutako oroitzapenak eta jakintzak trukutzen dituzte adinekoek eta 12 eta 13 urte bitarteko ikasleek. Saio horietan, bakardadea eta udalerriko memoria historikoa jorratu dituzte, bereziki, profesional espezializatuen eskutik. Haien helburua da jakintzak transferitzea eta hausnarketa sustatzea, guztiontzako etorkizun-ikuspegi bat eraikitzeko, eta, horrela, adinari lotutako estereotipoak eraisten eta belaunaldien arteko errespetu handiagoa sustatzen laguntzeko. Etorkizuneko ekintza-ildo gisa, horrelako ekimenak egiten jarraitzea eta sendotzea planteatzen du Sailak, belaunaldien arteko proiektuekiko konpromisoa sendotuz, gizarteratzeko eta elkarrengandik ikasteko tresna gisa.

Ekimen horiekin, Leioak konpromiso sendo eta eredugarria erakusten du zahartzeari buruzko pertzepzioak eraldatzeko, eta, ildo horretan, belaunaldien arteko errespetua, lankidetzaren eta elkartasuna funtsezko zutabe bihurtzen dituen komunitate-eredu bat bultzatzen du.


Jarraian, herritarrek errespetuaren eta gizarteratzearen arloan identifikatutako gai nagusiak jorratu eta jasoko dira.

Inkestan parte hartu duten biztanleek, oro har, **errespetua sumatzen dute adinaren, generoaren eta egoera pertsonalaren aurrean**, eta horrek adierazten du itxuraz ez dagoela adinkeriarik Leioako biztanleen artean. Alabaina, garrantzitsua da zehaztea biztanleriaren parte batek ez duela sentitzen errespetatua denik administrazioan, banketxeetan edo arlo profesionalean.

Inkesten emaitzek pertzepzio kontrajarria erakusten dute Leioan **adinekoekiko errespetuari** buruz (ikusi 26. grafikoa). Inkestari erantzun dioten % 37,6k uste du

jendeak ez dituela behar adina errespetatzen, eta % 37,3k uste du *nahiko errespetatua* dela. Dualtasun horrek iradokitzen du beharrezkoa dela adinekoen integrazio eta aintzatespen handiagoa sustatuko duten espazioak eta jarduerak sortzea, bai eta komunitate osoak balioesten eta errespetatzen dituela ziurtaraztea ere.


26. grafikoa. Hirugarren adineko pertsonetikiko errespetuaren gaineko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Parte hartu duten herritar batzuek adierazi dutenez, **ados daude eguneroko diskriminazio-egoeren aurrean errespetua nabarmentzen eta ikusarazten duten kanpainak eta ekimenak sustatzearekin**. Zenbait lagunek topaketetan adierazi dutenez, gizarteak balioak galdu ditu, eta beharrezkoa da herritarrei zuzendutako ekintzak egitea, errespetuari eta tolerantziari buruz kontzientzia pizteko.

27. grafikoa. Belaunaldien arteko harremanen kuantitateari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Belaunaldien arteko harremanak sustatzeari dagokionez, inkestek erakusten dute **parte-hartzaileen % 35,5en ustez** Leioan *hala-holakoak* dira belaunaldien arteko harremanak; hau da, **nahikoa aukera eta ekimen** daude topaketa horiek sustatzeko. Hala ere, inkestatuen % 27,1ek uste du *urriak* direla belaunaldien arteko ekimenak. Datu horrek iradokitzen du egokia litzatekeela beste leku batzuetako jardunbide egokiak erreplikatzeari, belaunaldien arteko lotura indartzeko eta komunitate kohesionatuago bat sustatzeko.

Horri dagokionez, topaketetan nabarmendu da egoitzetan kirola sustatzearen bidez egiten direla beste udalerrri batzuetan belaunaldien arteko topaketak. Era berean, **iradoki da eskola-orduetan egitea belaunaldien arteko jarduerak**, hala nola belaunaldien arteko irteerak eta ibilaldiak, gazteen parte-hartzea sustatzeko. Adibidez, Txomin Aresti ikastetxeak bisitak egiten ditu eguneko zentrori. Leioako herritarrek ondo baloratzen dute ekimen hori, herritarrengan eta parte-hartzaileengan duen eragin positiboagatik.

Jaiei alorrean, parte-hartzaileek adierazi dutenez, talde guztiak kontuan hartzen badira ere, gazteak dira Leioako jai-programaren arretagune nagusia, nahiz eta kultura zeharkako ardatza izan.

Atzerriar jatorriko pertsonetako edo migratzaileetako harremanez, haiekin ez dagoela harremanik hauteman da topaketetan. Badirudi benetakoa dela atzerriarrekiko edo nazionalitate desberdinetako pertsonetako harreman-gabezia hori, eta, azpimarratu dutenez, egoera hori landu egin behar da, hausnarketa honek islatzen duenez: «*Bada deigarria egiten zaidan kontu bat: parte hartu nahi ez duten adinekoei edo gaixotasun mentala dutenei buruz hitz egiten dugunean, ez dugu pentsatzen integratu nahi ez dutenik. Soluzioak bilatzen ditugu parte har dezaten. Alabaina, etorkinen kasuan, ez dutela integratu nahi esaten dugu*».

Illo horretan, desadostasunak nabaritzen dira herritarren topaketetan parte hartu dutenen artean. Parte-hartzaile batzuek azpimarratzen dutenez, erantzukizun kolektiboak garrantzia du **harrera- eta bizikidetzaguneak** sortzeko orduan. Horren harira, Gizarte Politiken Sailak helburu hori duten ekimenak garatu ditu; adibidez:

- Kultur Aniztasunaren Astea
- Giza Liburutegia
- Munduko Arrozak
- LOTURAK EMAKUMEOK programa (udalerrian emakumeen arteko harrera sustatu nahi duen ekintza)

Aipatutako jardueraz gainera, Gizarte Politiken Sailak badu Harrera Zerbitzu bat.

Dena den, izan da pertzepzio kritikorik ere: batzuek uste dute atzerritar batzuk ez direla saiatzen integratzen, eta horrek agerian uzten du jarraitu egin behar dela ingurune inklusiboak eta sentsibilizazio-espazioak sustatzen. Sortarazi, adibidez, buru-belarri ari da migratzaileen errealitatea ikusarazteko eta haien inklusioa bultzatzeko. Atzerritarrekiko harremanean adierazitako zailtasun nagusiei erreparatuta, badirudi arrazoi hauek direla tartean:

- Arrakala ekonomikoa eta prekarietate-egoera
- Hizkuntza-arrakala
- Arrakala soziala
- Arrazakeria-arazoa
- Integrazio-falta
- Ikusezin bihurtzea

3.2.6. Herritarren parte-hartzea eta enplegua

Prestakuntza-maila eta enplegua lotuta daude, ez dago zalantzarik. Hain zuzen, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (ELGAK) *Education at a Glance 2023* azken txostenean azpimarratu duenez, **zenbat eta prestakuntza-maila handiagoa** izan pertsonak, orduan eta **lan-aukera hobeak** izango ditu.

Alde horretatik eta 11. taulan azaltzen denez, Eustatek jasotako azken datuek (2021. urteari dagozkionak¹⁰) erakusten dute 2013-2021 aldian **Leioako herritarren prestakuntza-mailak** aldaketak izan dituela. Alde batetik, behera egin du biztanle analfabetoen, ikasketarik ez dutenen edo lehen mailako ikasketak dituztenen kopuruak. Aldi berean, gora egin du lanbide-ikasketak eta goi-mailakoak dituzten biztanleen kopuruak.

11. taula. Leioako 10 urteko edo gehiagoko biztanleen prestakuntza-mailaren bilakaera (2013-2021).

	2013	2014	2015	2016	2018	2019	2020	2021
Guztira	27.373	27.422	27.474	27.707	27.798	28.111	28.393	28.922
Analfabetoak	75	68	63	62	51	49	45	43
Ikasketarik gabe	468	454	434	414	402	377	358	364
Lehen mailakoak	7.758	7.627	7.560	7.477	7.091	6.986	6.946	6.876
Profesionalak	4.347	4.437	4.491	4.600	4.704	5.012	5.188	5.314
Bigarren mailakoak	6.449	6.412	6.459	6.425	6.507	6.451	6.354	6.588
Erdi- eta goi-mailakoak	2.371	2.314	2.262	2.350	2.291	2.245	2.217	2.237
Goi-mailakoak	5.905	6.110	6.205	6.379	6.752	6.991	7.285	7.500

Iturria: Eustat (2025).

Leioako biztanleriak **prestakuntza-mailan izan duen goranzko bilakaera** interesgarria da; izan ere, prestakuntza-maila handiagoak enplegu-tasa handitzea ekar dezake eta, ondorioz, erosahalmenak ere gora egitea. Horren harira, ELGAK (2023) erlazio bat ezartzen du biztanleria-talde baten hezkuntza-maila handiaren eta lurraldearen langabezia-tasa txikiaren artean.

¹⁰ Eustatek prestakuntza-mailaren bilakaerari buruz emandako informazio berriena 2021ekoa da. Eguneratze-data: 2025eko ekainaren 12a.

Eustaten arabera (2025), lan-merkatuari buruzko datuek aldaketa nabarmenak deskribatzen dituzte 2010-2023 aldiko langabezia-tasen bilakaera progresiboan¹¹. Hala, punturik altuena 2015ean izan zen, % 15,1eko langabezia-tasarekin; 2023an, aldiz, % 7,8koa izan zen.

12. taula. 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren langabezia-tasa Leioan.

	2010	2015	2016	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Guztira (%-a)	10,0	15,1	14,3	10,7	9,5	9,4	10,4	9,3	7,8
Gizonak (%-a)	10,6	15,5	13,3	10,1	8,5	8,4	9,5	8,5	7
Emakumeak (%-a)	9,2	14,6	15,4	11,4	10,6	10,5	11,3	10,1	8,7

Iturria: Eustat (2025).

Era berean, lan-merkatuari buruzko datuek aldaketa nabarmenak deskribatzen dituzte 2016-2023 aldiko okupazio-tasen bilakaera progresiboan: punturik altuena 2023. urtean izan da, % 55,2ko okupazio-tasarekin, eta 2016an, aldiz, % 51,9koa izan zen.

13. taula. 16 urteko eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasa Leioan, sexuaren arabera.

	2016	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Guztira (%-a)	51,9	53,1	53,7	53,8	52,9	54	55,2
Gizonak (%-a)	56	56,8	57,6	57,3	56	56,7	58
Emakumeak (%-a)	48	49,8	50,2	50,5	50,1	51,4	52,6

Iturria: Eustat (2025).

2016tik aurrera **okupazio-tasak poliki-poliki gora** egin badu ere, aldeak daude sexuaren arabera, emakumeek gizonak baino **okupazio-tasa txikiagoak** baitituzte oraindik ere.


Beste alde batetik, Leioako batez besteko errenta pertsonala 21.458 eurokoa da 16 urteko eta gehiagoko biztanleriarentzat (2022ko datuen arabera), eta **2012-2022 aldian**¹² **gora egin du** (ikusi 28. grafikoa).

¹¹ Eustatek langabezia- eta okupazio-tasei buruz emandako informaziorik berriena 2023koa da. Eguneratze-data: 2025eko ekainaren 12a.

¹² Eustatek batez besteko errentari buruz sexuaren arabera emandako informaziorik berriena 2022koa da. Eguneratze-data: 2025eko ekainaren 12a.

Kasu horretan ere, **generoaren arabera errentan dauden desberdintasunek** erakusten dutenez, aipatutako hamarkadan emakumeen errentak gora egin duen arren, gizonena baino nabarmen txikiagoa izaten jarraitzen du: udalerriko emakumeen batez besteko errenta 17.524 eurokoa da, eta gizonena, berriz, 25.718 eurokoa.

28. grafikoa. Batez besteko errenta pertsonala Leioan, sexuaren arabera, 2004-2022 aldian.



Iturria: Eustat, Errenta pertsonalaren eta familiarren estatistika (2025).

Eztabaiaezina da pertsonen egoera ekonomikoa eta lan-egoera lotuta daudela, eta, ondorioz, baita haien partaidetza soziala ere. Ildo horretan, herritarren parte-hartzearen eta enpleguaren arloan identifikatutako gai eta ideia nagusiak aurkeztuko dira jarraian.

3.2.6.1. Herritarren parte-hartzea

Herritarren topaketetan bildutako informazioak erakusten duenez, herritarren partaidetza aktibo txikia sumatzen dute parte-hartzaileek. Ildo horretan, inkestan esku hartu dutenek hauteman dute **partaidetza-maila eskasa** dela eta **ez dagoela parte hartzeko kultura sendorik**. Balorazio subjektiboak badira ere, iritziz horiek informazio baliotsua ematen dute, tokian-tokian partaidetza nola bizi eta interpretatzen den jakiteko. Hori lagungarria izan daiteke etorkizuneko estrategiak bideratzeko eta, hala, partaidetza-sarea indartzeko.

Hautematen da, orobat, ez dela lortu herritarren artean boluntarioritza-kultura behar bezala barneratzea, eta parte-hartze txikia ez dela ezagutza-faltaren ondorio, ezpada konpromiso- eta dedikazio-maila handia behar izateagatik. Eta denak ez daude prest hori beren gain hartzeko. Era berean, sumatzen da oro har errekonozimendu txikikotzat hartzen dela borondatezko lana. Ildo horretan, boluntario batzuk haserre agertu dira,

batzuetan erabiltzaileen kexa edo jarrera negatiboei aurre egin behar izaten dietelako, eta horrek zalantzan jartzen du egoera jakin batzuetan duten inplikazioaren zentzua.

Parte-hartzearen pertzepzioan ageri diren alde nagusiak eremuaren eta auzoaren arabera identifikatzen dira. Lehenengo kasuan, jaien arloa da partaidetza-tasarik handienak dituen sektorea, gizartearen eta asoziazionismoaren eremuekin alderatuta. Leioan hirugarren sektoreko mahaia eta hura osatzen duten erakundeak izan arren (boluntario-lana handia da udalerriko ekimenetan), asoziazionismoa lantzeko beharra duen sektoretzat hartzen da.

Bigarren kasuan, parte-hartzearen inguruko pertzepzioa oso desberdina da auzoaren arabera. San Bartolomereren kasuan, badirudi badela nolabaiteko konpromisoa; Donibane berpizten ari den auzo gisa deskribatzen dute, baina beti pertsona berak joaten direla bertara. Bereziki azpimarratzen da Lamiako auzoa, salbuespen gisa. Lamiakoko bizilagunen partaidetzari buruzko pertzepzioa da herritarrek inplikatura daudela auzoan, eta ez jai-gaietarako soilik. Badirudi identitate- eta pertenezia-sentimenduaren ondorio dela hori.

Herritarren **partaidetza-ezari lotutako muga eta zailtasun** nagusien artean, funtsezko zenbait gai identifikatzen dira. Lehenik eta behin, belaunaldien arteko erreleborik ez dagoela adierazten da, alde nabarmena baitago belaunaldien arteko partaidetza-mailetan. Ildo horretan, azpimarratzen da beharrezkoa dela komunitatearen egungo beharren azterketa sakon eta zehatza egitea, helburu gisa harturik laguntza-sareak eta konpromiso kolektibo txikiak sortzeko estrategiak diseinatzea, boluntariora-kultura zabalago eta jasangarriago bat sustatzera bideraturik.

Adibide argigarri gisa, ANDRAK ekimenaren esperientzia aipatzen da. Haren sorrerako motibazioa gaingidutzat jotzen da gaur egun (hasiera batean, emakumeak etxetik ateratzeko beharrari erantzuteko sortu zen), eta jada ez da nahikoa pizgarri belaunaldi berriak erakartzeko.

Ildo horretan, parte hartzen duten biztanleek funtsezkotzat jotzen dute azken aldaketa sozialak aztertzea, partaidetza komunitarioan eragiten duten heinean. Bi belaunaldi-profil nagusi identifikatu dira: (i) 40 urte inguruko belaunaldia, gaztaroan oso aktiboa izan dena baina gaur egun familia-erantzukizunen karga handia duena, guraso direlako eta seme-alabak dituztelako beren ardurapean, eta, beraz, mugatuta daukana prestasuna; eta (ii) belaunaldi gaztea, 35 urtetik beherakoa, konpromiso aktiboa baina irregularra duena eta batez ere kanpaina puntualetan parte hartzen duena, baina epe luzerako konstantziarik

gabe. Gainera, onartzen da egungo gazte-mugimenduak oso desberdinak direla mugimendu klasikoetatik, eta, beraz, haien dinamiketara eta parte hartzeko moduetara egokitutako berariazko estrategiak eta baliabideak behar direla.

Bestalde, **partaidetza-prozesu jakin bati** dagokionez, parte-hartzaile batzuek adierazi zuten eskatutako konpromiso-maila (hala nola alde zuzenetik izena eman beharra edo bileretan izenarekin identifikatu beharra) oztopo izan daitekeela pertsona jakin batzuk inplikatzeko. Iritzi hori ez da herritarren parte-hartzeari buruzkoa, oro har, baizik eta prozesu espezifiko horren baldintza bereziei buruzkoa.

Parte-hartzaileek adierazi dute herritarren partaidetzak denbora eta nolabaiteko konpromisoa eskatzen dituela, eta, horregatik, **prozesu malguak diseinatu** behar direla, **inplikazio-maila desberdinak kontuan hartuko** dituztenak. Alde horretatik, nabarmentzekoa da gaur egun badirela zenbait gune ireki, herritarrak beren aukeren eta interesen arabera inplikatu ahal izateko; hala, parte-hartze zabalagoa eta inklusiboagoa ahalbidetzen da.

Herritarren partaidetza eta boluntariora sustatzeaz, prozesu horien erronka nagusiei buruzko pertzepzio errepikari bat adierazi dute parte-hartzaileek. Adierazten dutenez, ageriko oztopoa da erakundeekin eraginkortasunez lan egiteko zailtasuna, eta horrek mugatu egiten ditu herritarrek sustaturiko ekimenen arintasuna eta arrakasta.

Parte-hartzaileek nabarmentzen dutenez, baliteke akatsa izatea partaide-kopuruari soilik erreparatzea, askotan onuragarriagoa baita bi noranzkoko elkarriketa aberasgarria erraztuko duten eztabaida-ereduak sustatzea. Adibide gisa, Leioa Lagunkoia topaketak aipatzen dira, zeinak positiboki balioesten baitira, elkarriketa hurbila eta eraginkorra bultzatzen dituzten espazioak diren heinean.

Hala, herritarren topaketetan parte hartu zutenek iritzi eta pertzepzio bereziak adierazi zituzten; hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

- Partaidetza-prozesuek kupo mugatuak ezartzen dituzten kasuetan, interesgarria litzateke prozesu horiek bikoiztea, nahi duen orori prozesuan sartu eta integratzea ahalbidetzeko.
- Prozesu horien emaitzei eta aurrerapenei buruzko itzultze argi eta gardenak egitearen garrantzia.
- Parte hartzearen kultura sortzeko beharra, eta azken produktua baino gehiago balioestea prozesua eta egindako bidea.

Bestalde, **desadostasunak** ageri dira **partaidetza ordaindu beharko** litzatekeen ala ez aztertzean. Batzuek azpimarratzen dute konpromisoa izan behar dela abiapuntua, eta ez ordainsari bat —esate baterako, ekitaldi batzuetan jartzen diren luntxak—. Hala ere, aitortzen da parte-hartzea erakartzeko bitarteko bat dela.

Herritarren parte-hartzearen inguruan bertaratuek adierazitako pertzepzioak iradokitzen duenez, beharrezkoa da Leioako biztanleak adoretzea, udal-ekimenetan aktiboki parte har dezaten. Ildo horretan, azpimarratzen da parte hartzea betebehar bat dela, erantzukizun bat, erabakiak hartzeko eta komunitate-aldaketetarako prozesuetan. Iritzi subjektibo horrek nabarmentzen du garrantzitsua dela herritarren eta Udalaren arteko lotura indartuko duten estrategia berriak identifikatzea eta garatzea, kontuan izanik etsipena eta desatxikimendu-sentimendua agertu dela toki-administrazioarekiko.

Era berean, ikusten da Herrigune Leioa nahiko ezezaguna dela biztanle askorentzat. Ikuspegi horretatik, balioesten da espazio hori tresna baliagarria izan litekeela ikaskuntza-prozesu kolektiboak aktibatzeke eta ongizate komunitarioan lagunduko duten ekimenak sustatzeko, nahiz eta oraindik ez dagoen erabat aitortuta edo aprobetxatuta haren potentziala.

3.2.6.2. Enplegua eta erretiroak

Udalerriko **enpleguari eta lan-aukeren** inguruan, Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Turismo Sailak, **Behargintza Leioaren** bitartez, **prestakuntza, enplegua eta ekintzailatza sustatzeko ekintzak garatzen ditu**, bai eta **udalerriko merkataritza eta enpresa-sarea babestera** bideratuak ere, edozein neurritakoak direla ere. Hori guztia **Leioa proiektu komun gisa hartuta** egituratzen da, non tokiko eragileen arteko lankidetzak eta udalerriko jarduna erabakigarriak diren geldialdi ekonomikoari aurre egiteko (Behargintza Leioa, datarik dabe).

Beraz, esan daiteke Leioak egitura sendoa eta baliabide eraginkorrak dituela udalerrian enplegua eta garapen ekonomikoa bultzatzeko, eta horrek erakusten du Udalak eta bere agente laguntzaileek badutela konpromisoa lan-aukerak sustatzeko eta udalerriko enpresa-sarea indartzeko. **Udalerriko enpleguaren eta lan-aukeren** gainean, herritarren topaketetatik lortutako erantzunek erakusten dute lan-aukera ugari daudela; alabaina, zalantzan jartzen da enplegu horien egonkortasuna.

Herritarren arteko topaketetan, desadostasunak antzeman dira enplegua Leioan bertan eskuratzeari buruz; izan ere, batzuek uste dute beharrezkoa dela udalerritik kanpo joatea lana aurkitzeko. Pertzepzio horrek iradokitzen du badela nolabaiteko kezka tokiko lan-

aukeren nahikotasunari buruz. Hala ere, Garapen Hiri Behatokiaren datu ofizialek (2025) eta aldez aurreko azterketek errealitate positiboagoa erakusten dute.

14. taula. Erregistratutako kontratatuen eta langabeen hileko bilakaera (EEZP).

	Kontratuak (urtekoak)	Langabeak (urtekoak)
2020	11.959	1.828
2021	16.066	1.676
2022	15.040	1.537
2023	11.130	1.428
2024	12.917	1.447

Iturria: Garapen Hiri Behatokia (2025).

Aurreko taulak erakusten duenez, 2020tik 2024ra bitarteko enplegu-datuek bilakaera positiboa eta itxaropentsua dute. Bost urte hauetan, langabe-kopurua jaitsi egin da arian-arian, 2020an 1.828 izatetik 2024an 1.447 izatera igaro baita; hau da, % 21 inguruko murrizketa gertatu da. Jaitsiera iraunkor horrek enplegua eskuratzeko bideak apurka-apurka hobetu direla isla dezake (Garapen Hiri Behatokia, 2025).

2020an pandemiak izan zuen inpaktu handiaren ondoren, 2021ean inflexio-puntu bat ezarri zen, eta nabarmen handitu zen erregistratutako kontratu-kopurua (16.066). Ekonomia azkar suspertu zela utzi zuen horrek agerian. Hurrengo urteetan kontratubolumenak aldaketa batzuk izan baditu ere, 2024ko zifrak (12.917 kontratu) aztertutako aldiaren hasierakoak baino handiagoak dira oraindik, eta, horrela, finkatu egin da susperraldi iraunkorraren joera (Garapen Hiri Behatokia, 2025).

Laburbilduz, **herritarren pertzepzioak tokiko enpleguari buruzko nolabaiteko ziurgabetasuna** edo asegabetasuna islatzen du. Alabaina, **datuek agertoki positiboa erakusten dute:** lan-merkatuak sendotasuna eta egonkortasuna ageri ditu, eta ingurune ekonomikoak, aldaketetara egokitzeko gaitasuna.

Era berean, nabarmendu da Behargintzak urtean 40 lan-eskaintza inguru jasotzen dituela. Dena den, zehaztu da eskaintza horiek ez direla eskuragarri dauden lanpostu huts guztiak, eskaintzarik gehienak beste kontratazio-kanal batzuetatik zabaltzen baitira, hala nola kontaktu-sareetatik edo praktika-programetatik. Oro har, bide horiek agortu ondoren langile egokirik aurkitu ez duten lanpostuei dagozkie Behargintzak kudeatutako eskaintzak. Planteatutako adibide argigarri bat hauxe izan zen: bete gabeko lanpostubolumen handia ageri dela teknikari-lanpostu komertzialetan.

Herritarren pertzepzioa kontuan harturik, nabarmentzekoa da lan-orientatzailearen rola garrantzi handia duela langabeei laguntzeko funtsezko figura gisa. Iritzi horri erantzunez, parte-hartzaileek adierazi dute beharrezkoa dela haien lanaren ikusgarritasuna indartzea informazio-kartelak eginez eta banatuz, langabeek baliabide hori erraz eskura dezaten eta lanbide-orientazioko zerbitzuetan parte-hartze handiagoa izan dezaten sustatzeko.

Hedapen-estrategia horren ildotik¹³, herritar guztiei zuzendutako postontzi bidezko bi banaketa-kanpaina egiten ditu **Behargintzak**, urtean zehar, prestakuntza-eskaintza zabaltzeko eta eskuragarri dauden zerbitzu guztiak sustatzeko, orientazio zerbitzua barne. Ekintza horien osagarri, Behargintzak presentzia aktiboa du sare sozialetan —Instagram, Facebook, LinkedIn, Twitter eta webgune ofiziala—, eta, horri esker, posible da komunikazio instituzionala indartzea eta informazio-dukien irismena herritarren artean zabaltzea.

Jarduera ekonomikoaren sektore-banaketari dagokionez, Leioan nabarmena da hirugarren sektorearen indarra. 2022an¹⁴, zerbitzuen sektoreak kontzentratu zuen udalerriko **balio erantsi gordin (BEGd) osoaren % 81,8**, eta horrek agerian uzten du sektore horretatik datozen tokian-tokian sortutako balio ekonomikoaren lau bosten baino gehiago (Eustat, 2022). Datu horrek berretsi egiten du tokiko ehun ekonomikoak hirugarren sektorearekiko duen mendekotasun handia, eta udalerriko motor ekonomiko nagusi gisa finkatzen du.

Nagusitasun hori islatzen da lan-merkatuan ere. **Zerbitzuen sektoreak** du Leioan enplegu-bolumenik handiena, eta joera hori bat dator Estatuko udalerri gehienetan ikusitako dinamika orokorrarekin. 2025ean, **sektore horrek biltzen zituen kontratu guztien % 88,7, eta udalerriko enpresen % 89,7** (Garapen Hiri Behatokia, 2025). Kategoria horretan askotariko jarduerak biltzen dira, hala nola merkataritza, ostalaritza, garraioa, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna edo zerbitzu profesionalak.

Bestalde, herritarrekin izaniko partaidetza-prozesuan jasotako pertzepzioak berretsi egiten du errealitate hori. Parte-hartzaileek zerbitzuen sektorea identifikatu dute udalerriko enplegu-sortzaile nagusi gisa. Nabarmendu dute zeharkakoa dela eta askotariko arlo eta profil profesionalak integratzeko gaitasuna duela.

¹³ Behargintzak emandako informazioa.

¹⁴ Eustatek balio erantsi gordinari buruz emandako informaziorik berriena 2022koa da. Eguneratze-data: 2025eko uztailaren 7a.

Ostalaritza-sektorearen harira, herritarren topaketetan nabarmendu da ezen, alor horretako enpleguak nahiko egonkorra dirudien arren, ziurgabetasun-pertzepzioak ageri direla lanpostu horiei lotutako lan-kalitateari eta ordainsariei dagokienez. Hala ere, onartzen da baldintza horiek nabarmen alda daitezkeela enplegatzailearen arabera, eta, beraz, ez direla erabat orokortu behar.

Zerbitzu-sektorearen nagusitasun argiaren beste aldean, Leioako **industria sektoreak** presentzia sinbolikoagoa du lanaren alorrean. Biztanleek udalerriaren garapenerako historiko eta garrantzitsutzat hartzen dituzte enpresak. Hala ere, gaur egun txikia da horiek enpleguan duten pisua: 2025ean, kontratuen % 9 baino ez zegoen sektore horri (Garapen Hiri Behatokia, 2025). Dena den, zuzeneko enpleguaz haratago, industriak eginkizun estrategikoa betetzen jarraitzen du tokiko ekonomian. Hain zuzen ere, udalerriko balio erantsi gordinaren (BEGd) % 15,6 osatzen du, zerbitzuen sektoreak (Eustat, 2022) sortutako % 81,8aren aldean, eta horrek erakusten du garrantzia duela ekoizpen-ehunaren barruan eta ekarpen estrukturala egiten diola Leioako garapen ekonomikoari.

Herritarrek egindako topaketen esparruan, behin eta berriz agertu da pertzepzio bat: **tokiko fabrikek lehentasuna eman behar diote udalerriko biztanleak kontratatzeari**. Hainbat parte-hartzailek adierazi dute iritzi hori, eta iradokitzen du industria-enpresen eta tokiko komunitatearen arteko elkarrikereta- eta lankidetzak sustatzeak laneratze handiagoa sorraraz lezakeela. Ildo horretan, proposatzen da enpresen eta biztanleen arteko zuzeneko hartu-emana sustatuko duten aldizkako topaketak antolatzea, industria-sektorean ez ezik, udalerriko beste eremu ekonomiko batzuetan ere enplegu-aukerak zabaltzeko.

Herritarren topaketen esparruan, askotariko pertzepzio eta iritziak jaso ziren **enpleguaren kudeaketari eta udalerriko prestakuntzari** buruz. Behargintzak etengabeko harremana du inguruko enpresekin, eta kontratazioaren zein prestakuntzaren arloan dituzten beharrei erantzuten die. Horretarako, enplegu-eskaintzak kudeatzen ditu, eta enpresen eskakizunei erantzuten dieten prestakuntza-ekintza espezifikoak diseinatzen, enpresei arreta emateko teknika espezializatu bat baliatuz.

Pertzepzio horiekin jarraituz, zenbait sektoretan duten esperientzia zabalarari esker **erretiratuek baliabide profesional gisa duten indarra** aitortzen da. Nabarmendu zen tokiko enpresetatik etorritako erretiratu-kopuru handi batek laguntza- eta aholkularitza-zerbitzuak eskaini diezazkiokeela komunitateari, baita zenbait erakunderi ere. Ildo horretan, ekarpen profesional horiek SECOT eta beste zenbait erakunderen bidez

kanalizatzeko aukera aipatzen da, tokiko garapenean ez ezik, ekoizpen- eta gizarte-sarea indartzen ere laguntzeko.

Aldi berean, agerian geratu da **eraikuntza- eta zaintza-sektoreetako langileen profilari buruzko kezka**. Parte-hartzaileek adierazitako iritzien arabera, lanpostu horiek atzeritarrek betetzen dituzte gehienbat, eta horrek hausnarketa eragiten du pertsona horiek gizarteratzeari eta tokiko biztanleek eremu horietan dituzten laneratzeko aukerei buruz.

Zainketen sektorea egiturazko zailtasun ugari dituen eremutzat hartzen da. Zailtasun horiek islaturik geratu dira herritarren topaketetan jasotako iritzietan. Testuinguru horretan eta oraintxe bertan, eguneko zentroen eta/edo egoitzen eremuan ulertzen dira intentsitate handiko zainketak. Baliabide horiek, kasurik gehienetan, foru-eskumenekoak dira mendekotasun handiko profil horretarako.

Hala ere, Udalak ikusi du **beharrezkoa dela eremu soziosanitarioko langileen gaikuntza sustatzea**, enplegu-nitxo potentzial eta estrategikotzat jotzen den heinean. Era berean, sektore horretan oso erraz igarotzen da kontratatzeke ezintasunaren marra gorria, pertsona askok ez baitute lan-baimenik. Gaur egun, zenbait enpresa arduratzen dira kontratazio horiek legezkotasunez eta lan-baldintzak eta atsedeen-denborak errespetatuz egiten direla zaintez. Ildo horretan, sektore pribatua ari da kontratazio horiek antolatzen eta arautzen. Udalak enpresa horietara jotzeko orientabidea ematen die pertsonari, premia iristen zaienean.

Ildo horretan, Gizarte Politiken Saila diagnostiko bat ari da egiten Leioako zainketen egoerari buruz, zaintza-lanak nola antolatzen diren eta egungo beharrak zein diren jakiteko. Helburua da zainketa bizitzaren jasagarritasunerako funtsezko elementu moduan aitortzea. Prozesu horretan, udalerrian dauden baliabideen mapa interaktiboa egingo da.

Azkenik, foku-taldean nolabaiteko kezka adierazi da, pentsiorik txikien eta handien arteko desberdintasuna dela eta —desberdintasun hori are nabarmenagoa da emakumeen artean—. Hala ere, sumatzen da batez besteko pentsioa Leioan handiagoa dela inguruko beste udalerri batzuekin alderatuta.

3.2.6.3. Prestakuntza-eskaintza

Behargintzak batez ere langabeei, ekintzaileei eta Bizkaiko profesional aktiboiei eskaintzen die prestakuntza. Ikastaro horietan, lan-eskaera handia duten sektoreetarako profesionaltasun-ziurtagiriak ematen dira, hala nola arreta soziosanitariorako,

merkataritzarako, elikagaien manipulaziorako, makinen erabilerarako eta gaitasun digitaletarako. Badira negozioak hasi edo hobetu nahi dituzten ekintzaileentzako programak ere, eta ikastaro espezializatuak ematen dira zenbait arlotan (lehen sorospenak, droneak pilotatzea eta logistika), taula honetan jasotzen denez (Behargintza, d.g.):

15. taula. Behargintzaren prestakuntza-eskaintza.

Prestakuntza-mota	Ikastaroak/Gai nagusiak	Oharrak
Langabeentzako prestakuntza	- Mendetasuna duten pertsonentzako arreta soziosanitarioa - Merkataritzako jarduera osagarriak (kutxazaina) - Elikagaien manipulazioa - Goratzeko eta garraiatzeko makineria - Arrandegiko saltzailea - Biltegiko jarduera osagarriak - Aplikazio informatikoak (kontabilitatea, nominak, fakturazioa)	Eskura dauden profesionaltasun-ziurtagiriak
Ekintzaileentzako prestakuntza	- Negozio-ideiak garatzea - Negozio-planak egitea	Ikastaroak urtean zehar, aldezturik eskatuta
Gaitasun digitalei buruzko prestakuntza	- Gaitasun digital oinarritzako eta aurreratukoak	Trebetasun digitalak hobetzera bideratuta
Sektore espezifikoetako prestakuntza	- Lehen sorospenak - Droneak pilotatzea - Biltegietako birjarpena - Catering-zerbitzuak eta elikagaien manipulazioa	Enplegagarritasun a sustatzeko ikastaro espezializatuak

Iturria: norberak egina, Behargintzaren datuetan oinarrituta (d.g.).

Behargintzaren prestakuntza-eskaintza sendoa da aniztasunari eta lan-orientazioari erreparaturik; baina, herritarren pertzepzioak iradokitzen duenez, esperientzia praktikoa mugaturik gelditu daiteke, **espazio egokirik ez dagoelako eta eskaera eremu formalek edo**

profesionaletik harago doalako, eta, beraz, kultura- eta hezkuntza-jarduera mardulagoak ere bilatzen direlako. Hala ere, eskaintzaren eta benetako eskariaren arteko egokitasuna zehatz-mehatz ebaluatzea iradokitzen da, lokal berriak egokitzeko beharra zehazteko. Ildo horretan, Udalak denboran zehar aktibo eta finkatuta mantentzen diren kultura- eta prestakuntza-jarduerak bultzatzen jarraitzen du, jarraian ikus daitekeenez.

- Leioan gauzatutako berdintasun-ekintzak**

Leioako Udalak berdintasunarekin eta indarkeria matxista prebenitzearekin duen konpromisoaren esparruan, zenbait ekimen egin dira biztanleria-sektore jakin batzuei zuzenduta.

16. taula. Berdintasunaren arloko prestakuntza-ekintzak.

Jarduera-arloa	Jarduera/Programa	Azalpen laburra	Partaidetza
Ahalduntzea	Leioako Jabekuntza Eskola – LAKET	Emakumeei eta neskatilei zuzendutako lantegiak, garapen pertsonala eta kolektiboa ardatz harturik	26 ikastaro: 296 emakume eta 42 neskatila (2024-2025 ikasturtea)
Berdintasunerako prestakuntza	HEZKIDETZA programa 2024-2025	Prestakuntza ikastetxeetan (ikasleak, irakasleak eta familiak)	Saio ireki 1: 23 emakume eta 5 gizon
Herritarrak sentsibilizatzea	2024ko azaroaren 25eko kanpaina	Karpa informatiboak kalean eta saio bereziak adinekoentzat	4 saio adinekoen zentroetan
Prebentzioa jaietan	Jaietan indarkeria matxista prebenitzeko protokoloa	Txosna, barraka, ostalaritza eta jai-batzordeei zuzendutako prestakuntza eta materialak	Lokaletan eta bulegoetan jarduera-jarraibideak eta materialak zabaltzea
Laguntza psikologiko prebentiboa	EMAKUMEAK OREKAN – 2025	Genero-ezinegonen, mugen eta zainketen inguruko taldeko lantegi psikohezigarriak	Abian dago. Leioako emakumeei zuzendua

Iturria: norberak egina, Leioako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Sailaren informazioan oinarrituta.

- **Euskara Zerbitzuaren ekintzak eta proiektuak**

Euskara Zerbitzuak proiektu eta ekintza hauek gauzatzen ditu:

17. taula. Euskara Zerbitzuak bultzatutako ekintzak.

Proiektua	Azalpen laburra
Leioa Familian	4 eta 8 urte bitarteko haurrak dituzten familia euskaldun eta mistoei zuzendutako programa, familia-ingurunean hizkuntza-ohiturak indartzea duena helburu. Familia barruan eta familia desberdinen artean euskara erabiltzea sustatzen duten hileroko lantegien bidez gauzatzen da, eta euskarazko harreman-sare bat sortzea du xede.
Sorgina Txirulina	Euskaraz ez dakiten helduei zuzendutako lantegiak, 5–8 urteko txikiekin batera. Saio bakoitzak eguneroko gai bati buruzko ipuin bat eta jarduera praktiko bat biltzen ditu. Helburua da euskara heldu ez-euskaldunei hurbiltzea eta euskarazko harremanak sustatzea helduen eta txikien artean.
EuskaraLagun	Programaren asmoa da euskararen erabilera eskola-eremutik haratago eramatea, eta hizkuntzarekiko lotura afektiboa indartzea. Eskolaz kanpoko ordutegian egiten diren jarduera ludiko eta erakargarrien bidez, haurrei aukera ematen zaie euskaraz komunikatzeko gaitasuna hobetzeko, modu erreal eta eraginkorrean. Eskola-orduetatik kanpo egiten bada ere, ikastetxeekin lankidetzan antolatzen da.
Eman Giltza	Jaioberrien gurasoei zuzendutako laguntza-programa, euskara hasieratik transmititzeko aholkuak, tresnak eta baliabideak eskaintzen dituen, prozesuarekin lotutako zalantzak eta beldurrak argitzeko.
KaiShop	Herritarrei gonbita egiten zaie, euskaraz erosteko eta Leioako tokiko merkataritzari laguntzeko.
Beharsarea	Beharsarea euskarazko lan-aukerak bideratzen dituen webgune bat da. Leioak Udalak bere gune propioa du plataforman, eta lan bila ari direnen eta eskaintzaileen arteko harremana errazten du bertan.


Iturria: norberak egina, Leioako Udaleko Euskara Sailaren informazioan oinarrituta.

Leioako Udalak programa-eskaintza zabal eta askotarikoa osatu badu ere zenbait udal-sailen bidez, parte-hartzaileek esandakoek agerian utzi dute jarduera-tipologia batzuk — bereziki udal-baliabideei buruzko informazio-hitzaldiak— okerrago balioesten dituztela

herritarrek. Horrek iradokitzen du badela tarterik jarduera horien diseinua, ikuspegia edo komunikazio-estrategia hobetzeko.

Zehazki, inkestetako parte-hartzaileen % 36,8k adierazi zuen **udal-baliabideei buruzko informazio-hitzaldiak** *hala-holako* maiztasunez egiten direla. Hala ere, % 34,8ren iritziz — eta nahiko portzentaje nabarmena da— *gutxi* dira halako hitzaldiak. Datu horrek iradoki lezake beharrezkoa dela jarduera horien kopurua areagotzea, eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazioa jende gehiagorengana iristen dela bermatzeko.

32. grafikoa. Udal-baliabideei buruzko hitzaldi informatiboen kopuruari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

3.2.7. Komunikazioa eta informazioa

Zahartze aktiboa bultzatzeko eta, horren ondorioz, hiri lagunkoi bat sustatzeko, ezinbestekoa da informazioa egoki transmititzea eta komunikazio-fluxu sendoak ahalbidetzea, informazioa pertsona guztiengana hel dadin.

Leioak **komunikazio-eskaintza zabal eta askotarikoa** du, eta zenbait kanalen bidez helarazten die informazioa herritarrei. Ildo horretan, udalerriak presentzia aktiboa du sare sozial nagusietan —Facebook, X (lehengo Twitter), Instagram eta YouTube—, eta edukiak zabaltzeko eta herritarrekin interakzioan jarduteko funtsezko tresna gisa erabiltzen ditu. Gainera, webgune ofizial bat du (www.leioa.net), eta han argitaratzen ditu albisteak eta komunikatuak.

Leioako Udalak **webgune nagusi batean** zentralizatzen du informazio instituzionala, eta hantxe ematen die estaldura udal-arlo guztiei. Plataforma orokor horretaz gainera, baditu arlo jakinei loturiko webgune espezifikoak ere, sare sozialetako profil eta guzti, hala nola Turismoa, Kultura, Behargintza, Kirola, Umore Azoka eta Herrigune. Gaikako atari horiek eduki espezializatuagoak eta eguneratuagoak eskaintzen dituzte, arlo bakoitzaren berezitasunetara eta beharretara egokituta¹⁵. Alderdi estrategikotik, komunikazio-ildo instituzional komun bati jarraitzen zaio, Leioa Udala markarekin, eta orri berezi bakoitzak bere estrategia digitala garatzen du, bere helburu eta erreferentziazko publikoekin bat.

Era berean, Leioak **udal-aldizkari bat** argitaratzen eta banatzen du hilero (abuztuan izan ezik), herritarren etxeetan. Era berean, udalaren webgunean ere eskura daiteke, formatu digitalean irakurri nahi dutenentzat.

Leioako Udalak **kanal anitzeko komunikazio-estrategia digital** bat kudeatzen du, barne hartuz sare sozialetan aktibo dauden zenbait profil. *Leioa Udala* izeneko profilak udal-informazioaren ardatz eta kanal nagusi gisa jarduten du, eta Udaleko arlo guztiei buruzko eduki orokorrak zabaltzeko balio du.

Horretaz gainera, udal-arlo batzuek berariazko profilak dituzte **sare sozialetan**, beren helburu publikoetara eta jarduera-ildo partikularretara egokituta. Horien artean, hauek nabarmentzen dira:

¹⁵ Leioako Udaleko Komunikazio eta Prentsa Sailak emandako informazioa.

- Leioa Turismoa, udalerria helmuga turistiko moduan sustatzera bideratua, herria posizionatzeko eta bisitariak erakartzeko.
- Behargintza Leioa, enpleguari, prestakuntzari eta ekintzailera-programei buruzko informazioan oinarritua.
- Kultura Leioa, Kultur Leioaren kultura-programazioari eta lotutako jardueren eskaintako profila.
- Herrigune, herritarrek partaidetza eta sare komunitarioa helburu dituen.
- Umore Azoka, erreferentziazko kultur ekitaldi hori ikusarazten duten sare berezi eta guzti.

Profil horiek guztiak operatibo daude, batez ere Facebooken, Twitterren eta Instagramen, eta komunikazio-estrategia koordinatu baina bereizi bat erabiltzen dute, zeinak aukera ematen baitu sektore bakoitzaren berezitasunei erantzuteko, esparru instituzional komunaren barruan.

Era berean, Leioak badu lurraldean estrategikoki banatutako komunikazio-euskarri fisikoen sare bat. Zehazki, **10 pantaila digital** eta zutabe-formatuko **13 informazio-puntu** ditu, eta udal-kartelak zabaltzeko erabiltzen dira batez ere. Gailu horien bidez, herritarrei zuzendutako interes publikoko iragarkiak, ekitaldiak, kanpainak eta abisuak argitaratzen dira.

Euskarri horiek osatzeko, badira zuzeneko informazio-gune gisa erabiltzen diren udal-espazioak ere, hala nola Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (HAZ), kiroldegia, Kultur Leioa, udal-kontserbatorioa eta euskaltegia. Komunikazio-sare fisiko horrek udal-informazioaren eskuragarritasuna bermatzen laguntzen du zenbait formatu eta kanaletan, eta indartu egiten du Udalaren kanal anitzeko estrategia.

Gainera, udalaren iragarki-taula ere erabiltzen da, eta komunikatuak zabaltzen dira kontratatzailearen profilean, baita **tokiko komunikabideetan** ere: *Deia* eta *El Correo* egunkarietan; *Iruka* aldizkarian; Tele Bilbao eta Tele 7 telebista-kateetan; Radio Nervión, Onda Vasca, Onda 0, Radio Euskadi, Bizkaia Irratia, Radio Popular eta Cadena SER irratiak; EITB eta Hamaika telebistetan, eta Vinilon (modu puntualagoan)¹⁶.

¹⁶ Leioako Udaleko Komunikazio eta Prentsa Sailak emandako informazioa.


Nabarmentzekoa da 2024an Leioako Udalak **LeioApp** mugikorrerako aplikazioa jarri zuela martxan, herritarren eta toki-administrazioaren arteko komunikazio kanal zuzen, arin eta eraginkor gisa baliatzeko. Tresna digital horren bidez, udalerrian antzemandako gorabeherak jakinarazten zaizkie erabiltzaileei (oso erraz jakinarazi ere), eta zerbitzu publikoen funtzionamenduarekin lotutako hobekuntza-proposamenak edo iradokizunak helarazteko aukera eskaintzen zaie. Praktikan, herritarrek maiz erabiltzen dute, batez ere hirigunean gertatutako gorabeheren berri emateko, eta hori lagungarria izan da Udalaren erantzuteko gaitasuna optimizatzeko eta ingurunea hobetzeko zereginen parte-hartze aktibo handiagoa sustatzeko.

Jarraian, herritarrek komunikazioaren eta informazioaren arloan identifikatutako gai nagusiak jorratu eta jasoko dira.

Herritarren topaketetan parte-hartzaileek horren harira adierazi dutenez, Leioako biztanleriak informazioa jasotzeko erabiltzen dituen **komunikabide nagusiak** askotarikoak dira —horietako batzuk aurretik aipatuak—, hala nola sare sozialak, udal-aldizkaria, udal-webgunea, kartelak eta diptikoak, egunkariak eta albistegiak, Leioa Konekta eta ahoko informazioa.

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuak (HAZak) Leioan dituen bulegoei buruz galdetuta, inkestari erantzun dioten % 27,4k adierazi du ez dakiela non dauden. % 18,9k adierazi du *ondo* ezagutzen dituela, eta % 18,7k, *hala-holaketzat* jo du zerbitzu horien kokapenaren gaineko ezagutza. Datu horrek nabarmentzen du beharrezkoa dela eskuragarri dauden zerbitzuen ikusgarritasuna eta zabalkundea areagotzea, batez ere haien kokapenarekin ohituta ez daudenentzat.

31. grafikoa. Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoen ezagutza-mailari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Parte-hartzaileek uste dute ezen, **sare sozialak** hurbileko komunikabideak diren arren, ahoz ahokoak funtsezko eginkizuna izaten jarraitzen duela informazioa transmititzeko. Era berean, postontzietan banatzea inbertsio onuragarritzat jotzen da, informazioa eskuratzeko aukera ematen baitie mendekotasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonen, kontuan izanik bestela kanpoan gera daitezkeela.


Kartelei dagokienez, ondo balioesten da espazio publikoan duen presentzia, nahiz eta, oro har, ez jakin non dauden (Kultur Leioa, udaletxea, panelak eta abar). Era berean, adierazi denez, espazio ofizialetan araudia errespetatzen den arren, sarritan kartelak ez dira behar bezala kentzen eta edukiak ez dira egoten eguneratuta. Horregatik, garbiketa- eta berritze-mekanismoak ezartzeko beharra nabarmentzen da, bai eta bide publikoan kartelen mantentze-lanak egiteko arduradunak esleitzekoa ere.

Sare sozialak erabiltzeaz, alde nabarmena ikusten da sare horiek erabiltzen dituztenen eta erabiltzen ez dituztenen artean. Oro har, gehienek uste dute gazteek modu intentsiboagoan baliatzen dituztela plataforma horiek, izapide gehiago egiten dituztela online eta garrantzi handiagoa ematen dietela sare sozialei, adineko biztanleen aldean. Ildo horretan, parte-hartzaileek adierazi dute sare sozialen erabilera ez dela egokia, eta nabarmendu dute komentario kritikoak ugaritu egin direla —bereziki X eta Instagram plataformetan—, neurriz kanpokotzat edo funtsik gabekotzat jotzen baitira maiz.

Azkenik, informazioa bidaltzeko WhatsAppeko udal-kanal bat sortzeko aukera proposatu da, kontuan izanik baliabide hori positiboki erabiltzen eta baloratzen dela udalerri txikietan eta Andrak eta beste elkarte batzuetan.

Bestalde, **Leioako gertaerei eta jardueri buruzko informazioaz** duten pertzepzioari heldurik, inkestan parte hartu duten pertsonen % 33,3k adierazi du *ondo informatuta* dagoela, % 5,9k *oso informatuta* dagoela eta % 27,4k, azkenik, *nahiko informatuta* dagoela. Bestalde, % 24k adierazi du *gutxi informatuta* edo *batere informatu gabe* (% 8,4) sentitzen dela. Gainerako % 33ak adierazi du hala-holako informazio-maila dutela.

29. grafikoa. Gertaerei eta jardueri buruzko informazioaren gaineko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Herritarren topaketen esparruan, parte hartu duten biztanleek bi oztopo nagusi identifikatu dituzte informazioa eskuratzeko: hizkuntzari lotutakoa eta eremu digitalari dagokiona.

Lehenengo gaiari dagokionez, garrantzitsua da herritarren pertzepzioak testuinguruan kokatzea, eskuragarri dauden datuak azalduta. Eustaten datuen arabera (2022), **Leioako biztanleria euskaldunak** hazkunde nabarmena izan du 1986 eta 2021 artean: 3.057 lagun izatetik (biztanleriaren % 13) 11.369 izatera igaro da (% 36,2). Aurrerapen hori euskaldun alfabetatuen gorakadan islatzen da bereziki, bost aldiz baino gehiago ugaritu baitira, 2021ean 9.934 izatera iritsiz.

Aldiz, ia euskaldunen taldeak bilakaera irregularragoa izan du. Haien guztizko kopurua pixka bat hazi bada ere (5.869tik 7.384ra), ikusten da 2011n alfabetatutako ia euskaldunen kopuruak behera egin duela, eta euskaldun pasiboen edo alfabetatu gabeen kopuruak, berriz, gora. Bestalde, erdaldun elebazarren kopurua 1986ko % 62tik 2021eko % 40,3ra jaitsi da, eta horrek gizarte elebidunago bateranzko joera erakusten du.

18. taula. 2 urte edo gehiagoko biztanleak, euskara-maila orokorraren arabera.¹⁷

	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016	2021
Guztira	23.499	24.344	25.732	27.524	28.122	29.489	30.218	31.441
Euskaldunak	3.057	3.752	5.467	5.990	8.030	8.707	10.790	11.369
Euskaldun alfabetatuak	1.817	2.830	4.485	5.045	6.862	7.356	9.333	9.934
Partzialki alfabetatutako euskaldunak	854	566	638	765	1.005	850	894	831
Alfabetatu gabeko euskaldunak	386	356	344	180	163	501	563	604
Ia euskaldunak	5.869	6.056	6.926	8.262	7.657	9.371	6.901	7.384
Ia euskaldun alfabetatuak	3.846	4.123	4.809	5.651	5.010	6.004	4.956	4.492
Alfabetatu gabeko ia euskaldunak	1.007	853	944	1.016	1.153	1.058	823	1.463
Ia euskaldun pasiboak	1.016	1.080	1.173	1.595	1.494	2.309	1.122	1.429
Erdaldunak	14.573	14.536	13.339	13.272	12.435	11.411	12.527	12.688

Iturria: Eustat (2022).

Oro har, badirudi **euskarak etengabe egin duela aurrera Leioan**, baina oraindik ere erronka handiak ageri dira: biztanleriaren % 60 baino gehiago oraindik ez da erabat euskalduna. Horregatik, ezinbestekoa da hizkuntza normalizatzeko, alfabetatzeko eta euskararen erabilera soziala sustatzeko politika publikoak garatzen jarraitzea.

¹⁷ Kontsulta egindako unean, eskuragarri dauden datuak 2021ekoak dira, eta 2022ko abenduaren 27an eguneratu ziren.

Egoera hori kontuan hartuta, Leioako Udalaren hizkuntza-normalizaziorako estrategia¹⁸ hiru ardatz nagusiren inguruan egituratzen da:

- Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, Udalean bertan euskararen erabilera bermatzera bideratua, zeinaren helburua baita Leioako Udalean euskarak gaur egun duen egoera zehaztea eta egoera hori hobetzeko beharrezkoak diren ekintzak ezartzea. Plana diseinatzeko, aipatutako KEMEN metodologia hartu da kontuan, kudeaketa-egitura berriak sortu dira eta elkarlanera jo da. Aurreko planek finkatutako lan-ildoari jarraituz, orain aurkezten denaren helburu nagusia da «Leioan euskara normalizatzea, sustatzea eta babestea; herritarrek zerbitzua nahi duten hizkuntzan jaso ahal izateko aukera bermatzea, eta eskubide hori sustatzea».
- Leioako AROA esparru estrategikoa, udalerrri osoan euskara biziberritzea eta euskaldunak ahalduntzea bultzatzen duena (Leioa Euskara, 2025).
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, udal-langileak eguneroko jardunean hizkuntza-aplikazioan orientatzeko diseinatuak.

Bestalde, Leioako Euskara Zerbitzuak urtean zehar garatzen dituen proiektuen berri izateko, herritarrek Udalaren webgunean kontsulta dezakete informazio eguneratua. Informazio hori duela gutxi berritu da, eta abian dauden programa eta jarduera guztiak biltzen ditu (ikusi 15. taula).

Euskararen presentzia nabarmena izan arren, topaketetan parte hartu duten biztanleek diote eguneroko jardunean —batez ere denda, taberna, elkarte eta bestelako gune informaletan— gaztelania dela oraindik ere hizkuntza nagusia. Horrek baieztatzen du udalerriko biztanlerik gehienek gaztelania dutela ama-hizkuntza.


Inprimatutako informazioaren ulermen-mailari dagokionez, inkestaturik gehienek ulermen-maila handia ikusten dute: % 42,5ek uste du informazioa *nahiko ulergarria* dela, eta % 12,3k, *oso ulergarria* dela. Ulermen-maila on hori bi hizkuntzatan aurkezteari (euskaraz eta gaztelaniaz), tipografiaren tamaina egokiari eta hizkuntza argi erabiltzeari esker lortu da. % 16,6k bakarrik ditu informazioa ulertzeko zailtasunak: % 4,6ren ustez ez *da batere ulergarria*, eta % 12ren ustez, ez *da oso ulergarria*. Horrek adierazten du gehienek iritzian informazioa eskuragarria eta argia dela.

¹⁸ Leioako Udaleko Euskara Sailak emandako informazioa.

Udal-aldizkarian euskara erabiltzearen inguruan, zenbait nahigabe-iritzi erregistratu dira euskarazko edukiak ugaritu izanari loturik. Herritarren topaketetan, Udalak herritarrekiko eta euskararen sustapen eta normalizazioarekiko konpromisoa berretsi du, eta hori islaturik gelditzen da aldizkariaren elebitasunean: atal batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz argitaratzen dira, eta, bertsio digitalean, informazio guztia bi hizkuntzetan dago eskuragarri. Orekari eutsi nahi zaio, egungo formatu fisikoa kontuan hartuta. Parte-hartzaileek uste dute udal-aldizkaria komunikabide eraginkorra dela, kontuan izanik formatua egokia, irisgarria eta eroso dela. Pertzepzio orokorra da herritarrek maiz irakurtzen eta kontsultatzen dutela argitalpen hori.

Parte hartzen duten herritarrek eremu digitalari lotuta identifikatutako bigarren mugari dagokionez, analisiaren emaitza eta ondorio nagusiak aurkeztuko dira jarraian.

30. grafikoa. Espazio publikoetan Internet doan erabiltzeari buruzko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, **Internetarako doako sarbidea eskaintzen duten espazio publikoak** badiren arren, **haien ezagutzari buruzko pertzepzioa nahiko zatituta dago**: inkestatutako pertsonen ehuneko txiki batek (% 6,9k) dio oso *ondo* ezagutzen dituela Internetera sartzeko espazio publikoak, eta talde handi batek (% 24,8k), *dezente* ezagutzen dituela. Horrek adierazten du baliabide horiek presentzia nabarmena dutela herritarren artean. Hala ere, oraindik ezjakintasun-maila nabarmenak ageri dira; izan ere, % 23,8k ezagutza mugatua du eremu horietaz, eta % 22,5ek ez ditu ezagutzen. Datu horiek adierazten dutenez, inkestan parte hartu duten pertsonak uste dute eten digitala badagoela, eta halako espazioetarako sarbidea mugatua dela.

Udalean egindako izapideekiko gogobetetasun-mailaz, % 24,0k adierazi du *nahiko pozik* dagoela, eta % 5,4k, berriz, oso *pozik* dagoela. Era berean, % 32,7k adierazi du *hala-holako*

dela bere gogobetetze-maila. Horrek iradokitzen du badela non hobetua. % 24,6k soilik adierazi zuen gogobetetze-maila txikia duela (% 10,7 ez dago *batere pozik*, eta gainerakoak, ez *daude oso pozik*. Gainera, adierazi zuten zer arlo zehatzetan jarrai daitekeen lanean, herritarren esperientzia optimizatzekotan.

Parte-hartzaileen artean bada errepikatzen den ideia bat: eskura dauden baliabide teknologikoek ez dituzte behar bezala aintzat hartzen adinekoen beharrak. Horrek agerian uzten du badela **eten digital** bat, talde horri ez ezik biztanle guztiei ere eragiten diena. Ildo horretan, adierazten da udal-webguneak garatzean haien erabilgarritasuna ez dela beti adinekoekin baliozkotzen, diseinu- eta garapen-prozesuan. Web-orrialde asko, Udalarena barne, ez dira oso praktikoak eta intuitiboak, eta horrek zaildu egiten du haien erabilera, baita ezagutza digitalak dituztenentzat ere.

Era berean, herritarrek azpimarratu dute egungo ikuspegia, Internet bidezko informaziorako sarbidea eta tramitazioa lehenesten dituen, baztertzaila izan daitekeela konexio edo trebetasun digital nahikorik ez duten pertsonentzat. Horregatik, proposatzen dute **beharrezkoa dela bitartekoak eta formatuak herritar guztientzat irisgarriak izatea**, bereziki adinekoentzat, eta ezinbestekoa dela, orobat, baliabide digitalen irisgarritasuna eta erabilgarritasuna baliozkotzen adituak diren erabiltzaile gisa inplikatzeari adinekoak.

Horren harira, Leioako Udalak **Herritarrentzako Arreta Zerbitzua (HAZa)** du —bulegoak udaletxean eta Gaztelubiden ditu—. Bertan, herritarrei aurrez aurreko arreta eskaintzen diete, eta, batzuetan, bilerak antolatu dituzte adinekoen zentroetan, izapide telematikoak egiten laguntzeko. HAZak, gainera, bere ordenantza arautzailea du, eta ez da erregistro-gaietan laguntzeko bulego soil bat. Leioako Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzua **erreferentziatzeko udal-zerbitzua da herritarrentzat**, eta bertatik eskaintzen zaizkie esku-hartze tekniko espezializaturik behar ez duten udal-zerbitzu gehienak (informazioa, tramitazioa eta kudeaketa), aurrez aurre, telefono bidez, telematikoki eta sare sozialak baliatuz. **Herritarrek Udalari eta haren bulegoei egiten dizkieten eskaera gehienak konpontzeko** beharrezkoak diren antolaketa eta bitartekoak hornitu zaizkio HAZari, eta zerbitzua emateko orientabide eta bokazio argiarekin sortu eta diseinatuta daude. Horri eskerrak, erosoak dira sarbidea, komunikazioa eta herritarren eta Administrazioaren arteko harremanak.

Biztanleek indar handiz jarraitzen dute baloratzen **arreta presentziala**, aurrekontu-mugak gorabehera, funtsezko baliabidetzat jotzen baitute sarbide egokia eta gertuko laguntza bermatzeko. Gainera, alor horretaz arduratzen den udal-saila aztertzen ari da sarbide

digitalen arloko SEN (Segurtasun Eskema Nazionala) eta ENI (Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala) araudiak betetzen ote diren.

Azkenik, erakunde eta elkarteek Udalarekin baliabide telematikoen bidez harremanetan jartzeko legezko betebeharra badute ere, **telefono bidezko laguntza** ari dira ematen, zalantzak argitzeko. Herritarrek laguntza hori indartzea proposatzen dute, eta horretarako orientazioko profesionalei zuzendutako prestakuntzak erabiltzea, izapideei eta prozedurei buruzko ezagutza hobetu dezaten. Urteko une zehatzetan sailek laguntza-kanpainak egiten dizkiete erakundeei, baliabide telematikoetan laguntzeko; esate baterako, irabazi-asmorik gabeko elkarteei dirulaguntzak emateko deialdiak egiten direnean.

3.2.8. Gizarte-eta osasun-zerbitzuak

Gizarte- eta osasun-zerbitzuak **ongizate-estatuaren** oinarriak dira. Udal-sail hori, Udalaren esku dauden gizarte-zerbitzuak eta osasuna prebenitzeko eta sustatzeko ekintzak dituen ardatz nagusi, pertsonak eta gizarte-kolektiboak ahalduntzeko laguntza-gune gisa eratu behar da, oinarritzat harturik gizarte- eta familia-lanaren, talde-lanaren eta esku-hartze komunitarioaren garapena. Alegia, herritarrengandik hurbilen dagoen zerbitzu-sare publikoa izan behar da.

3.2.8.1. Gizarte-zerbitzuak eta osasun komunitarioa sustatzekoak

Herritarrei beren beharrak asetzen laguntzeko, honela egituratzen dira Leioako Udaleko gizarte-zerbitzuak:

19. taula. Leioako gizarte-zerbitzuen sistemako arloak.

Informazioa, harrera, balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa eskaintzeko zerbitzua	Indarkeriaren biktimentzako arreta
Adinekoentzako zerbitzua	Berdintasuna
Haurrak eta familiak	Boluntarioria sustatzea
Prestazio ekonomikoak	Immigrazioa eta kultura-aniztasuna
Gizarteratzea	Osasun komunitarioa prebenitzea eta sustatzea – adikzioak prebenitzea
Esku-hartze komunitarioa	Aholkularitza Juridikoa
Garapenerako lankidetzak	Beste batzuk

Iturria: Leioako Udala (d.g.).

Esku hartzeko arloen artean, adinekoei arreta emateko azpiarloa nabarmentzen da, eta, bertan, zenbait zerbitzu eta prestazio bultzatzen dira, bai udal-eskumenekoak, bai beste administrazio batzuenak.

20. taula. Adinekoei zuzendutako baliabideak eta programak.

Zerbitzua	Plaza-kopurua
Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ)	121 erabiltzaile: - o 59 erabiltzaile 1. mailakoak - o 28 erabiltzaile 2. mailakoak - o 16 erabiltzaile 3. mailakoak - o 12 autonomo - o 5 gizarte-bazterketako egoeran - o 1 susperraldian
ATSEDEN programa	22 lagunek erabili zuten Atsedeen Zerbitzua
Eguneko arreta-zerbitzua	2023an 5 onuradun izan ziren
ZAINDUZ zaintzaileei laguntzeko zerbitzua	28 pertsona psiko-estimulazioko taldeetan (11 emakume eta 17 gizon)
Adinekoentzako ostatu-zerbitzuak	
Autonomia sustatzeko programa	149 pertsona (118 emakume eta 31 gizon)
Zaintzaileentzako prestakuntza-programa	215 pertsonak hartu dute parte zaintzaileentzako prestakuntzan (194 emakumek eta 21 gizonen)
Banakako laguntza psikologikoko zerbitzua	40 pertsona (35 emakume eta 5 gizon)
Taldeko laguntza psikologikoko zerbitzua	48 pertsona (guztiak emakumeak)
Zaintzarako udal-bulegoa	118 pertsona (107 emakume eta 11 gizon)
ELZren erabiltzaileen etxeetan su-detektagailuak ezartzeko dirulaguntzak	62 onuradun (7 alta berri)
Etxezko laguntza kontratatze laguntza ekonomikoa	9.880,57 euro – 5 onuradun
Ostatu-zerbitzuak	3 pertsona

Iturria: Leioako Udala (2024).

Udalak, gainera, herritar guztiei zuzendutako zenbait **programa** ditu; besteak beste, berezia adinekoei arreta ematen dietenak:

- **LEIOA KONECTA** (eten digitala murrizteko programa).
- **LEIOA ABIAN** (pertsonek arteko harremanak sustatzeko eta gizarte-isolamendua prebenitzeko).
- **Zahartze aktiboa** eta **belaunaldien arteko harremanak** sustatzeko jarduerak. Alde horretatik, **Adinekoen Udal Kontseilua** sortzeko asmoa du Sailak.

Osasun komunitarioa prebenitzearen eta sustatzearen arloan, hauek nabarmentzen dira:

- Adikzioak prebenitzeko zerbitzua.
- Osasuna eta bereziki osasun mentala sustatzeko eta prebenitzeko jarduerak, hala nola psikologia positiboko lantegiak eta animaliekin lagundutako terapia, besteak beste.

Aipatutako baliabideez gainera, Leioak badu adinekoentzako **laguntza-zentro** bat ere, orotara 150 plazarekin, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (GUFek) eta Eguneako Arretarako Foru Zentro batek kudeatuta.

Herritarren topaketetatik jasotako informazioak erakusten du parte-hartzaile gutxi joan direla Leioako gizarte-zerbitzuetara kontu pertsonalengatik, gehiago joan direla gai profesionalak direla eta. Alabaina, oso positibotzat jotzen dute beren esperientzia. Ildo horretan, sumatzen da arazoa jada agertu denean mugitzen direla pertsonak, eta orduan hartzen dituztela hartu beharreko neurriak.


Azpimarratzen denez, gerta liteke pertsonen ehuneko jakin bat ezjakintasunagatik ez hurbiltzea gizarte-zerbitzuetara, baina kontuan hartu behar da, orobat, gizarte-zerbitzuen erabiltzaile izateari lotutako estigma soziala; dirudienek horrek arbuioa sortzen du sistema horretara laguntza bila jotzeari begira. Oro har, foku-taldeetan parte hartu dutenek **nolabaiteko estigma sumatzen dute** gizarte-zerbitzuak baliatzearen inguruan, eta biztanleria-kolektibo jakin batzuekin lotzen dute zerbitzua.

Foku-taldeko partaideen iritziz, gizarte-zerbitzuak erabili dituzten pertsonak ezagutza egokia dute eskura dituzten baliabideei eta laguntzei buruz. Hala ere, badirudi oraindik ere herritarrek ez dituztela ezagutzen eskura dauzkaten zerbitzu guztiak eta jaso dezaketen laguntzaren norainokoa. **Informazio-defizit** hori, esaterako, elkarreetan ikusten da; izan ere, emakume askok, diru-sarrera apalak izan arren, ez dakite gizarte-prestazioak jaso ditzaketela zerbitzu horien bidez.

Hona hemen aurrekoaren adibide bat: nahiz eta inkestetatik lortutako datuek erakusten duten ZAINDUZ zerbitzua oraindik ez dela oso ezaguna —inkestatutakoen % 45,3k ez du ezagutzen, eta % 5,6k eta % 9,2k bakarrik ezagutzen dute *asko* eta *dezente*, hurrenez hurren—, herritarren topaketetan parte hartu dutenek nabarmenki baloratzen dituzte programa horrek narriadura kognitiboa prebenitzeko jardueraren barruan eskaintzen dituen psikoestimulazio-lantegiak. Balorazio positibo horrek ederki islatzen du ZAINDUZek gauzatzen dituen jardueren kalitatea eta inpaktua.

Lagunkoitasunari buruzko galde-sorten emaitzetan ere agerikoa da oinarrizko gizarte zerbitzuen eta horien bideratzeen inguruko ezjakintasun hori eta hurbilpen eskasa. Lagunkoitasunari buruz herritarrek betetako inprimakien emaitzak aztertuta ikusten da hobetzekoa dela **gizarte-zerbitzuen** eta horien programen inguruko **ezagutza**; izan ere, inkestatuen % 38,1ek bakarrik ezagutzen ditu *asko* edo *dezente*, eta % 34,5ek, aldiz, gutxi edo *batere* ez.

33. grafikoa. Oinarrizko gizarte-zerbitzuak ezagutzearen gaineko pertzepzioa.



Iturria: norberak egina.

Arlo horretan, parte-hartzaileek adierazi dute **farmaziek** eginkizun garrantzitsua dutela, hasierako laguntza-premia hori hautematen dutelako eta bozgorailu moduan jarduten dutelako, gizarte-zerbitzuekin loturiko orientatze- eta bideratze-funtzioak eginez. Hori horrela, herritarrek azpimarratu dute osasun-sistema dela gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa emateko biderik onena eta nagusia.

Gizarte Politiken eta Osasunaren Sailak lankidetza estuan dihardu farmaziekin, eta, horri esker, hitzarmen bat sinatu da Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileen medikazio-blisterrak egiteko, besteak beste.

Herritarren topaketetan, talde eragileak zalantzan jartzen du erretiratuen elkarrekin prestazioei buruz nahikoa informazio iragartzen ote den, eta mahai gainean jarri dute informazio-falta hori arazo bat izan ote daitekeen.

Lagunkoitasunari buruzko inkesten emaitzek adierazten dutenez, **Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuari (ELZri)** dagokionez, inkestatuen % 42,7k jakinarazi du ez duela ezagutzen baliabide hori, eta % 21ek, berriz, ezagutza mugatua duela. Hala ere, % 7,4k sakon ezagutzen du zerbitzua, eta % 12,5ek dezente ondo; hau da, % 19,9k etxekotasun-maila

handia du zerbitzu horrekin. **Telelaguntza-zerbitzuaz** galdetuta, inkestatutako pertsonen % 24,8k ez du ezagutzen, baina % 21ek eta % 18,7k adierazi dute *dezente* eta *asko* ezagutzen dutela, hurrenez hurren. Horrenbestez, % 39,7k ezagutza-maila ertaina edo handia du.

Adinekoentzako Eguneko Foru Zentroa, berriz, % 27,4k ez du ezagutzen, eta % 19,4k ezagutza mugatua du; % 12,3k *asko* ezagutzen du, eta % 20,2k *dezente*. Hortaz, % 32,5ek ezagutza-maila ona du. **Adinekoentzako egoitzen** inguruan, % 35,8k ez daki nola funtzionatzen duten, eta % 22k ez daki ezer gaiari buruz; % 6,6k, berriz, *asko* ezagutzen ditu, eta % 16,4k *dezente*. Ezagutza-maila handia dutenak, beraz, % 23 dira. **Adinekoentzako zentroei** loturik, % 22,3k dio *dezente* ezagutzen dituela, eta % 14,6k, *asko*. Alabaina, % 18,7k eta % 19,4k dio ez *dituela* ezagutzen edo *gutxi* ezagutzen dituela, hurrenez hurren.

LAKET emakumeentzako ahalduentze-eskolari buruz, inkestatuen % 46,3k dio ez duela ezagutzen, eta % 19,9k, ezagutza mugatua duela. Horrenbestez, % 66,2k ez du batere ezagutzen edo gutxi ezagutzen du baliabide hori.

Bitartekoei buruzko datuetatik haratago, nabarmentzekoa da parte-hartzaileek **mendetasunaren eta desgaitasunaren definizioei** buruz duten ezagutza-maila. Inkestatuen % 33,2k adierazi du *dezente* dakiela desgaitasunarekin eta mendekotasunarekin lotutako gaiez, eta % 22,3k, berriz, *hala-holaketzat* jo du gai horien gainean duen ezagutza. Azpimarratzekoa da % 21,5ek ezagutza sakona (*handia*) duela desgaitasunaren eta mendekotasunaren inplikazioei eta esanahiari buruz. Bestalde, % 21,5ek soilik aitortu du gaiari buruzko ezagutza-maila *txikia* edo *hutsa* duela. Eraitza horietatik ondorioztatzen da herritar gehienek jakintza-maila neurritsu edo handia dutela gai horien gainean.

Bada taldeko zenbait partaidek nabarmendu duten beste ideia bat ere: **gizarte-langileen presentzia beharrezkoa dela osasun-arloan** —zehazki, osasun-zentroetan—. Leioan, gaur egun, oso koordinazio egokia nabari da bi eremuen artean (osasuna eta gizartea), kasuak eta baterako jardura komunitarioak koordinatzeko (askotariko lantegiak).

Parte-hartzaileen artean, **eguneko foru-zentroari** buruzko askotariko iritzia sortu dira, eta irizten diote txikitxo gelditu dela eta plaza gutxi dituela. **Gizarte-zerbitzuen lokalaz** zenbait pertsonak iritzi diote komenigarria litzatekeela espazioak handitzea, egokitzea eta lehen arretan irisgarritasuna eta pribatutasuna bermatzea.

Adinekoen zentroei buruz parte-hartzaileek adierazi dute batek irisgarritasun-arazoak dituela, arkitektura-oztopoen ondorioz. Era berean, adierazten dute eguneko zentroak zailtasunak dituela kokapenaren aldetik, malda batean dago eta. Haien ustetan, horrek mugatu egin dezake harako irisgarritasuna. Gainera, nabarmentzen da zenbait lokaletako instalazioak berrikusi eta eguneratu beharra dagoela, haien egokitasuna eta funtzionaltasuna bermatzeko eta erabiltzaileen egungo beharretara egokitzeko.

Foku-taldeetako parte-hartzaile batzuek nabarmentzen dutenez, adinekoen zentro batzuetan jardueren **eskaria eskaintza baino handiagoa** da, eta, ondorioz, itxarote-zerrendak sortzen dira. Bereziki ondo baloratzen dira adinekoen zentroetan egindako ongizate emozionaleko lantegiak, baita Leioa Konecta ere.

Horren harira, herritarren topaketetan bereziki ondo balioetsi da **Leioa Konectaren funtzionamendua**. Erretiratuen zentroetan ematen da zerbitzu hori, batez ere adinekoak artatzeko; izan ere, horiei zuzenduta dago gizarte-zerbitzuek martxoan abian jarri zutenetik. Hala ere, zerbitzua ezagutzeari buruz eginiko galderen erantzunek hedapen mugatua islatzen dute: lagunkoitasunari buruzko inkestetan, parte hartu dutenen % 41,9k adierazi du ez duela ezagutzen Leioa Konecta, eta % 23,8k, *gutxi* ezagutzen duela. Aldiz, % 9,5ek *dezente* ezagutzen du, eta % 8k, azkenik, *asko*. Foku-taldeak ere berretsi egin du pertzepzio hori, eta agerian utzi du zerbitzua ez dela ezaguna, eginiko hedapena gorabehera.

Eraitza horiek nabarmentzen dute beharrezkoa dela zenbait kanalen bidez **Leioa Konecta sustatzea**, ahoz ahokoa bezalako estrategia informalak ere erabiliz, haren irismena eta ikusgarritasuna hobetearren.

3.2.8.2. Osasun-zerbitzuak

Osasun-zerbitzuei helduta esan behar da Leioako osasun-zentroa Ikeabarri plazako 1. zenbakian dagoela. 19 erizainek eta 19 medikuk osatzen dute:

21. taula. Osasun-zentroan eskaintzen diren zerbitzuak.

Eremu profesionala	Profesional-kopurua guztira
Helduen erizainak	15
Pediatriako erizainak	4
Familia-medikuntza	15
Pediatria	4

Iturria: Leioako Udala.

Osasun-zentro hauek ere badaude: Uribeko Osasun Mentaleko Zentroa (San Nikolas 2, Getxo) eta Areetako Anbulatorioa (Bidebarrieta 12, Getxo). Leioako herritarrek horietara bideratzen dira, zenbait espezialitatetan arreta behar dutenean. Era berean, lehen mailako arreta-zerbitzuak ere badituzte Areetako espezialitate-zentroan bertan. Gainera, Uribeko Haur eta Nerabeen Osasun Mentaleko Zentroak (Alangobarri 7) 10 profesional soziosanitario ditu guztira.

Puntu honetan nabarmendu behar da **lankidetz**a estuan aritzen direla **Gizarte Politikaren eta Osasunaren Saila** eta **Leioako Osasun Zentroa**: aldian-aldian bilerak egiten dituzte, zenbait ekintzatarako:

- Kasuak koordinatzeko.
- Herritarren ongizaterako jarduera bateratuak antolatzeko (osasuna sustatzeko lantegiak, prebentzio-kanpainak, langileen prestakuntza-trukea eta abar).

22. taula. Haur eta Nerabeen Osasun Mentaleko Zentroan eskainitako zerbitzuak.

Eremu profesionala	Profesional-kopurua guztira
Psikologia	3
Psikiatria	6
Gizarte-lana	1

Iturria: Leioako Udala.

Ildo beretik, udalerrirako erreferentziazko ospitaleak Urduliz-Alfredo Espinosa Ospitalea eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea dira (Osakidetza, d.g.). Lehenengoak zerbitzu medikoak, kirurgikoak eta orokor klinikoak ditu, taula honetan ikus daitekeenez:

23. taula. Urdulizko Ospitaleko osasun-zerbitzuak.

Arloak	Zerbitzu medikoak
Zerbitzu medikoak	- Barne-medikuntza - Digestio-aparatua - Kardiologia - Dermatologia - Endokrinologia - Neurologia - Pneumologia - Erreumatologia - Hematologia

Kirurgia-zerbitzuak	- Urologia - Ginekologia (ez dira sartzen erditzeak eta zesareak) - Otorrinolaringologia - Oftalmologia - Traumatologia
Zerbitzu orokor klinikoak	- Errehabilitazioa - Helduen eta haurren larrialdiak - Anestesia eta bizkortzea - Medikuntza prebentiboa - Erradiodiagnostikoa - Anatomia patologikoko analisi klinikoak - Farmazia
Beste zerbitzu batzuk	- Etxeko ospitalizazioa - Eguneko ospitale medikoa - Eguneko ospitale kirurgikoa

Iturria: Leioako Udala.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak, berriz, arlo hauek ditu:

- Nefrologikoa
- Plastikoa
- Aurpegi-masailetakoa
- Baskularra
- Erditzeena
- Pediatrikoa
- Psikiatrikoa
- Onkologikoa
- Neurokirurgikoa
- Alergologikoa
- Errehabilitaziokoa
- Gaixotasun infekziosoen unitatea
- Medikuntza intentsiboa (ZIU)
- Obstetrikoa

Jarraian, herritarrek osasun-arloko topaketetan identifikatutako gai nagusiak jorratu eta jasoko dira. Herritarren topaketetan, aktiboki parte hartu dute osasunaren arloko profesionalek, eta interesa agertzeaz gain, zenbait kezka eta proposamen helarazi dituzte. Udalak **informazio hori Osakidetza bideratuko du**, dagozkion eskumen-eremuetan kontuan har dezaten.

Herritarrek gehien aipatzen dituzten gaien artean, haxe nabarmentzen da: gaur egun **giza eta osasun-baliabideetan dagoen eskasia**. Egoera hori, gainera, langileen errotazio-

bolumen handiarekin lotuta dago, eta horrek zaildu egiten du langileok egonkortzea eta jarraitzea. Oro har, urritasunak hautematen dira osasun-zentroetan emandako arretan, batez ere mediku-faltari dagoelako, eta horrek ezinegona eta kexak sortu ditu erabiltzaileen artean.

Hitzordu medikorik ez izatearen ondorioz, herritarrek ez dute larrialdi-zerbitzua behar bezala erabiltzen, anbulatorioak epe luzeagoak izaten baititu. Pertsona batzuek sendagaiak berritzeko atzerapena nabarmentzen dute.

Horretaz gainera, behin eta berriz jaso da hitzordu medikoen kudeaketari buruzko kexa bat: hitzordura joan ezin duten erabiltzaileek ez dute, sarritan, horren berri ematen, eta, horrek galarazi egiten du beste paziente bat joan ahal izatea; ondorioz, itxarote-zerrendak luzatu egiten dira. Herritarren artean **kontzientziazio handiagoa** sustatu behar dela diote jardunbide horren inpaktu negatiboaz, eta hobetu egin behar direla arreta medikoaren eskuragarritasuna optimizatzeko kudeaketa-mekanismoak.

Dosifikazio sistema pertsonalizatua (DSP) —hau da, farmaziako pastilla-kaxa— da herritarrek egokitzen identifikatutako jardunbide bat; doakoa da ELZren erabiltzaileentzat.

Ilido beretik, herritarrek **psikologoaren figura** aldarrikatzen dute. Leioan psikologia-zerbitzuak eskari handia zuen zerbitzua bertan behera utzi zutenean. Saiotara joan zirenen iritziz, zerbitzu hark ederki funtzionatzen zuen osasun-zentroetan, eta, gainera, lan-karga handia kentzen zien medikuei.

Era berean, zenbait **profil profesionalen falta sumatzen da** (geriatriak, podologoak eta abar), Osakidetzaaren sare publikoak ez baititu eskaintzen. Udalak, horren inguruko eskumenik izan ez arren, podologia-zerbitzua eskaintzen du osasun-araudiak ondoen betetzen dituen gunean; hots, Pinuetako adinekoen zentroan —zentro guztietako bazkideei zuzenduta dago—.

Parte hartu duten biztanleek adierazi dutenez, beharrezkoa da **osasun mentaleko gaietan prebentzioa lantzea**, bereziki gazteekin. Horren harira azpimarratu dute beharrezkoa dela psikologoek puntu horretan esku hartzea, gerora ez dezaten izan beste profesional batzuen premia.

Osasun mentalaren alorrean, herritarren topaketetan jasotako 2023ko datuek 57 suizidioko zifra kezagarria eman dute —31 Bizkaiko lurralde historikoan—. Beraz, oso garrantzitsua da arlo horretan baliabideak eta arreta indartzea. Bestalde, urritasunen artean identifikatu da osasun-zentro anbulatorioetan **suizidioa prebenitzeko telefonoaren**

ikusgarritasunik eza; izan ere, horrek mugatu egiten du baliabide erabakigarri hori bizkor eta eraginkortasunez baliatu ahal izatea.

Alde horretatik, Udalak —AIDATU elkartearekin batera— suizidioa prebenitzearen inguruko **prestakuntza** eman die aurtan **gizarte-zerbitzuetako langileei**.

4. LAGUNKOITASUN-PLANA

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Aire zabaleko espazioak eta eraikinak	- Parke- eta berdegune-sare zabala: 55 hektarea baino gehiago (17 m² biztanleko). - Parke batzuetan estalkiak jartzearen ondorioz (Bordeoane, Ugarteondo...), erraztu egin da instalazio horiek urte osoan zehar erabili ahal izatea. - Belaunaldien arteko harremanetarako eremuak sustatzea (Arriena, Ibaiondo). - Leioan aisialdirako eremuak, berdeguneak eta lehen mailako hiri-ekipamenduak daude. 6 hiri-igogailu daude. - Matxurak zerbitzua, espazio publikoko gorabehera erantzuteko. - Argiteria publikoaren sarea 2016 eta 2017 artean berritu zen, Europako araudiak ezartzen duenari jarraikiz, eta horrek	- Parkeen eta auzoen arteko desnibelek zaildu egiten dute mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasuna. - Hesi fisikoak malda handiko eremuetan (adibidez, Iturribiden, Ikeamendin). - Arazoak espaloietan: inklinazioa, egoera txarra, baldosak hondatuta. - Irisgarritasun urriko eremuak (Txorierri, Kandelazubieta...). - Hurbileko saltokiak desagertzen ari dira, batez ere auzo periferikoetan. - LED argiztapena ez da nahikoa euri- edo laino-egunetan, eta zuhaitzek murriztu egiten dute argien eraginkortasuna Txorierri, Mendibile, Pinosolo edo Txakurzulo auzoetan. - Argiztapen-falta auzo jakin batzuetan: Txorierri, Mendibile, Pinosolo eta Txakurzulo. - Oraindik ere badira arazoak txakurrak uhalik gabe edo solte erabiltzeagatik	Berdeguneak, itzala eta hiri-altzariak. - Haur eta adinekoen parkeetan instalazio gehiago estaltzeko aukera aztertzea, urte osoan hobeto erabili ahal izateko. - Zuhaitzik ez duten eremuetan, pergolak jartzeko aukera baloratzea, itzalak areagotzeko. - Iturribide eta Errekalde auzoen arteko berdegunean (<i>Errekalde plazaren atzean</i>) bankuak jartzeko aukera balioestea. - Iturribide plaza berritzea eta banku gehiago jartzea. - Txorierri auzoan, kirol anitzeko kantxa bat gaitzeko bideragarritasuna aztertzea (futbolean, saskibaloian eta abarretan aritzeko). Hiriko garbiketa- eta mantentze-lanak - Lorezaintza-zerbitzuaren mantentze-lanak hobetzea. - Mendibileko pasabidea mantentzeko lanak egitea. - Udal-hegalen garbitasuna eta zaintza areagotzea. - Txopoeta auzotik Ondizeraino doan bideko baldintzak hobetzea. - Igogailu publikoen funtzionamendu, mantentze eta garbiketa egokia bermatzea.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
	hobekuntza tekniko nabarmena ekarri du. - Jai eta ekitaldi berezietan, indartu egiten dira herriko argi-puntuak. - Ingurumen-osasungarritasuneko prebentzio-ekintzak egiten dira, ingurumen-osasungarritasunean eta -segurtasunean laguntzeko. - Jendeak, oro har, uste du udalerria ingurune segurua dela; txikia da etxebizitzetan eta bide publikoan gertatutako lapurreten intzidentzia, eta hori prebentzio-kontrolak ugaritu izanari esker da. - Gorotzak biltzeko kanpaineak eragin positiboa izan dute.	baimendutako eremuetatik kanpo (Aldapa, Pinosolo, Txorierri).	- Komun publikoetako mantentze- eta garbiketa-lanak bermatzea. - Obra publikoetarako kontrol- eta garbiketa-protokolo bat egitea. Lorezaintza, inausketa eta zuhaitzak - Aparkalekuetan ikuspen egokia bermatzea, eta, horretarako, heskaiak inautzea. - Arreta berezia jartzea berdeguneak mantentzeari, obrak egiten diren bitartean. - Udalerrian etorkizunean landatzeko ordezkio landare-espezieak bilatzen eta ebaluatzen jarraitzea, eta, ildo horretan, inpakturik txikiena dutenak lehenestea (usainen, potentzial alergenikoaren eta fruituek sortutako zikinkeriaaren aldetik). Irisgarritasuna, kaleak eta espaloiak - Udalerriko espaloien mantentze-lanen jarraipena hobetzea. - Hiri-iturri mistoen hornidura aztertzea eta hobetzea. - Txorierri eta Ondiz lotzen dituen baranda aldatzea. <i>Matxurak</i> zerbitzuaren inguruko ezagutza eta hedapena indartzea herritarren artean. - Txorierri auzorako sarbidea hobetzea, eta, horretarako, bigarren sarrera edo irteera bat prestatzea, bizilagunen mugikortasuna eta konexioa erraztuz.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
			Argiak eta seinaleak - Oinezkoentzako pasabideetako argietan hobekuntzak ezartzea, segurtasuna hobetzeko, bai eta gutxien argiztatutako udalerriko eremuetan ere. - Txakurrentzako espazioak hobeto identifikatzea eta seinaleztatzea. Bizikidetza eta herritarren hezkuntza - Herritarren artean heziketa sustatzea, txakurrak eta beste animalia batzuk zaintzeari eta haiekin izan beharreko portaerari buruz.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Garraioa	• Zenbait garraibide ditu: hiri-barneko eta hiriarteko autobusa, metroa, taxi-zerbitzua eta bidegorria. • Autobusa da erabiliena, herritarren topaketen arabera. • Lejoan Busa zerbitzuak ohiko erabiltzaileen oinarri sendoa du (% 29,4k asko edo dezente erabiltzen du). • Istripu-tasa murriztea, hirigunean 30 km/h-ko abiadura-muga ezarri ondoren. • Leioak bide-sare zabala du, auzoak eraginkortasunez lotzen dituen hiri-plangintzari esker. • Metroa asko baliatzen da, herritarren % 50ek baino gehiagok asko edo dezente erabiltzen baitu. • Hiri-plangintzan integratutako bidegorri-sare bat dago, mugikortasun jasangarria	• Trafiko-arauak ez errespetatzea (4.000 zehapen inguru urtean). • Gehiegizko abiadurak Aldapabarrenan, Gazteluetan eta halako eremu sentikorretan, kontuan izanik ikastetxeak dituztela inguruan. • Baden ugari daude ibilbide jakin batzuetan, hala nola Urdulizko Ospitalean. • Autobus-linea batzuek maiztasun eta erabilgarritasun eskasak dituzte, eta konexio txarrak zenbait eremutara. • Markesinen diseinu edo kokapen kaskarra —eguzki-erreflexuak eragotzi egiten du irakurtzea—; atsedenleku gutxi. • Bizkaibusen sartzeko plataformak gaizki erabiltzen dira, eta gidatzeko modua ez da batere lagunkoia adinekoekin. • Arazoak ordutegiak betetzearekin, mugikorrek aplikazioarekin eta markesinak seinaleztatzearekin. • Metroak ez du udalerrira zeharkatzen eta sarrera arriskutsua dauka zubitik.	Trafikoa, bide-segurtasuna eta seinaleak • Bide-heziketa sustatzea, gidariei eta oinezkoiei zuzendutako kontzientziazio-kanpainen bidez. • Radarrak eta seinale pedagogikoak instalatzea, abiadura murrizteko eta gidatze segurua sustatzeko. • Argi keinukariak jartzen jarraitzea, inguruan oinezkoentzako pasabideak daudela ohartarazteko. • Karabanen aparkalekuari buruzko araudi espezifiko bat idazteko aukera balioestea. • Udalerriko beste auzo batzuetan TAO gune bat jartzeko aukera baloratzea. Autobusak eta udal-garraioa (LeioanBusa) • Markesinak handitzea eta egokitzea, haizetik babesteko, segurtasuna hobetzeko eta behar den tamainara egokitzeko. • Geltokietan banku gehiago jartzea, baita markesinetatik kanpo ere. • Leioako auzoen arteko konektibitatea hobetzeko aukera aztertzea, eta, horretarako, LeioanBusa zerbitzua indartzea, barnean harturik Kandelazubietan geltoki bat jartzeko aukera eta biztanle guztientzako irisgarritasuna hobetzea. • Aldundiari helaraztea herritarrek garraioarekin loturik jakinarazten dituzten beharrak: ◦ Informazio-pantailen irakurgarritasuna hobetzea markesinetan: biratzea edo

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
	eta bizi-ohitura aktiboak lortzen laguntzen duena.	• Bide-heziketa eskasa espaloietan bizikletak eta patineteak erabiltzeari buruz. • Bidegorriak falta dira Mendibilen, Ikeamendin edo Barandiaran Goikoa BHLren ondoan. • Desnibel handiak, mugikortasuna zailtzen dutenak: Iparragirretik udaletxera/elizara eta Mendibiletik Ikeamendirako aldapa.	letra-kolorea aldatzea (eta zuriak jartzea), kontraste eta ikusgarritasun handiagoa izateko. ○ Urdulizko Ospitalera doazen autobusen maiztasuna handitzea, auzo gehiago barne hartuta eta puntako orduetan zerbitzua indartuta (20 minutuan behin). ○ 3414 linearen maiztasuna hobetzea, bereziki igandeetan, gaur egun ordubetetik behin igarotzen baita. ○ Aireporturako autobus-linea bat jartzeko aukera aztertzea, Getxorekin ere lotuko duena. Metroa eta trenbide-konexioak • Metroa lurperatzeko beharra berrestea, inpaktu bisuala eta akustikoa murrizteko. • Unibertsitatera doazen garraio-konexioak bultzatzea beste administrazio batzuekin batera. Bidegorriak, bizikletak eta mugikortasun jasangarria • Bide-hezkuntzako kanpainak abiaraztea, oinezkoen eta txirrindularien arteko bizikidetzaren hobetzea. • Bidegorriaren eta espaloiaaren artean dauden eremuetan seinaleak hobetzea, segurtasun eta argitasun handiagoa lortzeko. • BizkaiBizi ekimenaren erabilera arduratsua sustatzea, Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
			• Iparragirre etorbidean bidegorri berri bat gaitzea eta La Avanzadako Eroskiraino zabaltzea. Oinezkoentzako eta mugikortasun urriko pertsonentzako irisgarritasuna • Independentzia kalean eta halako puntu estrategikoetan arrapala mekanikoak jartzea bideragarria ote den aztertzea, desnibel handiko eremuetan oinezkoen mugikortasuna hobetzeko.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Etxebizitza	- Azken urteotan, Leioako etxebizitza-kopuruak gora egin du pixkanaka. - Bizitegi-erabilera nagusia finkatu da, eta nabarmen murritzu da bigarren etxebizitzaren edo etxebizitza hutsen kopurua. - Hiri-antolamenduko plan orokorra onetsi zenetik eraikitako etxebizitzaren ia erdiak babestuak izan dira, eta horrek erakusten du Udalak ahalegin handia egin duela etxebizitza eskuratzeko aukerak bermatzeko. - Udalak laguntzak eskaintzen ditu irisgarritasuna, energia-efizientzia eta eraikinen kontserbazioa hobetzeko.	- Etxebizitza babestuan ahalegin handia egin den arren, oraindik ere zailtasunak daude etxebizitza duina eta eskuragarria lortzeko. - Etxebizitzaren prezioa etengabe igotzea (bai erosteko eta bai alokatzeko) oztopo moduan ikusten da, emantzipaziorako eta bizitegi-egonkortasunerako. - Oraindik etxebizitza askok oztopo arkitektonikoak dituzte atarian. - Etxebizitza-estiloak eta alokairurako laguntzei buruzko informazio eza.	- Hiri-antolamenduko plan orokorra (HAP0a) berrikusteko prozesuan, hutsik dauden lonjak etxebizitza bihurtzeko aukera aztertzea. - Irisgarritasunera eta etxebizitzak birgaitzera bideratutako obra-lizentziak emateko administrazio-izapideak arintzea. - Etxebizitzaren arloko laguntza ekonomikoei eta eskura dauden baliabideei buruzko informazio argi eta eskuragarria zabaltzea. - Herritarrei jakinaraztea badi-rela tradizionalaz bestelako bizitegi-ereduak, hala nola etxekidetza edo <i>cohousinga</i>, etxebizitza komunitarioak... - Zuzkidura-bizitokiaren eraikuntza sustatzea.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Partaidetza eta gizarte-ehuna	• Parte hartzeko gunea egokia da, baita gizarte-ehuna ere. • Udalaren eta herritarren artean hurbiltasuna sumatzen da, Udalak jarrera irekia duela eta teknikari eta politikari gertuko eta harkorrak dituela. • Auzokideen eta familien arteko harremanaren gaineko pertzepzio positiboa: % 70ek baino gehiagok maiz izaten ditu harremanak senitartekoekin, eta % 66,9k ondo ezagutzen ditu bizilagunak. • Adinekoentzako lau zentrok dute eskaintza kultural, fisiko, sozial, digital eta aisialdikoa. • Leioako dendak prest daude Saltoki Lagunkoien Sarera atxikitzeko eta negozioetan beharrezko aldaketak egiteko.	• Gizarte-partaidetzako gune batzuetan eskasa da parte-hartzea, hala jarduerak antolatzen, nola zuzendaritza-batzordeetan. • Ez dira ezagutzen Leioako espazioetan parte hartzeko bideak eta mekanismoak. • Boluntariotzak ikusgarritasun txikia du, eta eskaintzen dituen aukerak ez dira ezagunak. • Auzoen arteko lurralde-zatiketak ahuldu egiten du udal-kohesioa. • Ardura sortzen du gazteek gizarte-bizitzarekiko duten atxikimendurik ezak. • Zailtasunak daude adinekoen zentroetan zuzendaritza-batzordeak sortzeko. • Emakumeek gehiago parte hartu arren, emakume gutxi daude adinekoen zentroetako zuzendaritza-batzordeetan. • Merkataritza-eskaintza urria dago Pinueta, Lamiako, Kandelazubieta eta Telleria auzoetan, besteak beste. • Kirol-aisialdiko eskaintza zabala izan arren, itxarote-zerrendak	Adinekoen zentroetako parte-hartzea • Gizonek adinekoen zentroetako jardueretan gutxiago zergatik parte hartzen duten ikertzea, ildo horretan estrategia espezifikoak garatzeko. • Parte hartzeko moduak bilatzea eta sustatzea, unean unekoak eta denboran malguak, askotariko interesetara eta konpromiso-mailetara egokituak. • Adinekoen zentroek eskaintzen dituzten zerbitzu, jarduera eta aukeren berri ematea erretiratu berriei. • Nortasun kolektiboa eta udalerriarekiko atxikimendua sustatzea, tokiko jaien, gizarte-topaketen eta belaunaldien arteko jardueren bidez. • Herrigune eta halako udal-ekimenak ezagutaraztea adinekoen zentroetan, eta komunitate-bizitzan duten inplikazioa sustatzea. • Adinekoek udalerriaren garapenari eta ongizateari egindako ekarpena ikusaraztea eta jendaurrean eskertzea. • San Bartolome auzoan adinekoentzako espazio propio bat gaitzea, Leioako beste eremu batzuetan dauden zentroak bezalakoa. Aisialdirako, kulturarako eta denbora librerako sarbidea

	• Proiektu berritzaileak sortu dira, hala nola Leioa Bidean eta SolidaridUP, tokiko merkataritza eta ongizate komunitarioa sustatzeko. • Kirol-jardueren eskaintza zabala dute erakunde eta elkarteek.	daude eta instalazioak mugatuak dira. • Kultura- eta prestakuntza-jarduerak egiteko espazio konkretu gutxi daude. • Adin-talde jakin batzuek ez dute parte hartzen, batez ere 14 eta 55 urte bitartekoek.	• Lankidetzeta-hitzarmenak ezartzea beste udalerri batzuetako hurbileko auzoekin (esaterako, Pinueta eta Erromo auzoen artekoa), kultura- eta aisialdi-programazioa partekatzeke. • Leioa erdiguneko kultur eskaintzaren parte bat auzoetara eramaten jarraitzea. • Lamiakoren jarduera arrakastatsuak, hala nola lehiaketak, beste auzo batzuetara zabaltzea, eskaintza dibertsifikatzeko. • Adinekoen zentroen arteko lankidetzeta sustatzea, jarduera bateratuak egiteko. • Zenbait auzotan kultura- eta arte-ekitaldietarako espazio publikoen erabilera sustatzea, eta, ildo horretan, tokiko artistei ikusgarritasuna ematea. Gizarteratzea, kirola eta laguntza • Udalaren kirol-espazioak eta -instalazioak zabaltzea, irisgarriagoak eta askotarikoagoak izan daitezen. • Orientabide-zerbitzua sustatzen jarraitzea, jardunbide osasungarriagoak sustatzeko. • Ermitetarako ibilaldietan eta halako jardueretan laguntzaile profesionalen kopurua handitzeko aukera baloratzea, erritmo eta maila fisiko desberdinak errespetatzeko. • Ostiraletako dantza-taldeei laguntzeko bi pertsona esleitzeko aukera baloratzea, eta partaidetzan oinarrituriko giro segurua bermatzea.
--	---	---	---

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Errespetua eta gizarteratzea	• Errespetu-sentimendua da nagusi, adinaren, generoaren eta egoera pertsonalaren arabera. • Udalak belaunaldien arteko topaketak bultzatzen ditu 2024tik, profesionalak eskainita eta bertako historia eta baterako hausnarketa ardatz hartuta. • Oso positibotzat jotzen dira Txomin Aresti ikastetxeak Eguneke Zentrora egindako bisitak. • Aniztasunaren Asteak, Giza Liburutegiak, Munduko Arrozak eta halako ekimenek kulturen arteko bizikidetza sustatu nahi dute. • Sortarazi eta beste zenbait erakunderen presentzia aktiboak migratzaileen errealitatea ikusarazten dute eta inklusioaren alde lan egiten.	• Errespetu-falta sumatzen da administrazio publikoan, bankuetan eta lan-espazioetan. • Adinekoak gizarte-zentroetara gutxi joaten dira, aurrez dituzten ideiegatik. • Harreman-falta migratzaileekin edo jatorri nazional desberdineko pertsonekin, aurreiritziak, distantzia kulturala edo espazio komunik eza direla eta.	• Belaunaldien arteko jarduerak diseinatzen eta sustatzen jarraitzea, adinekoen eta gazteen artean noranzko biko harremanak sustatzeko, eta, ildo horretan, elkarrekin ikasteko eta bizikidetza aberasgarria izateko espazioak sortzea. • Gazteak gizarte-erakundeetan inplikatzeko ekimenak bultzatzea, belaunaldien arteko erreleboa indartuz eta komunitate-sarea sendotuz. • Udal- eta gizarte-zerbitzuetan arreta presentziala egokitzea arazo sentsorial, kognitibo edo fisikoak dituzten pertsonentzat, eta, hala, arreta irisgarria eta duina ziurtatzea. • Profesionalak arreta inklusiboan trebatzea, arreta berezia emanda adinekoen edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonen beharrei.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Herritarren parte hartzea eta enplegua	• Partaidetza nabarmena aitortzen da kultura-, gizarte-, elkartasun- edo auzo-ekimenetan. • Udalak badu konpromisoa zenbait partaidetza-prozesu abiarazteko. • Jai-arloak du partaidetza-tasarik handiena. • Lan-aukeren tasa handia dago, batez ere zerbitzuen sektorean. • Udalerrian zerbitzuen sektoreak ditu enplegarritasun-tasarik handienak. • Behargintzak lan-eskaintza zabala du, eta egokia da tokiko enpresetako hautaketa-prozesuekin dituen harremana eta lankidetzak.	• Herritarrek oro har uste dute herritarrek ez dutela parte hartzen. • Eremu soziala eta asoziazionismoa murrizten ari dira. • Belaunaldi-erleborik eza oztipoa da parte hartzeari begira. • Partaidetzan aldeak hautematen dira, belaunaldien arabera. • Partaidetza-prozesuetan eskatzen den konpromiso-maila. • Lan-aukeren egonkortasuna zalantzazkoa da. • Zainketen sektoreak zailtasun ugari ditu.	Asoziazionismoa eta partaidetza soziala indartzea • Hirugarren sektore sozialeko elkarten topaketa edo azoka bat antolatzea, elkarteak beren artean eta herritarren aurrean ezagutarazteko topagune gisa. • Hirugarren sektoreko elkarteak sustatzea eta horiei buruzko informazioa zabaltzea. • Esparru horretan diharduten elkarteak aztertzea eta eguneratzea, bai Leioan daudenak, bai lankidetzan aritu ohi direnak. • Ekitaldi bat antolatzea boluntarioek gizarte-arloan duten funtsezko zereginari balioa emateko, eta, hala, komunitatearen onurarako duten dedikazioa eta ibilbidea aitortzea. • Partaidetza-prozesuak diseinatzen jarraitzea, herritarrek haietan parte hartzen jarraitu ahal izan dezaten, eta emaitzak itzuliko direla bermatzea. • EHUrekiko lankidetzak indartzea indarrean dagoen hitzarmenaren esparruan, eta baterako ekintzak abian jartzea. Erretiratuei laguntzea eta enplegua sustatzea • Erretiro osteko jarduerak edo lanak bilatzen dituzten erretiratuentzako laguntza- eta orientazio-zerbitzu bat eskaintzea, eta trantsizioa errazten duten erakundeak

			sustatzea, hala nola SECOT, SASOIKO eta HARTU EMANAK. • Erretiratuentzako prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen zabalkundea sustatzea, eta, horretarako, informazio-hitzaldiak antolatzea udalerrian, adinekoen zentroetan eta tokiko beste elkarte batzuetan. • Euskal Herriko Unibertsitateak erretiratuentzako eta langabeentzako etengabeko prestakuntzako edo aprobetxamenduko programak garatzeko zer ahalmen duen aztertzea. • BONUAK erabiltzeko aldez aurreko erosketa-sistema tradizionalari berriro ekitea, eta, hala, tokiko produktu eta zerbitzuak herritarren eskura jartzea. Enplegua eta laneratzea sustatzea • Gizarte-intereseko beste sektore batzuen artean, lan-poltsa bat sortzeko aukera aztertzea, adinekoak zaintzearekin, mendekotasunarekin eta etxeko lanekin lotutako zereginetarako prestakuntza egokia duten langileak kontratatzeko. • Kultura-, gizarte- eta kirol-erakundeei zuzendutako dirulaguntzen oinarrietan boluntariotza sustatzen duten klausulak sartzeko aukera aztertzea, eta, hala, inpaktu soziala eta babes komunitarioa bultzatzea.
--	--	--	---

			Prestakuntza, orientazioa eta zerbitzuak hobetzea • Erakundeentzako agenda elektroniko bat sortzea, eskuragarri dauden lokalei eta jarduerak antolatzeko erreserba-sistemari buruzko informazio eguneratuarekin. • Udal-espazioak lagatzea udalerrian lan egiten duten gizarte-erakunde eta elkarteei, eta, horrela, komunitate-lana erraztea.
--	--	--	--

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Komunikazioa eta informazioa	- Leioak komunikazio-eskaintza zabal, askotariko eta kanalaniztuna du: sare sozialak, webgunea, kartelak, aldizkariak eta hedabide tradizionalak. - Udalak profil aktiboak eta bereiziak ditu sare sozialetan, eta, horri esker, mezuak egokitu egin daitezke publiko zehatzetara. - Udal-aldizkaria formatu fisiko eta digitalean argitaratzen da, eta irisgarritzat, argitzat eta erabilgarritzat jotzen dute herritar gehienek. - Udalerrian zehar, pantaila digitalak eta informazio-puntu fisikoak daude sakabanatuta, eta irisgarritasuna indartzen dute. - Euskara sustatzeko eta normalizatzeko estrategiak hedatu dira, plan espezifikoekin eta informazio-plataforma berrituekin.	- Kartel fisikoak ez dira beti behar bezala eguneratzen, eta eduki zaharkitua eduki ohi dute. - Udal-plataforma digitalak, webgunea kasu, ez dira oso intuitiboak herritarren ustez. - Komunikazioaren oztopo nagusiak: digitalizazioa eta hizkuntza. - Herritarrek sare sozialak gaizki erabiltzen dira: zurrumurruak, albiste faltsuak... - Egungo komunikazio-estategiek ez dituzte beti kontuan hartzen kolektibo zaurgarrien irisgarritasun- eta ulermen-beharrak. - Euskarak, nahiz eta kanal ofizialetan presentzia izan, ez du pisu bera gune informaletan, hala nola saltokietan edo elkarteetan.	- Leioa Lagunkoia ekimenaren talde eragilea baliatzea, Udalak garatzen dituen tresna digital eta web-diseinu berrien erabilerraztasuna eta erabilgarritasuna probatzeko. - Udalaren webgunearen irisgarritasuna, egitura eta edukiak hobetzea, herritar guztiek informazioa argi eta garbi eta erraz eskura dezaketela bermatzeko. - Udaleko WhatsAppeko kanal bat sortzeko aukera baloratzea. - Udalaren eta herritarren arteko komunikazio-formula aktibo berriak baloratzea eta aztertzea. - Udalaren webgunean mapa bat argitaratzea, udalerriko informazio-panel fisikoen kokapenarekin, eta, hala, haien identifikazioa erraztea. - Panel elektronikoen mantentze- eta eguneratze-lanak hobetzea, informazio erabilgarri eta eguneratua erakuts dezaten.

ARLOA	ALDERDI POSITIBOAK	ALDERDI NEGATIBOAK	HOBETZEKO PROPOSAMENAK
Gizarte- eta osasun-zerbitzuak	- Leioak gizarte-zerbitzuen egitura sendoa du, zeinak zenbait arlo biltzen baititu, hala nola adinekoak, gizarteratzea, berdintasuna, immigrazioa eta adikzioen prebentzioa. - Adinekoentzako zenbait programa espezifiko eta pertsonalizatu eskaintzen dira: etxez etxeko laguntza-zerbitzua, laguntza psikologikoa, lantegiak, zaintzaileentzako prestakuntza eta ZAINDUZ programak. - Badira balioespen ona jasotzen duten zerbitzu berritzaileak, hala nola eten digitalari aurre egiteko <i>Leioa Konecta</i>, bai eta ongizate emozionaleko lantegiak eta belaunaldien arteko jarduerak ere. - Gizarte- eta osasun-zerbitzuen arteko koordinazio egokia nabarmentzen da, eta baterako jarduera	- Osasun-langileen falta antzematen da —txandakatzeko handiak eta anbulatorioan hitzordu medikoak lortzeko zailtasunak—, eta horrek nahigabea eta larrialdien erabilera desegokia eragiten ditu. - Ez dira behar besteko aurrerapenaz ezeztatzen hitzordu medikoak, eta arretaren bora efizientziarik gabe kudeatzea eragiten du horrek. - Atzerapausotzat jotzen da osasun-zentroetako psikologia-zerbitzua kentzea, medikuei lana kentzen baitzien. - Sare publikoan zenbait profesionalen falta sumatzen da (geriatriak edo podologoak, kasurako), baita prebentzioko arreta psikologikoarena ere, batez ere gazteei zuzendua. - Suizidioa prebenitzeko telefonoaren ikusgarritasuna txikia da osasun-zentroetan, nahiz eta Bizkaiko lurralde historikoan kezagarria izan suizidio-kopurua.	Osasun-arreta eta osasun mentala hobetzea - Osakidetzaren eta Leioako Udaren arteko koordinazio instituzionalerako guneak sustatzea, Lagunkoia programaren esparruan osasun-arretaren inguruan jasotako herritarren eskaerak batera helarazteko; esate baterako: - Lehen mailako arretan bahetze-sistema bat ezartzeko eskatzea, asistentzia-antolamendua hobetu ahal izateko. - Osasun-zentroko harreran erabiltzaileei ematen zaion arreta hobetzeko eskatzea. - Psikiatriako, psikologiako eta gerontologiako kontsultak udalerrian eskaintzeko aukera proposatzea. - Egun jakin batzuetan anbulatorioan arreta psikologikoa eta psikiatrikoa eskain dadin sustatzea. - Gizonentzako zerbitzu psikologikoa sustatzea. - Osakidetzari proposatzea narriadura kognitiboko kasuak goiz detektatzeko tresna teknologikoak balora ditzan. - Osakidetzari SMS bidezko abisu-sistema bat sortzeko aukera proposatzea, hitzordu medikoak erraz gogoratzeko edo bertan behera uzteko.

	komunitarioak eskaintzen dituztela. • Leioak osasun-zentro bat du, baita haur eta gazteen osasun mentaleko zentro bat ere, eta ondo lotuta dago erreferentziazko ospitaleekin (Urduliz eta Gurutzeta). • Herritarrek ontzat ematen dituzte zenbait jardunbide, hala nola dosifikazio-sistema pertsonalizatua etxetik etxeko laguntza-zerbitzua jasotzen duten pertsonentzat.	• Leioa Konekta programak eta ZAINDUZ zerbitzuak ikuspen txikia dute, balorazio ona izan arren. • Adinekoen zentroetako jarduerak ez diote erantzuten jasotako eskaera guztiari, eta itxarote-zerrendak sortzen dira. • Bizkaiko Foru Aldundiaren Eguneko Zentroa txiki geratu da. Erabiltzaileen profilak aldatu egin dira, eta, horregatik, beharrezkoa da profil desberdineko eguneko zentro espezializatuak izatea. • Herritarren artean gutxi ezagutzen dira Udalaren gizarte-zerbitzuak. • Gizarte-zerbitzuen erabilerari lotutako estigma sozialak hor jarraitzen du, eta zaildu egiten du prebentzio-faseetan erabiltzea. • Gizarte-zerbitzuetako instalazio batzuek gabeziak dituzte espazioari, irisgarritasunari eta pribatutasunari dagokienez.	○ Informazio-kartelak jartzeko aukera proposatzea, erabili behar ez diren hitzordu medikoak arduraz baliogabetzea sustatzeko. ○ Osakidetza azterketa bat egiteko eskatzea, pertsona batzuk hitzordu medikoetara ez joatearen arrazoiak identifikatzeko. ○ Osasun-arloan adinekoen aurkako tratu txarrak detektatzeko eta halakoen aurrean esku hartzeko protokolo espezifiko bat ezartzeko eskatzea. ○ Laguntza teknikoetarako sarbidea arintzea, Osakidetza errezetak agintzeko sisteman txertatzearen bidez. • Ongizate emozionalarekin eta hezkuntza afektibo-sexualarekin lotutako ikastaroak eta lantegiak zabaltzea, adin desberdineko familientzat. • Udalaren prestakuntza-eskaintza sistematizatzea eta sendotzea, eta urteko programazioa antolatzea funtsezko arloetan, hala nola ongizate kognitibo eta emozionalean, eta osasun mentalean. • Osasun mentala sustatzeko kanpainak. Gizarte-zerbitzuak indartzea • Gizarte-zerbitzuen informazioa eskuratzeko prozesuak eta kanalak baloratzeko sistema bat diseinatzea.
--	--	--	---

			• Komunikazioaren eraginkortasuna baloratzea eta egiaztatzea; adibidez, pertsona bakoitzak eskura dituen zerbitzuen berri nola izan duen galdetuz. • Gizarte-zerbitzuen udal-gida eguneratzea. • Adinekoentzako baliabideen gida egitea. • Gizarte-baliabide eta -zerbitzuen hedapena indartzea, eta, horretarako, liburuxkak, hitzaldiak eta posta-banaketak antolatzea, farmaziak eta elkarteak ere barne hartuta. • Gizarte-langileen kopurua ugaritzea, dagoen eskaerari behar bezala erantzuteko. • Erretiro osteko jarduerak edo lanak bilatzen dituzten erretiratuentzako laguntza- eta orientazio-zerbitzu bat eskaintzea, eta trantsizioa errazten duten erakundeak sustatzea, hala nola SECOT, SASOIKO eta HARTU EMANAK. • «Adinak biziz» ekimena abian jartzeko aukera balioestea. • Eguneko zentroa handitzeko aukera sustatzea, bai plaza-kopuruari dagokionez, bai kontratatutako langileei dagokienez. • Nahi gabeko bakardadeari aurre egiteko prestatutako laguntzailearen figura sustatzea, eta, hala, enplegua eta laguntza komunitarioa sortzea. • Bakarrik dauden edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako jarduera espezifikoen bideragarritasuna aztertzea. • Udalaren prestakuntza-eskaintza sistematizatzea eta sendotzea eta urteko
--	--	--	---

			programazioa antolatzea funtsezko arloetan, hala nola ongizate kognitiboan, emozionalean, osasun mentalean eta adin desberdinetako pertsonen zuzendutako hezkuntza afektibo-sexualean. • Leioa Konecta plataforma aktiboki sustatzea askotariko bitartekoen bidez, herritarren artean haren irismena eta erabilgarritasuna areagotzeko. • Adinekoen zentroen arteko lankidetzak sustatzea, jarduera bateratuak egiteko. • Adinekoen zentroetan Leioa Konecta zerbitzua luzatzea, tresna erabilgarri den aldetik. • Bakarrik bizi diren pertsonentzako topaketa sozialak sustatzea. Adinekoen gizarte-zentroak hobetzea • Zentroetan hitzaldiak antolatzea, zer zerbitzu eskaintzen diren, nola sar daitezkeen eta nola izena eman jakinarazteko. • Erretiratuentzako prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen zabalkundea sustatzea, eta, horretarako, informazio-hitzaldiak antolatzea udalerrian, adinekoen zentroetan eta tokiko beste elkarte batzuetan. • Udalerriko beste eremu batzuetan espazio batzuk zabaltzearen edo jarduera-guneak sortzearen bideragarritasuna aztertzea. • Materialak eta ekipamendua berritzeko eta eguneratzeko beharra balioestea. • Irisgarritasuna hobetzea eta komunak egokitzea, eskatzen duten zentroetan.
--	--	--	---

			• Zentroen mantentze- eta garbiketa-lanak Udalaren esku daudela jakinaraztea. • Urtero adinekoen zentroak bisitatzeko sistema hobetzeko lanean jarraitzea, hobekuntza- edo konponketa-beharrak detektatzeko, eta, ildo horretan, haien eskaerak jasotzea, arduradunak esleitzea eta arreta emateko epe zehatzak ezartzea. • Auzo bakoitzean arrazoizko prezioko bonuak eskaintzen dituen podologia-zerbitzu batekin hitzarmena sinatzeko aukera balioestea.
--	--	--	---

BIBLIOGRAFIA

- .
- BEHARGINTZA LEIOA (d.g.). *Enplegu eta tokiko garapenerako zentroa*. Hemendik hartua: <https://behargintzaleioa.net/eu/behargintza-leioa>.
- EIN (2024). Cifras Oficiales de Población de los Municipios Españoles: Revisión del Padrón Municipal, Leioa, Sexo [2024-06-05ean kontsultatua]. Hemendik hartua: https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=2905#_tabs-grafico.
- EUSTAT (2022). *Leioako ekonomiari buruzko datu estatistikoak*. Hemendik hartua: https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/leioa.html.
- EUSTAT (2022). https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/leioa.html.
- EUSTAT (2022). *2 urte edo gehiagoko biztanleak, euskara-maila orokorraren arabera*. Eustat, Leioako datu estatistikoak. Hemendik hartua: https://eu.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/leioa.html.
- EUSTAT (2025). Leioako datu estatistikoak [egindako azken kontsulta: 2025-07-10]. Hemen eskuragarri: https://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/leioa.html.
- GARAPEN HIRI BEHATOKIA (2025). *Leioa 2024ko datu bankua*. Behargintza.
- GARCÍA-ANDRÉS, A., ETXEZARRETA ETXARRI, A. (2021). «Un estudio de caso de los desahucios a nivel local: el caso de "Stop Desahucios Araba"», *Revista De Economía Crítica* 1(25): 26–46. Hemendik hartua: <https://revistaeconomicacritica.org/index.php/rec/article/view/178>.
- GÓMEZ, D., CARRANZA, Y., RAMOS, C. (2017). «Revisión documental, una herramienta para el mejoramiento de las competencias de lectura y escritura en estudiantes universitarios», *Revista Chakiñan de Ciencias sociales y humanidades*, 1: 46–56.
- LEIOA EUSKARA (2025). *Leioan euskara indarberitzeko eta euskaldunok ahalduntzeko marko estrategikoa 2024–2034*. Leioako Udala.
- LEIOAKO UDALA (2020). *Leioako mapak, atzealdea*. Hemendik hartua: https://www.leioa.net/conoce_doc/Plano_LEIOA_ANVERSO_2020_150ppi.pdf.
- LEIOAKO UDALA (2023). *HOEI – Hizkuntza Ofizialak erabiltzeko irizpideak*.
- LEIOAKO UDALA (2023). *LEIOAKO UDALAREN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA 2027*. Leioako Udala.
- LEIOAKO UDALA (2024). «Herriarrei arreta digitala emateko "Leioa Konecta" bulegoa abian jarri da». *Albisteak*. Hemendik hartua: <https://www.leioa.net/eu/noticias/3458/Puesta%2Ben%2Bmarcha%2Bde%2Bla%2Boficina%2Bde%2Batenci%C3%B3n%2Bdigital%2Ba%2Bla%2Bciudadan%C3%ADa%2>

[C%2B%E2%80%9CLeioa%2BKonecta%E2%80%9D%2B/%2B%2B.html?utm_source=chatgpt.com](https://www.leioa.net/eu/conoce_leioa/transporte/Transporte.html?utm_source=chatgpt.com).

- LEIOAKO UDALA (d.g.). *Garraioa*. Hemendik hartua: https://www.leioa.net/eu/conoce_leioa/transporte/Transporte.html.
- LEIOAKO UDALA (d.g.). *Guía de Recursos del Área de Bienestar Social del municipio de Leioa*. Hemendik hartua: https://www.leioa.net/vive_doc/ALTA_GL_Horizontal_Cast.pdf.
- LEIOAKO UDALA (d.g.). *LEIOAKO HAPO-AREN BERRIKUSPENA*. Hemendik hartua: <https://leioazabalik.leioa.net/eu/hapo>.
- LEIOAKO UDALA (d.g.). *Gizarte-zerbitzuak*. Hemendik hartua: https://www.leioa.net/eu/vive_la_ciudad/sociales/Servicios+Sociales.html.
- LEIOAKO UDALA (d.g.). *Kokapena*. Hemendik hartua: https://www.leioa.net/eu/conoce_leioa/localizacion/Localizaci%C3%B3n.html.
- LEIOAKO UDALA (2025eko otsailaren 24a). *Leioako Udalak belaunaldien arteko topaketak jarri ditu abian, adinekoek eta gazteek memoria, esperientzia eta ezagutza etorkizuneko ikuspegiarekin partekatzeko*. Hemendik hartua: <https://www.leioa.net/eu/noticias/3686/El%2BAyuntamiento%2Bde%2BLeioa%2Bpone%2Ben%2Bmarcha%2Buna%2Bserie%2Bde%2Bencuentros%2Bintergeneracionales%2C%2Bpara%2Bque%2Bmayores%2By%2Bj%C3%B3venes%2Bcompartan%2Bmemoria%2C%2Bexperiencia%2By%2Bconocimiento%2Bcon%2Bperspectiva%2By%2Bvisi%C3%B3n%2Bde%2Bfuturo/%2B%2B.html>
- NICK LEIOA BLOGA (2023ko urtarrilaren 28a). *Historia*. Hemendik hartua: <https://nickleioa.eus/tag/historia/>.
- OECD (2023). *Education at a Glance 2023: OECD Indicators*. Paris: OECD Publishing. <https://doi.org/10.1787/e13bef63-en>.
- OSAKIDETZA (d.g.). *Leioako Osasun Zentroa*. Hemendik hartua: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/leioako-osasun-zentroa/webosk00-cercon/eu/>.
- VELA, M. Á. (2003): «"Vivienda...vivienda mínima», Revista académica e institucional de la UCPR 66: 103–111.

